Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco - Sarrera/Entrada - 2019/07/24 - 11:25:26 - Zk./Núm.: 4072

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ANDRE HORI:

Honako hau jakinarazten dizut: Eusko Jaurlaritzak, 2019ko ekainaren 25an egindako bilkuran, **Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko LEGE-PROIEKTUA** onartu du.

Hori ziurtatu egiten dut eta, Jaurlaritzak erabakitakoa betez, horren berri ematen dizut, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean exijitutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a.

EXCMA. SRA.:

Tengo el honor de comunicar a V.E. que el Gobierno Vasco, en Sesión celebrada el día 25 de junio de 2019, ha procedido a la aprobación del **PROYECTO DE LEY de lugares, centros de culto y diversidad religiosa en la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

Lo que certifico y, en cumplimiento de lo acordado por el Gobierno, traslado a V.E., de conformidad con lo exigido por la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de julio de 2019.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio

SECRETARIO DEL GOBIERNO
JAURLARITZAKO IDAZKARIA

EXCMA. SRA. PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO/
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTU-LEKUEI EDO -ZENTROEI ETA ERLIJIO-ANIZTASUNARI BURUZKO LEGE PROIEKTUA

PROYECTO DE LEY DE LUGARES, CENTROS DE CULTO Y DIVERSIDAD RELIGIOSA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

HONEKIN BATERA AURKEZTEN DIREN AGIRIAK

DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN

	BIDALKETA-IDAZKIA	OFICIO DE REMISIÓN
I.	LEGE PROIEKTUAREN TESTUA	TEXTO DEL PROYECTO DE LEY
II.	MEMORIAK	MEMORIAS
III.	MEMORIA EKONOMIKOA	MEMORIA ECONÓMICA
IV.	AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN TXOSTENA	INFORME DE ASESORÍA JURÍDICA
V.	GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA	INFORME DEL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO
VI.	EMAKUNDEAREN TXOSTENA	INFORME DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
VII.	HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALITZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA	INFORME DE LA DIRECCIÓN DE NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS
VIII.	ESTATUTUAREN GARAPENERAKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA	INFORME DE LA DIRECCIÓN DE DESARROLLO ESTATUTARIO
IX.	EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI TXOSTENA	INFORME DE LA COMISIÓN DE GOBIERNOS LOCALES
X.	EKONOMIA- ETA ARAU-KONTROLAREN TXOSTENA	INFORME DE CONTROL ECONÓMICO-NORMATIVO
XI.	EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOKO IRIZPENA	DICTAMEN DE LA COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI
XII.	PROZEDURA HASTEKO AGINDUA	ORDEN DE INICIO DEL PROCEDIMIENTO
XIII.	PROIEKTUA AURRETIK ONARTZEKO AGINDUA	ORDEN DE APROBACIÓN PREVIA DEL PROYECTO

OFICIO DE REMISIÓN /
BIDALKETA-IDAZKIA

PROYECTO DE LEY DE LUGARES, CENTROS DE CULTO Y DIVERSIDAD RELIGIOSA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO /
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTU-LEKUEI EDO -ZENTROEI ETA ERLIJIO-ANIZTASUNARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA

ANDRE HORI:

Honako hau jakinarazten dizut: Eusko Jaurlaritzak, 2019ko ekainaren 25an egindako bilkuran, **Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko LEGE-PROIEKTUA** onartu du.

Hori ziurtatu egiten dut eta, Jaurlaritzak erabakitakoa betez, horren berri ematen dizut, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean exijitutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a.

EXCMA. SRA.:

Tengo el honor de comunicar a V.E. que el Gobierno Vasco, en Sesión celebrada el día 25 de junio de 2019, ha procedido a la aprobación del **PROYECTO DE LEY de lugares, centros de culto y diversidad religiosa en la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

Lo que certifico y, en cumplimiento de lo acordado por el Gobierno, traslado a V.E., de conformidad con lo exigido por la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de julio de 2019.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio

SECRETARIO DEL GOBIERNO
JAURLARITZAKO IDAZKARIA

EXCMA. SRA. PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO/
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA

I

TEXTO DEL PROYECTO DE LEY / LEGE PROIEKTUAREN TESTUA

PROYECTO DE LEY DE LUGARES, CENTROS DE CULTO Y DIVERSIDAD RELIGIOSA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO / EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTU-LEKUEI EDO -ZENTROEI ETA ERLIJIO-ANIZTASUNARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA

PROYECTO DE LEY DE LUGARES, CENTROS DE CULTO Y DIVERSIDAD RELIGIOSA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Todos los ordenamientos jurídicos democráticos, así como la normativa Internacional de los Derechos Humanos, reconocen el derecho de las personas a la libertad religiosa y de culto como un derecho fundamental dotado de las máximas garantías jurídicas. La libertad de religión se reconoce también en el artículo 16 de la Constitución de 1978, que ha sido objeto de desarrollo mediante la Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa y en los acuerdos de cooperación que el Estado ha concluido con diferentes iglesias y entidades religiosas. En el ámbito europeo, debe recordarse la protección que otorga a este derecho el artículo 9 del Convenio Europeo de Derechos Humanos, así como los artículos 10 y 22 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea.

Al mismo tiempo, los fenómenos religiosos han experimentado, durante las últimas décadas, importantes transformaciones en las sociedades de nuestro entorno. Con carácter general, puede señalarse que esta evolución del hecho religioso se debe a la diversificación de creencias o de pertenencias, así como a los procesos de secularización que afectan a una parte importante de nuestras sociedades. En el ámbito específico de la sociedad vasca, la diversidad religiosa, aunque no constituye una novedad radical en términos históricos, supone un elemento cada vez más relevante socialmente, lo que justifica y requiere, en medida creciente, una adecuada gestión pública de tal diversidad. Si bien durante varios siglos el País Vasco se ha presentado fundamentalmente como una sociedad más bien homogénea en cuanto a las expresiones religiosas, hoy en día muestra un paisaje diversificado y plural, tanto en lo que se refiere a la presencia de diversas tradiciones religiosas como a distintas formas de articulación.

La creciente diversidad religiosa que caracteriza hoy a la sociedad vasca deriva de distintos factores sociales. Los recientes movimientos migratorios han contribuido a ampliar el panorama de tradiciones religiosas presentes en el País Vasco o a consolidar el previamente existente. Igualmente, otros procesos sociales también deben ser tenidos en cuenta; así, por ejemplo, se encuentra la mayor posibilidad de interrelación social entre grupos diferenciados que deriva de las nuevas formas de comunicación o interacción, los avances tecnológicos y comunicativos y la mayor oferta social de experiencias vitales. En definitiva, la sociedad vasca, como otras sociedades europeas desarrolladas, presenta hoy un panorama de creciente pluralidad religiosa que, posiblemente, sea un fenómeno definitivo e irreversible.

No obstante, el ordenamiento jurídico vigente no dota a las instituciones públicas de instrumentos normativos suficientes para gestionar un buen número de cuestiones y demandas que surgen, en la práctica social, por la presencia de esta nueva realidad plural. Esta carencia de concreción normativa o de principios de gestión política se proyecta, entre otros elementos, sobre la cuestión de los lugares o centros de culto, que suponen en muchas ocasiones, parámetros necesarios para el ejercicio adecuado del derecho a la libertad religiosa y de culto, en su vertiente externa o colectiva. La Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa, garantiza, en su artículo segundo,

el derecho de las iglesias, confesiones y comunidades religiosas a establecer lugares de culto o de reunión con fines religiosos, como una parte inherente de aquella libertad fundamental. En este sentido, la legislación estatal define como lugares o centros de culto aquellos edificios o locales destinados, de forma exclusiva, a la práctica habitual de la oración, formación o asistencia religiosa. El carácter o la naturaleza de lugar o centro de culto no se obtienen sólo por el cumplimiento de las finalidades señaladas legalmente, sino que se requiere además la correspondiente certificación que lo acredite.

La Ley vasca 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, establece reglas concretas de aplicación para la ordenación y apertura de los lugares o centros de culto. Esta Ley recoge una previsión, vinculante, para la Administración encargada del diseño urbanístico, de establecer obligatoriamente en la red de sistemas generales una reserva sobre equipamientos colectivos privados, entre ellos los centros de carácter religioso (artículo 54.2e). Del mismo modo, la norma incluye entre los elementos necesarios de la red dotacional de los sistemas locales unos equipamientos privados destinados, entre otros, al uso religioso (artículo 57.2.e) que tendrían acomodo también en los estándares de sistemas locales, igualmente previstos en la misma ley (artículo 79), tanto para el suelo urbano no consolidado como para el urbanizable, en ambos casos, de carácter residencial.

La Comunidad Autónoma del País Vasco dispone de amplias competencias en materia urbanística, así como en otras materias que pueden tener un perfil de naturaleza religiosa, tales como sanidad, asistencia social, educación, medios de comunicación, medio ambiente o patrimonio histórico y cultural. El artículo 9.2 del Estatuto de Autonomía señala el compromiso de los poderes públicos vascos para, en el ámbito de sus competencias, velar y garantizar por el adecuado ejercicio de los derechos y deberes fundamentales de la ciudadanía, lo que se traduce en el deber de adoptar las medidas dirigidas a promover las condiciones y a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad de las personas y de los grupos en que se integran sean efectivas y reales. La materialización de esa igualdad y libertad en la esfera religiosa se consigue a través de la práctica y garantía de lo que el Tribunal Constitucional ha denominado “laicidad positiva”, que incumbe con la misma intensidad a todos los poderes públicos de orden estatal, autonómico, foral o local. Por otro lado, el artículo 16 de la Constitución de 1978 encomienda, en forma de mandato u obligación, la cooperación con el conjunto de confesiones religiosas por parte de todos los poderes públicos.

En consecuencia, los poderes públicos vascos tienen la obligación de adoptar medidas positivas, incluyendo las de carácter normativo, para asegurar el ejercicio de los derechos fundamentales en su territorio, lo que abarca, desde luego, la libertad religiosa; medidas que deben adoptarse en plena armonía con el principio de no discriminación y con respeto a los principios operativos del ordenamiento jurídico, entre los que destaca el de seguridad jurídica.

El ejercicio de la libertad religiosa encuentra su expresión más pública, concreta y manifiesta en la posibilidad de contar, en función de cada realidad socio-religiosa local, con espacios y centros de culto normalizados que respondan a su diversidad religiosa. Todo lo anterior, justifica la necesidad de la adopción de una normativa que proteja la diversidad religiosa y el derecho a la libertad de religiosa y de culto. Una normativa que, en este ámbito, responda de modo efectivo a las obligaciones que derivan de una lectura actualizada del Estatuto de Autonomía.

Así, la presente Ley protege el derecho a la libertad religiosa, en relación con la apertura y utilización de lugares o centros de culto, como un derecho fundamental dotado de las mayores garantías jurídicas.

En coherencia con todo ello, el Capítulo Primero establece el objeto de la Ley, los principios que la inspiran, su ámbito de aplicación y la definición de lugar y centro de culto.

El Capítulo Segundo de la Ley regula la utilización esporádica de equipamientos o espacios de titularidad pública para fines religiosos, y la determinación de los usos religiosos por los planes municipales que establecen la ordenación urbanística.

El articulado del Capítulo Tercero concreta los preceptos relativos a licencias urbanísticas, a la comunicación de apertura de lugares o centros de culto, a la aplicación del régimen de actividades clasificadas, a otras autorizaciones de actividad, así como a las condiciones técnicas y materiales de obligado cumplimiento para los lugares o centros de culto, y a las medidas contra el incumplimiento de las condiciones de apertura.

El Capítulo Cuarto de la Ley está destinado a regular la creación del Consejo Interreligioso Vasco con carácter de marco preferente de diálogo interreligioso para la convivencia. Se dota a este Consejo de funciones de asesoramiento e informe en aquellas iniciativas y decisiones de las Instituciones vascas que puedan afectar de forma específica al ejercicio de la libertad religiosa y de culto. El Consejo Interreligioso Vasco se proyecta como el motor dinamizador de la gestión positiva de la diversidad religiosa en Euskadi y como punto de encuentro de instituciones, confesiones religiosas, entidades académicas y organizaciones de la sociedad civil. Se configura, en última instancia, como un foro de diálogo y acuerdo en el que compartir diagnósticos y proponer actuaciones coherentes con la protección y promoción de la pluralidad de nuestra sociedad.

En definitiva, la Ley pretende ofrecer una respuesta normativa coherente, viable y plenamente conforme con los principios de nuestro ordenamiento a una realidad social emergente e íntimamente ligada al ejercicio de un derecho fundamental, cumpliendo, de esta manera, el mandato estatuyente de facilitar la igualdad real y efectiva de toda la ciudadanía y de los grupos en los que se integra en el ejercicio de sus derechos dentro de una sociedad democrática y plural.

CAPÍTULO PRIMERO

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto.

El objeto de la presente Ley es proteger la convivencia y la diversidad religiosa de nuestra sociedad, establecer mecanismos de diálogo y acuerdo para una gestión positiva de la misma, y garantizar, en relación con la apertura y utilización de lugares o centros de culto, el ejercicio del derecho fundamental a la libertad religiosa de las personas y de las diferentes iglesias, confesiones y comunidades religiosas, todo ello sin que pueda producirse ninguna discriminación entre las mismas.

Artículo 2.– Principios y derechos.

1.– Los principios que inspira la presente Ley son:

a) La garantía efectiva del ejercicio individual y colectivo de la libertad religiosa y de culto dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Las limitaciones al ejercicio de estos derechos solo podrán realizarse de acuerdo con lo indicado en la Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa.

b) La garantía de igualdad de trato entre las diversas comunidades y confesiones religiosas presentes en la sociedad vasca tanto por lo que se refiere a la apertura de lugares o centros de culto como a los controles sobre su funcionamiento que resulten procedentes de acuerdo con esta Ley.

c) La garantía de unas condiciones óptimas de seguridad y salubridad en la apertura y utilización de los lugares o centros destinados al culto y otras finalidades religiosas, de acuerdo con lo establecido en el marco normativo vigente.

d) El derecho de las personas y de las diferentes iglesias, confesiones y comunidades religiosas presentes en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco a disponer de lugares destinados al ejercicio de la libertad religiosa y de culto en condiciones de igualdad.

2.– A los efectos de la presente Ley, se entenderá por discriminación directa e indirecta en el ejercicio del derecho a la libertad religiosa y de culto, lo siguiente:

a) Se produce discriminación directa cuando una iglesia, confesión o comunidad religiosa recibe, en algún aspecto relacionado con la apertura y funcionamiento de lugares o centros de culto, un trato diferente del recibido por otra iglesia, confesión o comunidad en una situación análoga, siempre que la diferencia de trato no tenga una finalidad legítima que la justifique, objetiva y razonablemente, y los medios utilizados para alcanzar dicha finalidad sean adecuados y necesarios.

b) Se produce discriminación indirecta cuando un plan de ordenamiento urbanístico municipal, una licencia, una concesión, un criterio o una práctica ocasionan una desventaja a una iglesia, confesión o comunidad religiosa, respecto a otras en el derecho a disponer de un lugar o centro para el culto. No existe discriminación indirecta si la actuación tiene una finalidad legítima que la justifique, objetiva y razonablemente, y los medios para alcanzar esta finalidad sean adecuados y necesarios.

Artículo 3.– Ámbito de aplicación.

1.– La presente Ley será aplicable a los lugares o centros de culto incluidos en el ámbito de aplicación de la Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa, así como a todos aquellos espacios y equipamientos públicos que se destinen, esporádicamente, a una actividad de naturaleza religiosa.

2.– Las previsiones de la presente Ley no serán aplicables a los lugares o centros de culto situados en centros hospitalarios, asistenciales o educativos, en cementerios, en tanatorios y en centros penitenciarios, así como a los ubicados en espacios de titularidad pública o privada destinados a otras actividades principales, todos los cuales se rigen por la correspondiente normativa, si bien en su aplicación se procurará atender a los principios que inspiran esta Ley.

3.– Tampoco será de aplicación a los lugares o centros de culto incluidos en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco, que se rigen por lo establecido en la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco.

Artículo 4.– Definición de lugar o centro de culto.

Se entiende por lugar o centro de culto el edificio, local o dependencia aneja de pública concurrencia, sea cual fuere su titularidad, pública o privada, destinado, principalmente y de forma permanente, a la práctica del culto, a la realización de reuniones de finalidad religiosa, y a la formación o la asistencia de tal carácter, siempre y cuando haya sido reconocido expresamente como tal centro por la correspondiente iglesia, confesión o comunidad religiosa con personalidad jurídica, de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa.

CAPÍTULO SEGUNDO

LIBERTAD RELIGIOSA Y DE CULTO EN EL MARCO DE LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA

Artículo 5.– Utilización esporádica de equipamientos o espacios de titularidad pública para fines religiosos.

1.– Para llevar a cabo de forma esporádica actividades de carácter religioso las administraciones públicas dispensarán un trato igualitario, de conformidad con la normativa que en función del caso sea de aplicación, a todas las confesiones y comunidades religiosas respecto:

a) A las cesiones y autorizaciones de uso privativo de equipamiento y espacios públicos.

b) Al uso privativo del dominio público.

c) A la ocupación temporal de la vía pública.

d) A la cesión de bienes patrimoniales.

2.– A los efectos del uso privativo del dominio público, a que se refiere el apartado anterior, los Ayuntamientos podrán destinar lugares, locales o edificios de uso público a fines pluriconfesionales para la realización esporádica de las actividades a que se refiere esta Ley, siempre y cuando la ocupación del bien de dominio público tenga lugar con instalaciones desmontables o con bienes muebles.

Artículo 6.– Determinación de los usos religiosos por los planes municipales que establecen la ordenación urbanística.

1.– Para el cumplimiento de los fines de la presente Ley los planes municipales que establecen la ordenación urbanística, que en el futuro aprueben los Ayuntamientos del País Vasco, deberán contemplar, en función de la disponibilidad de suelo existente, reservas para equipamientos colectivos privados de carácter religioso, de acuerdo con las necesidades que hayan sido detectadas en cada municipio.

2.– En el cumplimento de esta obligación los Ayuntamientos no podrán actuar con criterios que puedan producir una discriminación directa o indirecta, o una restricción arbitraria, en el ejercicio del derecho fundamental de libertad religiosa y de culto, en especial a la hora de decidir o asignar reservas para equipamientos colectivos privados de carácter religioso, de acuerdo con las necesidades que hayan sido detectadas en cada municipio.

3.– En todo caso, los Ayuntamientos podrán ejercer sus facultades urbanísticas para determinar reservas para equipamientos colectivos privados de carácter religioso de acuerdo con las necesidades que hayan sido detectadas en cada municipio, salvaguardando el interés general de la comunidad y promoviendo la convivencia y la cohesión social, a través de decisiones y medidas respetuosas con el ejercicio de la libertad religiosa y de culto de las diferentes comunidades religiosas, y con la dignidad y los derechos de todas las personas.

4.– En los procesos de planeamiento urbanístico municipal, las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas, que tengan acreditada su personalidad jurídica, participarán en el procedimiento de determinación y asignación de los espacios reservados a lugares de culto y equipamientos religiosos, en los supuestos y en los términos establecidos en la legislación urbanística.

5.– En el procedimiento de determinación y asignación del suelo destinado a usos religiosos se aplicará la legislación urbanística autonómica vigente, así como la normativa foral respectiva y las disposiciones reglamentarias y ordenanzas municipales que las desarrollen.

CAPÍTULO TERCERO

LICENCIAS URBANÍSTICAS, COMUNICACIÓN DE APERTURA DE LUGARES O CENTROS DE CULTO, APLICACIÓN DEL RÉGIMEN DE ACTIVIDADES CLASIFICADAS Y OTRAS AUTORIZACIONES

Artículo 7.– Licencias urbanísticas exigibles a los lugares o centros de culto.

Los lugares o centros de culto y demás equipamientos religiosos estarán sometidos al régimen general de las licencias urbanísticas establecido en la normativa urbanística, tanto para las obras de construcción y adecuación de los locales como para su apertura.

Artículo 8.– Comunicación de apertura de lugares o centros de culto.

La apertura de un nuevo lugar o centro de culto de concurrencia pública se encuentra sujeta al régimen de comunicación, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición adicional decimoséptima de la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local o a la normativa vigente que la desarrolle o sustituya. Antes de la apertura de un lugar o centro de culto debe presentarse una comunicación previa ante el Ayuntamiento, acompañada del certificado emitido por el Registro de Entidades Religiosas que acredite la personalidad jurídica de la iglesia, confesión o comunidad religiosa y en el que conste la ubicación del centro de culto.

Artículo 9.– Intervención municipal en materia de actividades clasificadas para la apertura de lugares o centros de culto y demás equipamientos religiosos.

1.– La apertura y funcionamiento de lugares o centros de culto y demás equipamientos religiosos se hallan sometidos al régimen de actividades e instalaciones clasificadas regulado en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco o la normativa vigente que la desarrolle o sustituya.

2.– El Gobierno Vasco establecerá reglamentariamente los mecanismos necesarios para integrar la comunicación previa, prevista en el artículo anterior, con otros procedimientos derivados del régimen de actividades clasificadas o de la normativa urbanística.

Artículo 10.– Otras autorizaciones.

Cuando en los lugares o centros de culto se lleven a cabo actividades diferentes a las propias de tales lugares o centros de culto deberán disponer de las autorizaciones establecidas por la normativa sectorial que les sea de aplicación.

Artículo 11.– Condiciones técnicas y materiales sobre seguridad y salubridad de obligado cumplimiento para los lugares o centros de culto.

1.– Los lugares o centros de culto de pública concurrencia deberán reunir las condiciones técnicas y materiales necesarias para garantizar la seguridad de las personas usuarias y la higiene de las instalaciones, cumpliendo con la normativa vigente, así como para evitar molestias a terceras personas.

2.– El Gobierno Vasco aprobará un Reglamento en el que se concreten las condiciones técnicas y materiales de seguridad, salubridad, accesibilidad, protección acústica, aforo, evacuación, así como las destinadas a evitar molestias a terceros, que deben cumplir los lugares de culto de pública concurrencia, teniendo en cuenta su tamaño y ubicación.

3.– En todo caso, estas condiciones deben ser adecuadas y proporcionadas, según lo establecido en la normativa en vigor, a la finalidad para la que han sido establecidas, y en ningún caso podrán impedir ni dificultar de forma arbitraria o injustificada la actividad que se lleva a cabo en dichos centros.

Artículo 12.– Medidas contra el incumplimiento de las condiciones de apertura de lugares y centros de culto.

1.– El Ayuntamiento correspondiente exigirá el cumplimiento de todas las condiciones técnicas y materiales previstas en la normativa en vigor.

2.– En el supuesto de que no se cumplan tales condiciones, el Ayuntamiento requerirá a la entidad religiosa titular del centro o lugar de culto para que subsane la carencia detectada, concediendo el plazo legalmente establecido para ello, de conformidad con las características y condiciones técnicas de las obras necesarias.

3.–Transcurrido el plazo concedido al efecto, sin atender a dicho requerimiento, el Ayuntamiento podrá, mediante resolución motivada y previa audiencia de la entidad religiosa afectada, proceder al cierre, clausura o precinto de aquellos centros de culto que, aun teniendo licencia urbanística o habiendo presentado la comunicación previa, presente deficiencias que hagan peligrar la seguridad de las personas y bienes o la salubridad pública.

4.– Las medidas adoptadas se mantendrán mientras subsistan las razones que motivaron su adopción.

5.– No obstante, y para garantizar el ejercicio de la libertad religiosa y de culto, el Ayuntamiento podrá acordar, mediante resolución motivada, siempre y cuando quede garantizada la seguridad y salubridad de las personas, la sustitución de la medida de cierre del establecimiento por el precinto parcial de las instalaciones.

6.– Ninguna de las medidas que se lleguen a adoptar en cumplimiento de este precepto tendrá carácter sancionador, todo ello sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar. Su finalidad deberá orientarse exclusivamente a la preservación de los derechos fundamentales, a la salvaguarda de la seguridad y salud de las personas, así como a la preservación del medio ambiente.

CAPÍTULO CUARTO

CREACIÓN DEL CONSEJO INTERRELIGIOSO VASCO

Artículo 13.– Creación del Consejo Interreligioso Vasco como órgano consultivo.

1.– Se crea el Consejo Interreligioso Vasco, como órgano de diálogo y colaboración institucional con las diferentes confesiones y comunidades religiosas. Su misión será preservar y promover una convivencia interreligiosa e intercultural, basada en el respeto al pluralismo religioso y a los derechos y deberes de todas sus expresiones.

2.– El Consejo Interreligioso Vasco tendrá carácter consultivo, para el asesoramiento e informe en aquellas iniciativas o decisiones de las Instituciones vascas y de las iglesias, confesiones y comunidades religiosas del País Vasco que puedan afectar de forma específica al ejercicio de la libertad religiosa y de culto.

3.– Estará integrado por representantes del Gobierno Vasco, de las Diputaciones Forales, de los Ayuntamientos, de las iglesias, confesiones y comunidades religiosas y por personas de reconocida competencia y asociaciones ciudadanas con interés cualificado en la aplicación de la presente Ley.

4.– La composición, funciones y normas de funcionamiento del Consejo Interreligioso Vasco se determinarán por Decreto del Gobierno Vasco. En dicha composición, se promoverá una representación equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada.

Artículo 14.– Funciones.

El Consejo Interreligioso Vasco tendrá, entre otras, las siguientes funciones:

a) Asesorar a las instituciones vascas y colaborar con estas en el desarrollo de las políticas orientadas al ejercicio de la libertad religiosa y a evitar cualquier forma de discriminación.

b) Asesorar a las instituciones vascas y colaborar con estas en la promoción de una convivencia interreligiosa e intercultural, integrada e integradora, y opuesta a cualquier forma de terrorismo, violencia, racismo, xenofobia o cualquier otra forma de imposición, coacción o discriminación religiosa.

c) Elaborar informes y dictámenes a solicitud de las propias instituciones o de las comunidades religiosas.

d) Asesorar en las consultas que se planteen a instancia de las Instituciones y de las confesiones religiosas en la fase previa del procedimiento de apertura de lugares o centros de culto.

e) Realizar el seguimiento de Planeamiento Urbanístico municipal, a efectos de elaborar diagnósticos y mapas de la presencia de iglesias, confesiones y comunidades religiosas y sus necesidades en los municipios de Euskadi.

DISPOSICIONES ADICIONALES

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA.– Acuerdos con la Santa Sede y otras iglesias, confesiones y comunidades religiosas.

Lo establecido por la presente Ley se entiende sin perjuicio de los acuerdos suscritos con la Santa Sede, y de las normas con rango de ley que aprueban los acuerdos de cooperación firmados por el Estado con las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA.– Acreditación para la obtención de licencias.

Las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas que desarrollen su actividad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para poder solicitar la licencia urbanística y presentar la comunicación de apertura de lugares o centros de culto y la cesión o autorización para el uso esporádico a que se refiere el artículo 5, habrán de acreditar su inscripción en el Registro de Entidades Religiosas.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

DISPOSICIÓN TRANSITORIA PRIMERA.– Adaptación a la Ley de los Planes de ordenación urbanística municipal.

1.– La exigencia establecida por el artículo 6 es aplicable a los planes de ordenación urbana municipales que, estando en tramitación o en proceso de revisión en el momento de la entrada en vigor de la presente Ley, aún no hayan sido objeto de aprobación definitiva.

2.– Aquellos municipios que carezcan de un plan de ordenación urbanística municipal adaptado a las determinaciones del artículo 6 deberán, siempre que sea posible, proceder a su adaptación en la primera de las revisiones del planeamiento urbanístico que se apruebe tras la entrada en vigor de la presente Ley.

3.– Los municipios deben adecuar, en todo caso, su planeamiento general al contenido del artículo 6 de la presente Ley, en el plazo de 8 años desde la entrada en vigor.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA SEGUNDA.– Periodo de adaptación a las condiciones técnicas y materiales de los lugares o centros de culto.

Los lugares o centros de culto que, a la entrada en vigor de la presente Ley, no cumplan los requisitos técnicos y materiales mínimos a los que se refiere el artículo 11, dispondrán del periodo que reglamentariamente se determine para adaptarse a los mismos.

DISPOSICIONES FINALES

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA.– Desarrollo Reglamentario.

El Gobierno, a propuesta de los órganos competentes, dictará las disposiciones reglamentarias que sean necesarias para el desarrollo de la presente Ley.

DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA.– Entrada en vigor.

La presente Ley entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

LEGE-PROIEKTUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTU-LEKUEI EDO -ZENTROEI ETA ERLIJIO-ANIZTASUNARI BURUZKOA

ZIOEN AZALPENA

Antolamendu juridiko demokratiko guztiek, Giza Eskubideen Nazioarteko Araubideak bezalaxe, pertsona orok duen erlijio- eta kultu-askatasuna aitortzen dute, oinarrizko eskubidetzat hartuta eta berme juridiko handienarekin. Erlijio-askatasuna 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluan ere aitortzen da, eta Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bidez eta Estatuak elizekin eta erlijio-erakundeekin egindako lankidetza-hitzarmenen bidez garatu da. Europa mailan, berriz, gogoan izan behar da eskubide horri zer-nolako babesa ematen dioten Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikuluak eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 10. eta 22. artikuluek.

Era berean, azken hamarkadetan, erlijio-fenomenoek aldaketa handiak izan dituzte gure inguruko gizarteetan. Oro har, esan daiteke erlijioaren bilakaera hori sinesmen-aniztasunari edo kidetza-sentimenduen aniztasunari zor zaiola, bai eta gure gizarteetako zati garrantzitsu bati eragiten dioten sekularizazio-prozesuei ere. Euskal gizartean zehazki, erlijio-aniztasuna ez da erabateko berritasuna, baina gero eta garrantzi handiagoa du sozialki, eta, hori dela eta, gero eta beharrezkoagoa da aniztasun horren kudeaketa publiko egokia egitea. Euskal Autonomia Erkidegoa, funtsean, nahikoa homogeneoa izan da zenbait mendez, erlijio-adierazpenei dagokienez; gaur egun, paisaia dibertsifikatua eta askotarikoa dugu, bai zenbait erlijio-tradizio daudelako, bai erlijioak modu desberdinetan antolatuta daudelako.

Euskal gizartearen erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta hori hainbat faktore sozialen ondorio da. Azkenaldian gertatu diren migrazio-mugimenduek eragin dute Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erlijio-tradizioak ugaritzea edo lehendik zeudenak finkatzea. Horrez gain, beste prozesu sozial batzuk ere kontuan hartu behar dira; hala, esaterako, bereizitako taldeen arteko gizarte-elkarreraginerako aukera handiagoa dago, komunikazio edo elkarreragin modu berriek, teknologiaren eta komunikazioen alorreko aurrerapenek eta bizi-esperientzien gizarte-eskaintza handiagoak eraginda. Azken batean, Europako beste gizarte garatu batzuetan bezala, euskal gizartean ere erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta fenomeno hori, segur aski, behin betikoa da eta ez du atzera bueltarik.

Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ez die arau-tresna nahikorik ematen erakunde publikoei, askotariko errealitate berri horrek gizartearen jardunean sorrarazi dituen arazo eta eskarietako asko kudeatzeko. Arau-zehaztasunik edo kudeaketa politikoko printzipiorik ez hori, besteak beste, kultu-lekuen edo -zentroen gaian islatzen da, erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubideaz baliatzeko parametro beharrezkoak baitira askotan, haren alderdi ageriko edo kolektiboari dagokionez. Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bigarren artikuluak bermatzen du elizek, konfesioek eta erlijio-elkarteek erlijio-xedez kultu- edo bilkura-lekuak ezartzeko duten eskubidea, oinarrizko askatasun hari datxekion zati gisa. Ildo horretatik, Estatuko legeriak kultu-leku edo -zentro gisa definitzen ditu soil-soilik otoitz egiteko, erlijio-heziketa emateko edo erlijio-laguntza

emateko erabiltzen diren eraikinak edo lokalak. Kultu-lekutzat edo -zentrotzat hartzeko ez da aski legez ezarritako helburuak betetzea; horrez gain, helburu horiek betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiria ere behar da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 EAEko Legeak arau zehatzak ezartzen ditu kultu-lekuak edo -zentroak antolatzeko eta irekitzeko. Lege horrek aurreikuspen lotesle bat du hirigintza-diseinuaren ardura duen administrazioarentzat: sistema orokorren sarean erreserba bat ezartzea ezinbestean, ekipamendu kolektibo pribatuetarako, besteak beste, erlijio-zentroentzat (54.2e artikulua). Era berean, legearen arabera, tokiko sistemen zuzkidura-sareak izan beharko dituen elementuen artean daude erabilera erlijiosorako "ekipamendu pribatuak (57.2.e artikulua), bat datozenak, bestalde, lege horretan (79. artikulua) hiri-lurzoru finkatugaberako zein lurzoru urbanizagarrirako aurreikusitako tokiko sistemen estandarrekin, kasu bietan bizitegi-erabilera duen lurzoruetan.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen zabalak ditu hirigintza gaietan, bai eta erlijio-profila izan dezaketen beste gai batzuetan ere, hala nola osasuna, gizarte-laguntza, hezkuntza, komunikabideak, ingurumena edo ondare historiko-kulturala. Autonomia Estatutuaren 9.2 artikuluak adierazten du EAEko botere publikoek konpromisoa dutela herritarren oinarrizko eskubideen eta betebeharren erabilera egokia zaintzeko eta bermatzeko; beraz, behar diren neurriak hartu behar dituzte pertsonen eta giza taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetakoak izateko baldintzak eragiteko eta oztopoak kentzeko. Erlijio-esparruko berdintasun eta askatasun hori gauzatzea lortzen da Konstituzio Auzitegiak "laikotasun positiboa" izendatu duena praktikatuz eta bermatuz; arlo horretan ardura berbera dute botere publiko guztiek, Estatuko, autonomia-erkidegoetako, foru-mailako nahiz tokiko izan. Bestalde, 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluak agintzen du, agindu edo obligazio bidez agindu ere, botere publiko guztiek lankidetzan aritu behar dutela erlijio-konfesio guztiekin.

Honenbestez, EAEko botere publikoek neurri positiboak hartu behar dituzte –neurri arauemaileak barne–, beren lurraldean oinarrizko eskubideak betetzen direla bermatzeko, eta eskubide horien barruan sartzen da, noski, erlijio-askatasuna. Neurri horiek guztiz bat etorri behar dute bereizkeriarik ezaren printzipioarekin, eta antolamendu juridikoaren printzipio operatiboak errespetatu behar dituzte; horien artean, batik bat, segurtasun juridikoa.

Erlijio-askatasuna baliatzeko eskubidea modurik publikoen, zehatzen eta argienean islatzen da erlijio-aniztasunari erantzuten dioten eta tokiko errealitate sozioerlijioso bakoitzaren arabera irekita dauden leku edo zentro normalizatuetan. Horrek guztiak justifikatzen du erlijio-aniztasuna eta erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubidea babesten dituen araudia onartu beharra, Euskal Autonomia Estatutuaren irakurketa eguneratuaren ondoriozko betebeharrei modu eraginkorrean erantzun ahal dien araudia, alegia.

Lege honek erlijio-askatasunerako eskubidea babesten du, kultu-lekuak edo zentroak ireki eta erabiltzeari dagokionez, berme juridiko handienak dituen oinarrizko eskubidetzat hartuta.

Horregatik, lehenengo kapituluan ezarrita daude legearen xedea, oinarri dituen printzipioak, aplikazio-eremua eta kultu-lekuen edo -zentroen definizioa.

Legearen bigarren kapituluan, erlijio-xedeetarako titulartasun publikoko ekipamenduaren edo espazioen noizbehinkako erabilera arautzen da, bai eta Hiri-Antolamenduko planen erlijio-erabileren zehaztea ere.

Hirugarren kapituluko artikuluek, berriz, zehazten dituzte hirigintzako lizentziei, kultu-lekuen edo -zentroen irekiera-komunikazioari, sailkatutako jardueren erregimenaren aplikazioari, beste jarduera-baimen batzuei, kultu-lekuek edo -zentroek bete beharreko baldintza tekniko eta materialei buruzko arauak, bai eta irekitzeko baldintzak ez betetzearen aurkako neurriak ere.

Legearen laugarren kapituluak Euskadiko Erlijioen Kontseiluaren sorrera arautzen du, lehentasunezko esparrua erlijioen elkarrizketa eta elkarbizitza duelarik. Aholkua ematea eta txostenak egitea izango ditu eginkizun erlijio-askatasunaren eta kultu-askatasunaren erabilerari eragin diezaioketen Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoen ekimen eta erabakietan. Erlijioen Euskadiko Kontseilua Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboaren eragile sustatzailea izango da. Erakundeen, erlijio-aitorpenen, erakunde akademikoen eta gizarte zibileko erakundeen elkargune gisa egituratzen da. Elkarrizketarako eta adostasunerako foro gisa eratuta dago, eta gure gizartearen aniztasuna babesteko eta sustatzeko diren diagnostikoak jakinaraztea eta jarduerak proposatzea du xede.

Azken batean, legeak erantzun arauemaile koherentea, bideragarria eta gure antolamenduaren printzipioekin bete-betean bat datorrena eman nahi dio oinarrizko eskubide bati estu-estu lotuta dagoen errealitate sozial berri horri, eta, hala, Estatutuaren agindua bete, alegia, gizarte demokratiko eta plural honetan gogotik bultzatzea herritar guztien eta herritarrek beren eskubideak baliatuz osatzen dituzten taldeen berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko.

LEHENENGO KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Lege honen helburua da bizikidetza- eta erlijio-aniztasuna babestea, elkarrizketarako eta adostasunerako mekanismoak ezartzea erlijio-askatasunaren kudeaketa positiboa eginez, eta, kultu-lekuak edo zentroak ireki eta erabiltzeari dagokionez, erlijio-askatasunaren oinarrizko eskubidea bermatzea pertsonei eta elizei, konfesioei eta erlijio-elkarteei, inolaz ere onartu gabe bereizkeriak egitea elizen, konfesioen eta erlijio-elkarteen artean.

2. artikulua.– Printzipioak eta eskubideak.

1.– Lege honen printzipioak honako hauek dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan erlijio- eta kultu-askatasunaz banaka zein taldean baliatzeko berme eraginkorra ematea. Eskubide horietaz baliatzeko mugak Erlijio-

askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera baino ezin izango dira ezarri.

b) Euskal gizartean dauden erlijio-elkarte eta -konfesioen arteko tratu-berdintasuna bermatzea, bai kultu-lekuak edo zentroak irekitzeari dagokionez, bai lege honen arabera ezarritako funtzionamendu-kontrolei dagokienez.

c) Segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzarik hoberenak bermatzea eta ezartzea kultuko eta beste erlijio-erabilera batzuetarako lekuak edo zentroak irekitzeko eta erabiltzeko orduan, indarreko arau-esparruak ezarritakoarekin bat etorrita.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden elizek, konfesioek eta erlijio-elkarteek berdin erlijio- eta kultu-askatasunaz baliatzeko lekuak edukitzeko duten eskubidea.

2.– Lege honen ondorioetarako, honela ulertuko da erlijio- eta kultu-askatasuna baliatzeko eskubidean gertatzen den zuzeneko edo zeharkako bereizkeria:

a) Zuzeneko bereizkeria gertatzen da eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte batek, kultu-lekuen edo -zentroen irekierarekin eta funtzionamenduarekin lotutako alderdiren batean, tratu desberdina jasotzen duenean beste eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte batek antzeko egoera batean jaso duenaren aldean, baldin eta tratu-desberdintasunak alde hori modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat ez badu eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak beharrezkoak eta egokiak badira.

b) Zeharkako bereizkeria gertatzen da udalaren hirigintza-antolamenduko plan batek, lizentzia edo emakida batek edo itxuraz neutroa den irizpide edo praktika batek desabantaila berezi bat eragiten dionean eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte bati beste batzuen aldean, kulturako leku edo zentro bat edukitzeko eskubidean. Ez dago zeharkako bereizkeriarik jarduketak hura modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat badu eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak egokiak eta beharrezkoak badira.

3. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Lege hau aplikatuko zaie Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan sartzen diren kultu-lekuei edo -zentroei, bai eta noizean behin erlijio-jardueraren baterako erabiltzen diren gune eta ekipamendu publikoei ere.

2.– Lege honen aurreikuspenak ez zaizkie aplikatuko titulartasun publikoko ospitaleetako, laguntza-zentroetako, ikastetxeetako, hilerrietako, beilatokietako eta espetxeetako kultu-lekuei edo -zentroei, ez eta titulartasun pribatuko nahiz titulartasun publikoko beste jarduera nagusietara zuzendutako guneei ere, horiek guztiek dagokien araudiaren arabera arautzen baitira; dena dela, aplikatzeko garaian, lege honen iturburu diren printzipioak hartuko dira aintzat.

3.– Lege hau ez zaie aplikatuko Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden kultu-lekuei edo -zentroei ere, Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren bidez arautzen direnei.

4. artikulua.– Kultu-lekuaren edo -zentroaren definizioa.

Kultu-lekutzat edo -zentrotzat hartzen dira jendearentzat zabalik dauden eta nagusiki eta modu iraunkorrean kulturako, erlijio-xedeko bileretarako eta erlijio-heziketa edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren eraikinak, lokalak edo areto erantsiak, titulartasun publikoa nahiz pribatua dutelarik, baldin eta, Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, berariaz halakotzat aitortu baditu dagokion elizak, konfesioak edo erlijio-elkarteak, zeinak nortasun juridikoa eduki behar baitu.

BIGARREN KAPITULUA

ERLIJIO- ETA KULTU-ASKATASUNA HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAREN ESPARRUAN

5. artikulua.– Titulartasun publikoko ekipamenduak edo guneak noizean behin erlijio-xedeetarako erabiltzea.

1.– Noizean behin erlijio-jarduerak gauzatzeko, administrazio publikoek, kasuaren arabera aplikatzekoa zaien araudiarekin bat etorrita, tratu berdina emango diete erlijio-konfesio eta -elkarte guztiei, arlo hauetan:

a) Ekipamendu eta gune publikoen erabilera pribatiborako lagapenak eta baimenak.

b) Jabari publikoaren erabilera pribatiboa.

c) Bide publikoaren aldi baterako okupazioa.

d) Ondare-ondasunen lagapena.

2.– Aurreko zenbakian aipatzen den jabari publikoaren erabilera pribatiboari dagokionez, konfesio batek baino gehiagok erabiltzeko lekuak, lokalak edo eraikinak bideratu ahal izango dituzte udalek, lege honetan aipatzen diren jarduerak noizean behin egiteko, baldin eta jabari publikoko ondasunaren okupazioa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin egiten bada.

6. artikulua.– Erlijio-erabilerak zehaztea hiri-antolamenduko udal planetan.

1.– Lege honen helburuak betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek hiri-antolaketarako aurrerantzean onartuko dituzten planek kulturako eta erlijio-laguntza emateko lekutzat erabiltzeko erreserbak egin beharko dituzte erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektibo pribatuetarako, dagoen lurzorua kontuan hartuta, eta udalerri bakoitzean dauden premien arabera.

2.– Obligazio hori betetzeko, udalek ezingo dute jardun erlijio- eta kultu-askatasunaren oinarrizko eskubidean bereizkeria zuzeneko nahiz zeharkakorik edo mugatze arbitrariorik eragiten duten irizpideekin; erreserbak egin beharko dituzte erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektibo pribatuetarako, dagoen lurzorua kontuan hartuta, eta udalerri bakoitzean dauden premien arabera.

3.– Nolanahi ere, udalek beren hirigintza-ahalmenak baliatu ahal izango dituzte, erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektibo pribatuetarako erreserbak erabakitzeko, dagoen lurzorua kontuan hartuta eta udalerri bakoitzean dauden premien arabera, betiere herritarren interes orokorra zainduz eta elkarbizitza sustatuz; horretarako, erlijio-elkarteen erlijio- eta kultu-askatasuna eta pertsona guztien duintasuna eta eskubideak errespetatzen dituzten erabakiak eta neurriak hartuko dituzte.

4.– Udalen hirigintza-antolamenduko prozesuetan, nortasun juridikoa egiaztatzen duten elizek, erlijio-konfesioek edo erlijio-elkarteek parte hartuko dute kultu-lekuetarako eta erlijio-ekipamenduetarako erreserbatutako guneak zehazteko eta esleitzeko prozeduretan, hirigintza arloko legedian aurreikusitako kasuetan eta moduan.

5.– Erlijio-erabileretarako lurzorua zehazteko eta esleitzeko prozeduran, indarrean dagoen hirigintza-araudi autonomikoa aplikatuko da, bai eta dagokion foru-araua eta garatzen diren erregelamenduzko xedapenak eta udal-ordenantzak ere.

HIRUGARREN KAPITULUA

HIRIGINTZA-LIZENTZIAK, KULTU-LEKUAK EDO -ZENTROAK IREKITZEKO KOMUNIKAZIOA, SAILKATUTAKO JARDUEREN ERREGIMENAREN APLIKAZIOA ETA BESTE BAIMEN BATZUK

7. artikulua.– Kultu-lekuentzat edo -zentroentzat ezinbestekoak diren hirigintza-lizentziak.

Kultu-lekuek edo -zentroek eta gainerako erlijio-ekipamenduek bete beharko dute hirigintza-araudian ezarritako hirigintza-lizentziei buruzko araubide orokorrean ezarritakoa, lokalak irekitzeko zein lokalak eraikitzeko eta egokitzeko obretarako.

8. artikulua.– Kultu-leku edo -zentro berri bat irekitzeko komunikazioa.

Jendeari irekitako kultu-leku edo -zentro berri bat irekitzeko, komunikazio-araubidea bete beharko da, Tokiko Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrita (edo hori gerora garatu edo aldatuko duen arauaren arabera). Kultu-leku edo -zentro bat ireki baino lehen, aldez aurretik komunikazio bat aurkeztu behar zaio udalari, Erlijio Erakundeen Erregistroak ematen duen ziurtagiriarekin batera (zeinean egiaztatzen baita elizaren, erlijio-konfesioaren edo erlijio-elkartearen nortasun juridikoa), eta kultu-zentroaren kokapena azaltzen duen ziurtagiriarekin.

9. artikulua.– Udalaren esku-hartzea jarduera sailkatuen arloan, kultu-lekuak edo -zentroak eta gainerako erlijio-ekipamenduak irekitzeko.

1.– Kultu-lekuak edo -zentroak eta gainerako erlijio-ekipamenduak ireki eta funtzionamenduan jartzeko, bete beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak arautzen duen sailkatutako jarduera eta instalazioen araubidea edo araubide hori gerora garatzen edo aldatzen duen araudia.

2.– Eusko Jaurlaritzak, erregelamendu bidez, behar diren mekanismoak ezarriko ditu aurreko artikuluan aurreikusitako komunikazioa eta sailkatutako jardueren edo hirigintza-araudiaren ondoriozkoak diren jardueren erregimenetik eratorritako beste prozedura batzuk integratzeko.

10. artikulua.– Beste baimen batzuk.

Kultu-lekuetan edo -zentroetan gauzatu daitezkeen beste jarduera jakin batzuei dagokienez, aplikatu beharreko sektore-arauetan ezartzen diren baimenak eduki behar dituzte.

Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen antolamendu juridikoak ez die arau-tresna nahikorik ematen erakunde publikoei, askotariko errealitate berri horrek gizartearen jardunean sorrarazi dituen gai eta eskarietako asko kudeatzeko. Arau-zehaztasunik edo kudeaketa politikoko printzipiorik ez hori, besteak beste, kultu-lekuen edo -zentroen arloan islatzen da, erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubideaz baliatzeko parametro beharrezkoak baitira askotan, haren alderdi ageriko edo kolektiboari dagokionez. Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoak, bigarren artikuluan, bermatzen du elizek, konfesioek eta erlijio-elkarteek erlijio-xedez kultu- edo bilkura-lekuak ezartzeko duten eskubidea, oinarrizko askatasun hari datxekion zati gisa. Ildo horretatik, Estatuko legeriak kultu-leku edo -zentro gisa definitzen ditu soil-soilik otoitz egiteko, erlijio-heziketa emateko edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren eraikin edo lokalak. Kultu-lekutzat edo -zentrotzat hartzeko ez da aski legez ezarritako helburuak betetzea; horrez gain, hori egiaztatzen duen ziurtagiria behar da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko EAEko 2/2006 Legeak arau zehatzak ezartzen ditu kultu-leku edo -zentroak antolatzeko eta irekitzeko. Lege horrek aurreikuspen lotesle bat du hirigintza-diseinuaren ardura duen administrazioarentzat: sistema orokorren sarean erreserba bat ezartzea ezinbestean, ekipamendu kolektibo pribatuetarako, hala nola erlijio-zentroetarako (54.2e artikulua). Era berean, arauaren arabera, tokiko sistemen hornidura-sareak izan beharko dituen elementuen artean daude erabilera erlijiosorako ekipamendu pribatuak (57.2.e artikulua), bat datozenak, bestalde, lege horretan (79. artikulua) hiri-lurzoru finkatugaberako zein lurzoru urbanizagarrirako aurreikusitako tokiko sistemen estandarrekin, kasu bietan bizitegi-erabilera duen lurzoruetan.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen zabalak ditu hirigintza-gaietan, bai eta erlijio-profila izan dezaketen beste hainbat gaitan ere, hala nola osasuna, gizarte-laguntza, hezkuntza, komunikabideak, ingurumena edo ondare historiko-kulturala. Autonomia Estatutuaren 9.2. artikuluak adierazten du euskal botere publikoek konpromisoa dutela, beren eskumenen barruan, herritarren oinarrizko eskubideen eta betebeharren erabilera egokia zaintzeko eta bermatzeko, eta, hortaz, pertsonen eta giza taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetakoak izateko baldintzak eragitera eta oztopoak kentzera bideratutako neurri oro hartzeko betebeharra dutela. Erlijio-esparruko berdintasun eta askatasun hori gauzatzea lortzen da Konstituzio Auzitegiak “laikotasun positiboa” izendatu duena praktikatuz eta bermatuz; maila berean dagokie hori botere publiko estatal, autonomiko, foral edo lokal guztiei. Bestalde, 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluak agintzen du, agindu edo obligazio bidez, erlijio-konfesio guztiekin lankidetzan aritu behar dutela botere publiko guztiek.

Ondorioz, EAEko botere publikoen betebeharra da neurri positiboak ezartzea, baita araudi-mailakoak ere, beren lurraldean funtsezko eskubideak betetzen direla bermatzeko, eta, horren barruan sartzen da, noski, erlijio-askatasuna; neurri horiek ezartzean guztiz bete behar da diskriminaziorik ezaren printzipioa, eta zaindu egin behar dira antolamendu juridikoko printzipio eragileak, tartean segurtasun juridikoarena.

Erlijio-askatasunaren adierazpen publiko, zehatz eta nabarmenena honako hau da: tokiko errealitate sozial eta erlijioso bakoitzaren arabera, aniztasun erlijiosoari erantzuten dioten kultu-espazio eta -zentro normalizatuak edukitzea. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da aniztasun erlijiosoa eta kultu- eta erlijio-askatasunerako eskubidea babestuko dituen araudi bat ezartzea. Araudi horretan, eraginkortasunez bete beharko dira, gai honi lotuta, Autonomia Estatutuaren irakurketa eguneratuaren ziozko betebeharrak.

Hala, Lege honek babestu egiten du erlijio-askatasunerako eskubidea, kultu-leku edo -espazioak ireki eta erabiltzean, berme juridiko handienak dituen oinarrizko eskubidea dela ulertuta.

II.- EGINDAKO IZAPIDEAK ETA HORIEN EMAITZA.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legeak (abenduaren 22ko 8/2003 Legeak) ezarritakoaren arabera, Legearen aurreproiektu hau izapidetzean kontuan hartu dira honako fase eta izapide hauek:

1.- Prozeduraren hasiera: Lehendakariaren otsailaren 2ko 1/2016 Dekretuaren bidez.

2.- Aurreproiektuaren azalpen-memoria, 2016ko otsailaren 3koa, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiarena.

3.- Lehendakariaren otsailaren 24ko 7/2016 Dekretuaren bidez, Legearen aurreproiektua aurretiaz onartzea erabaki zen.

4.- Txosten juridikoa, Lehendakaritzako Araubide Juridikoaren Zuzendaritzarena, 2016ko otsailaren 26koa.

5.- Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izatea justifikatzen duen txostena, 2016ko otsailaren 18koa.

6.- Bakearen eta Bizikidetzaren idazkari nagusiaren 2016ko martxoaren 1eko ebazpenaren bidez (2016ko martxoaren 10eko EHAA, 48. zenbakia), informazioa jendaurrean jartzeko 20 egun balioduneko epea ireki zen, hura EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Legearen aurreproiektu horren gainean alegazioak aurkezteko.

7.- Administrazio Publikoen Hizkuntza Normalizaziorako Zuzendaritzaren txostena: 2016ko martxoaren 10ean eskatu zen, eta martxoaren 18an igorri. Horren gainean ez zen eragozpenik aurkeztu, baina proposamen batzuk egin ziren, geroago aztertuko direnak.

8- Orduko Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren txostena: 2016ko martxoaren 10ean eskatu zen, eta Sailak apirilaren 7an igorri zuen. Horren gainean alegazioak aurkeztu ziren, geroago aztertuko direnak.

9.- Informazioa jendaurrean azaltzeko fasean, 2016ko apirilaren 5ean Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutietako alegazioak jaso ziren, eta 2016ko apirilaren 5ean Fernando Isidro Fernández Osorio jaunaren alegazioa. Geroago aipatuko dira alegaziook.

10.- 2016ko maiatzaren 12an, Ekonomia Kontrolatzeko Bulegoaren ekonomia eta araudia kontrolatzeko txostena eskatu zen, eta maiatzaren 18an igorri zen. Bertan, aurrerago azaldu eta aztertuko diren iruzkinak jaso ziren.

11.- 2016ko maiatzaren 26an, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari txostena eskatu zitzaion, haren eskumenak kontuan hartuta –Etxebizitzako Sailburuordetzaren bidez-, baina ez zen txostenik jaso.

12.- 2016ko maiatzaren 26an, entzunaldi-izapidea eman zitzaion EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteari. 2016ko ekainaren 9an, Eudelek egindako eskaria jaso zen, epea irekitzekoa, eta 2016ko ekainaren 20ean onartu egin zen. Hala, alegazioak egiteko epea 2016ko uztailaren 29ra arte ireki zen, eta epe horretan ez zen alegaziorik egin.

13.- 2018ko urtarrilaren 22an, txostena eskatu zitzaion Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Araubide Juridikoaren Sailburuordetzako Estatutuak Garatzeko Zuzendaritzari, eta 2018ko otsailaren 6an igorri zen.

14.- 2018ko uztailaren 27an, beste txosten bat eskatu zitzaion Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzari, eta 2018ko irailaren 20an igorri zen.

15.- Era berean, 2018ko azaroaren 6an entzunaldi-izapidea eman zitzaion EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteari, izapidetze-fasean zegoen Legearen aurreproiektuaren testuaren gainean beharrezkotzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko.

16.- 2018ko ekainaren 9an, EUDELek Legearen aurreproiektuaren gaineko alegazioak aurkezteko epea luza zedila eskatu zuen. Alegazioak aurkezteko epea 2018ko abenduaren 19ra arte luzatu zen.

17.- 2018ko abenduaren 19an, EUDELek alegazioen idazkia igorri zuen.

18.- 2019ko urtarrilaren 22an, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren generoaren araberako eraginaren txostena sartu zen espedientera.

19.- Egun horretan bertan, 2019ko urtarrilaren 22an, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari egiaztapen-txostena eskatu zion. Txosten hori 2019ko otsailaren 4an igorri zen.

20.- 2019ko otsailaren 26an, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren idazkari nagusiak memoria ekonomikoa izenpetu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-leku edo -zentroen eta erlijio-askatasunaren Legearen aurreproiektuaren gainean. Egun horretan bertan, prozeduraren azken memoria sinatu zen, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostenaren zain.

21.- 2019ko martxoaren 26an, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak nahitaezko txostena igorri zuen.

22.- 2019ko ekainaren 7an, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 103/2019 irizpena igorri zuen.

III.- JASOTAKO OHARREN ETA ALEGAZIOEN ETA EGINDAKO ALDAKETEN BALORAZIOA ETA LABURPENA.

Azaldu beharra dago, lehenik eta behin, atal honetan berariaz aztertuko direla soilik Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak eta Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak egindako alegazioak eta oharrak. Izan ere, aurretik egindako txosten guztiak behar bezala aztertu ziren 2019ko otsailaren 26ko azken memorian, baina ez dugu bertara joko, errepikakorrak ez izatearren.

Jarraian, jasotako alegazioak eta oharrak eta sartutako aldaketak zehaztu dira:

1.- EUSKADIKO TOKIKO GOBERNUEN BATZORDEAREN TXOSTENA.

Txostenaren arabera, lehenik eta behin, aipatu Legearen aurreproiektuak udalaren esku-hartze oso garrantzitsua aurreikusten du erregulatzen ari den esparruan. Gaineratzen duenez, esku-hartzean aldi baterako erabiliko dira espazio publikoak, hirigintza antolatzeko tresnetan erabilera erlijiosoak aurreikusiko dira, eta lekuok irekitzeko lizentziak, baimenak eta jakinarazpenak nahiz horien gainean ezarri beharreko diziplina-neurriak azalduko dira.

Bestalde, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen arabera, udalaren esku-hartze guztiak gaiaren arabera aplikatu beharreko sektoreko araudi autonomikoan aurreikusitakoak baino ez dira. Ondorioz, ETELen 90.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ez da tokiko autonomiaren gainean eragingo.

Hala, ondorioztatzen duenez, espazio publikoen erabilerari buruzko udalaren esku-hartzea administrazio publikoen ondarearen gaineko araudi orokorrean aurreikusitakoa baino ez da; erabilera erlijiosoko espazioen erreserbari buruzkoa, bestetik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak (ekainaren 30eko 2/2006 Legeak) aurreikusitakoa baino ez da; Legearen aurreproiektuak ez du berritzen sektoreko araudia, udalerriek establezimenduak irekitzeko orduan duten esku-hartzeen gainean, aurretiazko lizentzia edo jakinarazpena behar dela ezarrita (aipatu ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babestekoan, ezarritakoa betez); eta kultu-lekuen edo -zentroen segurtasunaren ikuspegitik, aurreikuspenak abenduaren 23ko 10/2015 Legean jasotzen dira.

Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen arabera, "*berrikuntzatzat jo liteke soilik udalerriek "EAEko Erlijioen arteko Kontseiluan duten partaidetza", bistakoa dena sortu berri den organo bat baita*".

Hori dela eta, pentsatzekoa da proposatutako erregulazioak ez duela eragin zuzenik udalaren autonomian, ez eta Euskadiko udalerrien berezko eskumenetan ere (ETELen 90.1. artikulua). Honako hau baino ez dio: "*muturreko kasuetan soilik baloratu ahalko litzateke udalerriek EAEko Erlijioen arteko Kontseiluan duten partaidetzaren kostua, […] baina, nolanahi ere, udalaren partaidetza udalerrietako ordezkarien bidez antolatuko da, eta, beraz, udalerri bakoitzerako kostuak egotea baztertzen da*".

Horrenbestez, ez da beharrezkoa eranskin zehatz batean jasotzea udalerrien finantza-nahikotasuna bermatzeko beharrezko baliabideen hornidura, Legearen aurreproiektuak esleitzen dizkien eginkizunen gainean (ETELen 18.3. artikuluan aurreikusia), ez baitzaie esleitzen daukatenaren bestelakoa edo berria den eskumen edo eginkizunik.

Azkenik, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak aipatu duenez, Euskadiko udalerriei EAEko Erlijioen arteko Kontseiluan parte hartzeko eginkizuna eman zaie eta, hori bai da berria. Partaidetza hori ordezkari instituzional baten bidez gauzatuko da, EAEko udalerriei kosturik eragin gabe.

Beraz, txostenaren ondorioak kontuan hartuta, ezin da aldaketarik sartu Legearen aurreproiektu honetan.

2.- EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN IRIZPENA.

2019ko ekainaren 7an, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 103/2019 irizpena igorri zen, Legearen aurreproiektu honen gainean.

Aipatu kontsulta-organoak hainbat ohar egin ditu, eta jarraian aztertuko dira:

Aurreproiektua **egiteko prozesuari dagokionez**, Batzordeak nabarmendu duenez espedientean berariaz jasotzen da araudi-ekimenaren eragina izan dezaketen administrazioen partaidetza bizia. EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen partaidetza azpimarratu du, honako hau gehituta: "*bere alegazioei erantzun arrazoitua eman zaie, eta gehienak onartu egin dira; beraz, aurreproiektuaren testuan aldaketak sartu dira*".

Era berean, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenean ondorioztatzen denez, ez da eraginik egon tokiko autonomian, ez eta udalerrien berezko eskumenak baliatzeko orduan ere. Ondorioz, baliabideen hornikuntzari buruzko eranskin zehatza beharrezkoa ez dela ondorioztatzen da (ETELen 18.3. artikulua).

Hala ere, irizpenaren **56. paragrafoan** hutsune bat nabari da: ez zen entzunaldi-izapidea gauzatu, Euskadin jarduten duten elizen, konfesioen eta erlijio-elkarteen iritzia ezagutzeko. Horretarako, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak emandako informazioa aurkeztu da:

> *"IX. legealdian zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko Kultu Zentroen Legearen orduko aurreproiektuaren lehen zirriborroa egiteko lanak gauzatu ziren. Dagokion espedientearen arabera, Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuaren 2011ko azaroaren 3ko Aginduaren bidez hura izapidetzen hasi zen, eta aldez aurretik onartu zen Legearen aurreproiektua, 2011ko azaroaren 25eko Aginduaren bidez. 2011ko azaroaren 30ean, aurreproiektuaren zirriborroa igorri zen, eta alegazioak aurkezteko deia egin zitzaien Eliza Kristau Adbentisten Batasunari, Gasteizko Sunna Erkidego Islamikoari, Euskal Kontseilu Musulmanari, EAEko Kontseilu Ebanjelikoari, FIVASCOri, Eliza Ortodoxoari, azken egunetako santuen Jesukristoren Elizari, Bilbo, Gasteiz eta Donostiako Apezpikutzei, eta Jehováren Testiguei.*
>
> *Alegazioak aurkeztu zituzten Euskal Kontseilu Islamikoak, FIVASCOk, FEREDE-EHKEk eta Bilboko Elizbarrutiak, azken hori Gasteizko eta Donostiako Elizbarrutien izenean ere jardun zelarik.*
>
> *2011ko abenduaren 27an, partaidetza publikorako gonbidapena gauzatu zen, zirriborroa Irekian argitaratuta. Azken hori da, izan ere, herritarren eta euskal administrazioaren arteko komunikazio zuzenerako katea, herritarren partaidetzara zabaldutako leihoa, eta gobernantza onaren praktika, gardentasunera, partaidetzara eta lankidetzara bideratuta.*
>
> *X. legealdian, 2015eko martxoaren 20an Eusko Jaurlaritzak, Lehendakariaren bidez, eta EAEn ezarrita dauden konfesio desberdinetako ordezkariekin gauzatutako topaketa baten esparruan, adierazpen instituzional bat egin zuen "gizarte plural, integratu eta integratzailean*

kulturarteko eta erlijioarteko bizikidetza" hizpide[1]. Adierazpen honen esparruan, Ignacio Ellacuria Gizarte Fundazioari eta Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuari egindako enkargua azaldu zen, erlijioarteko bizikidetzaren politika publikoen eremuan gomendioei buruzko txostena egiteko.

Enkargu honen barruan sartzen zen aditu-talde bat dinamizatzea, honako hauek osatua: Adoración Castro Jover, Amelia Barquín López, José Luis Villacorta Núñez, Miguel González Martín, Saioa Bilbao Urkidi, Eduardo J. Ruiz Vieytez eta Gorka Urrutia Asua, txosten hori egiteko. Halaber, beste adierazle bat ere bazegoen: adituen taldeak bere lana egitean euskal gizarteko erlijio-sentsibilitate desberdinekin hitz egitea eta gai horren gaineko hainbat proposamen igortzea. Horien artean, gutxiengo konfesioekin egiaztatu ondoren, berehalako gomendio zehatz gisa jo zen kultu-zentroen legea onartzea. Txostena[2] ekitaldi publiko batean aurkeztu zen 2016ko martxoaren 2an. Bertan, hainbat gizarte-eragilek (tartean Euskadin ezarritako konfesio desberdinetako ordezkariek) hitz egin zuten txostenaren edukiari buruz, eta, zehazki, kultu-zentroen lege-proposamenari buruz.

Era berean, 2016ko otsailaren 2an berriz ere hasi zen Legearen aurreproiektua izapidetzeko lana, espedientean ageri den bezala, eta Bakearen eta Bizikidetzaren idazkari nagusiaren 2016ko martxoaren 1eko ebazpenaren bidez (2016ko martxoaren 10eko EHAA, 48. zenbakia) jendaurrean azaldu zen Kultu-zentroen Legearen aurreproiektua, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legeak (abenduaren 22ko 8/2003 Legeak) 8.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Prozesu horretan, Bilboko Elizbarrutiaren ekarpenak jaso ziren, azken hori Gasteizko eta Gipuzkoako Elizbarrutien ordezkaritzan ere jardun zelarik, baita partikular baten ekarpena ere.

XI. legealdian, eta izapideekin jarraituz, ekarpen horiek baloratu eta sartu ziren, eta, beraz, Legearen aurreproiektuaren testua aldatu egin zen.

Aipatzekoa da, era berean, 2018ko apirilaren 14an, euskal erkidego islamikoarekin batera bizikidetza sustatzeko jarduera-programa onartu ondoren, ADOS izeneko Aholku Batzordea eratu zela, Euskadiko Erkidego Islamikoekin Lankidetzan aritzeko, Eusko Jaurlaritzako eta euskal erakundeetako politika publikoen partaidetza, lankidetza eta aholkularitzarako organo elkartu gisa, Euskadiko Erkidego Islamikoekin harremanetan.

Batzorde honek egindako ekarpenek, 2018ko apirilaren 14ko bileran, aukera eman dute aurreproiektuaren testuan EAEko Erlijio arteko Kontseilua osatu dadila sartzeko. Bertan, erlijio-elkarte desberdinekin hitz egin eta laguntzeko organo bat sustatzeko asmoa azaltzen da, eta organo horrek aurreproiektuaren testuan aurreikusten diren eginkizunak eta irismena izango ditu."

Edukia aztertuz gero, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenak honako ohar hauek egin ditu artikuluen gainean:

- 5 artikulua:

Irizpeneko **169. paragrafoan**, tratu ez diskriminatzailearen aginduarekin batera berariaz honako hau gehitu dadila gomendatzen da: bete egin behar da kasuan kasu aplikagarria den araudia. Era berean, **170. paragrafoan** zehazten denez, aldi baterako erabileraren kontzeptuak aldi baterako erabilera hori gehienez ere 30 urtera arte luzatzea eragin dezake. Ondorioz, "aldi baterako erabilerari" buruzko erreferentzia ezabatzea erabaki da, noizean behingo erabilera soilik adierazteko.

---

[1] https://www.euskadi.eus/r48-notpazco/eu/contenidos/noticia/2015_03_20_25297/eu_25297/25297.html-

[2] http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Erlijio%20aniztasunaren%20txostena.pdf

Irizpeneko 169. eta 170. paragrafoetan jasotako iradokizunak onartuta, artikulua honela geratu da:

> *5. artikulua.– Titulartasun publikoko ekipamendu edo guneak noizean behin erlijio-xedeetarako erabiltzea.*
>
> *1.– Noizean behin erlijio-jarduerak egiteko, administrazio publikoek tratu parekidea emango dute, kasuan kasu aplikatu beharreko araudiaren arabera, konfesio eta erlijio-elkarte guztietan, honako arlo hauetan:*
>
> *a) Ekipamendu eta gune publikoen erabilera pribatiborako lagapen eta baimenak.*
>
> *b) Jabetza publikoen erabilera pribatiboa.*
>
> *c) Bide publikoaren aldi baterako okupazioa.*
>
> *d) Ondare-ondasunen lagapena.*
>
> *2.– Aurreko zenbakian aipatzen den jabari publikoaren erabilera pribatiboari dagokionez, konfesio batek baino gehiagok erabiltzeko leku, lokal edo erakin publikoak bideratu ahal izango dituzte udalek, Lege honetan aipatzen diren jarduerak noizean behin egiteko, baldin eta jabari publikoko ondasunaren okupazioa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin egiten bada.*

- <u>6 artikulua:</u>

178. paragrafoan adierazpen argi bat erabiltzea gomendatzen da, haren erabilera uniformea zaindu eta interpretazioa errazteko. Iradokizun hori onartu da, eta 6. artikuluko 1., 2. eta 3. ataletan honako erreferentzia erabili da: “erlijio-ekipamendu kolektibo pribatuetarako erreserbak, udalerri bakoitzean antzeman diren beharrizanen arabera".

188. eta 191. paragrafoetan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenak gomendatzen du ez dadila erreferentziarik egin “hiri-antolamendurako planaren” gainean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean ez baita erreferentzia hori egiten. Hala, planaren kontzeptu zabalago bat erabiltzeko gomendatzen du: “hirigintza-antolamendua ezartzen duten udal-planak”.

Bestalde, **192. paragrafoan** “plan berriak” erreferentziaren ordez “etorkizunean onartzen diren planak” jartzea gomendatzen da.

197. eta 198. paragrafoetan, “dagokion udal-mugartean ezartzea” dioen aipamena ezabatzea gomendatu da, izaera mugatzailea duela kontuan hartuta.

Ohar horiek onartu egin dira, eta, ondorioz, 6. artikulua honela geratu da idatzita:

> 6. artikulua.– Hirigintza-antolamendua ezartzen duten udal-planen bidez erlijio-erabilerak determinatzea.
>
> 1.– Lege honen xedeak betetzeko, hirigintza-antolamendua ezartzen duten udal-planek, etorkizunean Euskal Autonomia Erkidegoko udalek onartzen dituztenek, berariaz aurreikusi beharko dituzte, dagoen lurzoru eskuragarriaren arabera, erlijio-ekipamendu kolektibo pribatuetarako erreserbak, udalerri bakoitzean antzeman diren beharrizanen arabera.

2.– Obligazio hori betetzeko, udalek ezingo dute jardun erlijio- edo kultu-askatasunaren oinarrizko eskubidean bereizkeria zuzeneko zein zeharkakorik edo mugatze arbitrariorik eragiten duten irizpideen arabera; batik bat, batez ere erlijio-ekipamendu kolektibo pribatuetarako erreserbak erabakitzeko edo esleitzeko orduan, udalerri bakoitzean antzeman diren beharrizanen arabera.

3.– Nolanahi ere, udalek beren hirigintza-ahalmenak baliatu ahal izango dituzte, erlijio-ekipamendu kolektibo pribatuetarako erreserbak zehazteko, udalerri bakoitzean antzeman diren beharrizanen arabera, betiere erkidegoaren interes orokorra zainduz eta elkarbizitza eta gizarte-kohesioa sustatuz; horretarako, erlijio-elkarteen erlijio- eta kultu-askatasuna eta pertsona guztien duintasuna eta eskubideak errespetatzen dituzten erabakiak eta neurriak hartuko dituzte.

4.– Udaleko hirigintza-antolamenduko prozesuetan, kultu-leku eta erlijio-ekipamenduetarako erreserbatutako lekuak zehazteko eta esleitzeko prozeduretan parte hartuko dute eliza, konfesio edo erlijio-elkarteek, beren nortasun juridikoa egiaztatuta badute, hirigintza-arloko legedian aurreikusitako kasuetan eta moduan.

5.– Erlijio-erabileretarako lurzorua zehazteko eta esleitzeko prozeduran, indarrean dagoen hirigintza-araudi autonomikoa aplikatuko dira, bai eta dagokion foru-araua eta garatzen diren erregelamenduzko xedapenak eta udal-ordenantzak ere.

- <u>7., 8. eta 9. artikuluak (alegazioak onartu ondoren, honako hau ere aurreikusten du artikuluak):</u>

209. paragrafoak zehazten duenez, “positiboa litzateke 1. ataleko mezua aurreikustea, gutxienez, adierazteko kultu-zentro bat ireki baino lehen aurretiazko jakinarazpena aurkeztu behar dela udalean, eta, bertan, berariaz azaldu beharko dela Erlijio Erakundeen Erregistroak igorritako ziurtagiria daukala, eliza, konfesio edo erlijio-elkartearen nortasun juridikoa egiaztatzen duena eta kultu-zentroaren kokapena adierazten duena”.

219-224 paragrafoetan (biak barne), Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak gomendatu du, lehenik eta behin, 8. artikulua bere tituluak iragartzen duena erregulatzeko soilik erreserbatu dadila, eta TAAILra jotzeko aipamenaren ordez (edo osagarri), kultu-zentroak irekitzeko aurretiazko jakinarazpenaren araudira jo dadila, adierazitako eran. Iradokizun horren arabera, honako aipamena jaso da 8. artikuluan: “*Kultu-zentro edo -leku bat ireki baino lehen, aurretiazko jakinarazpena aurkeztu behar da Udalean, bai eta Erlijio Erakundeen Erregistroak igorritako ziurtagiria ere, eliza, konfesio edo erlijio-elkartearen nortasun juridikoa egiaztatzen duena eta kultu-zentroaren kokapena adierazten duena*.”

Era berean, honako hau iradoki du: artikulu berri batean adieraztea kultu-zentroak irekitzeko bete egin behar dela sailkatutako jardueren gaineko araudia, orain 8. artikuluko 2. atalean jasotzen diren baldintzetan, eta sektoreko sailaren proposamenean jasotzen den titulua berreskuratuta. Era berean, erregelamendua gara dadin berariazko deia egiteko gomendatu da.

Iradokizun hori onartu egin da, eta, ondorioz, 9. artikulu berria honela geratu da idatzita:

9. artikulua.– Udalaren esku-hartzea jarduera sailkatuetan, kultu-lekuak edo -zentroak eta gainerako erlijio-ekipamenduak irekitzeko.

1.- Kultu-lekuak edo -zentroak eta gainerako erlijio-ekipamenduak ireki eta funtzionamenduan jartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen

Legeak (otsailaren 27ko 3/1998 Legeak) edo hura garatu edo ordezten duen indarreko araudiak arautzen duten sailkatutako jarduera eta instalazioen araubidea bete beharko da.

2.– Eusko Jaurlaritzak arau bidez ezarriko ditu beharrezko mekanismoak aurretiazko jakinarazpena (aurreko artikuluan aurreikusitakoa) sailkatutako jardueren araubidearen nahiz hirigintza-araudiaren ziozko beste prozedura batzuekin txertatzeko.

- 11. artikulua:

226. paragrafoan, kontsulta-organoak aurreproiektuan zehar "sarbide publikoaren" erreferentziaren ordez "norgehiagoka publikoa" sartzeko gomendatzen du. Iradokizun hori onartu egin da, eta erreferentzia horiek aldatu egin dira 4. artikuluan, 8. artikuluan, eta, noski, 11. artikuluan.

228. eta 229. paragrafoetan, 1. ataleko bigarren adierazpena artikuluko 3. atal berri batean sartzeko gomendatzen du irizpenak. Onartu egin da iradokizuna.

- 12. artikulua:

Irizpeneko **232-239 paragrafoetan** (biak barne), aginduaren sistematizazio berria iradokitzen da. Iradokizun horren arabera, idazkuntza berria eman da:

12. artikulua.– Kultu-lekuak eta zentroak irekitzeko baldintzak ez betetzearen kontrako neurriak.

1.– Indarreko araudian aurreikusitako baldintza tekniko eta material guztiak betetzeko eskatuko du kasuan kasuko udalak.

2.– Baldintza horiek betetzen ez badira, Udalak kultu-zentro edo -lekuaren titularra den erlijio-erakundeari dei egingo dio, antzemandako hutsunea zuzen dezan, horretarako legez ezarritako epea emanda, beharrezko obren ezaugarri eta baldintza teknikoen arabera.

3.– Horretarako emandako epea igarotakoan, deiari erantzun ez bazaio, Udalak, ebazpen arrazoitua igorri eta ukitutako erlijio-erakundeari entzunaldia eman ostean, itxi, giltza eman edo zigilatu egin ahalko ditu hirigintza-lizentzia izan arren edo aurretiazko jakinarazpen aurkeztu arren hutsuneak dituzten eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna edo osasun publikoa arriskuan jartzen duten kultu-zentroak.

4.– Hartutako neurriei eutsi egingo zaie, halakoak ezartzea eragin duten arrazoiek irauten duten bitartean.

5.– Hala ere, kultu- eta erlijio-askatasunaren erabilera bermatzeko, Udalak, ebazpen arrazoitu baten bitartez, establezimendua ixteko neurria ordeztea erabaki ahal izango du, eta, neurri horren ordez, instalazioen zati bat zigilatzea erabaki, baldin eta pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatuta geratzen badira.

6.– Agindu hau betetzeko ezartzen den ezein neurrik ez du izango zehapen-izaera, egon daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eragotzi gabe. Neurri horien helburua, soil-soilik, oinarrizko eskubideak babestera eta pertsonen segurtasuna eta osasuna zaintzera bideratu beharko da, bai eta ingurumena babestera ere.

- 14. artikulua:

243. paragrafoan eta hurrengoetan, eginkizun hori aurreproiektuaren beste bertsio batzuen aldean leundu egin dela aitortzen du, baina birformulatu egin beharko litzatekeela uste da, kultu-leku edo -zentro bat irekitzeko prozeduran txertatzeko zailtasunak dituen izapide bat sartzen omen duelako.

Iradokizun horren arabera, 14.c) artikuluan honako erreferentzia hau ezabatu da: "eta zehazki kultu-zentroak irekitzeko espedienteetako zuzeneko eta zeharkako diskriminazioko salaketetan".

246. paragrafoan, eta arrazoien horien zioz, honako hau gomendatu da: "kultu-lekuak eta -zentroak irekitzeko prozeduretan erlijio-konfesioek eta -erakundeek eskatuta planteatzen diren kontsultetan aholkularitza emateko" funtzioa prozedura hori hasi aurreko fasean soilik aplikatu beharko litzateke. Iradokizun horren arabera, funtzio hori prozedura hasi aurreko fasean soilik aplikatu beharko litzatekeelako ñabardura sartu da.

- Bigarren xedapen gehigarria:

Irizpeneko **252., 253. eta 254. paragrafoetan**, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak berariaz azaltzen du zergatik Euskal Autonomia Erkidegoa ezin den arauz sartu Erlijio Erakundeen Erregistroaren "antzeko erregistro-tresna" bat osatzeko eremuan.

Iradokizun horren arabera, idazkuntza aldatu egin da, "edo Euskal Autonomia Erkidegoan sor daitekeen antzeko beste edozein erregistro-tresna" erreferentzia ezabatzeko.

Azkenik, legegintza-teknikako iruzkinetan, honako ohar hauek egin ditu aipatu kontsulta-organoak:

257. paragrafoan iradokitakoaren arabera, aurreproiektuko artikulu-kopuruari jarraikiz, kapitulutan egindako banaketa ezabatu daiteke, edo banaketa horrekin jarraitzekotan, "xedapen orokorrei" buruzko kapitulua zenbakitan adierazi, lehen kapituluan sartzen baita.

Iradokizun hori kontuan hartu da, eta I. kapitulua ezarri da, Xedapen Orokorrei buruzkoa. Ondorioz, gainerako kapituluei ere dagokien zenbakia eman zaie, korrelatiboki.

258. paragrafoak 2.1.a) eta 4 artikuluetan araua izen osoaren bidez identifikatzeko gomendatzen du. Ohar hori onartu egin da, eta bi aginduetan aipatu da Erlijio-askatasunaren uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa.

Aipatu irizpeneko **259. paragrafoan**, testuko letra larrien erabilera bateratzeko gomendatu da, "eliza, erlijio-elkarte eta konfesioen" gaineko aipamena bereziki azpimarratuta. Iradokizun hori onartu egin da, eta erreferentzia horiek aldatu egin dira testuko honako atal hauetan; orain arrazoien azalpeneko laugarren paragrafoa dena, 2.2.b) artikulua, 4. artikulua, 6.4. artikulua, 13. artikuluko 2. eta 3. atalak, eta xedapen gehigarriak (lehena eta bigarrena).

Irizpeneko **260. paragrafoan** hau gomendatzen da: 3.2. artikuluan sartzea "araudi hau betetzen duten guztiak, nahiz eta hura aplikatzean ahalegina egingo den Lege hau inspiratzen duten printzipio guztiak betetzeko". Era berean, 3.3. artikuluan aginduak etorkizunean adierazteko gomendatzen da.

261. paragrafoan, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeari buruz 3.3. artikuluan jasotako erreferentziaren ordez oraintsu onartutako Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen gaineko erreferentzia jarri behar dela gogorarazten da. Era berean, eta aurrekoarekin bat eginik, dagoeneko ez da existitzen atal honetan aipatzen den inbentarioa. Ondorioz, aipatu Legearen lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistrora jo beharko da.

262. **paragrafoan**, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren ustez testuan zehar "kultu-leku edo -zentro" adierazpen bateratua erabili behar da. Iradokizun hori onartu egin da, eta, beraz, bateratu egin da erreferentzia, testuaren honako atal hauetan: arrazoien azalpeneko laugarren paragrafoa, arrazoien azalpeneko zortzigarren paragrafoa, arrazoien azalpeneko bederatzigarren paragrafoa, arrazoien azalpeneko hamabigarren paragrafoa, 1. artikulua, 2.1.b) eta c) artikulua, 2.2.a) eta b) artikulua, 3. artikulua, 4. artikulua, 7. artikulua, 8. artikulua, 10. artikulua, 11. artikulua, 12. artikulua, bigarren xedapen gehigarria eta bigarren xedapen iragankorra.

263. paragrafoan, 6.2. artikuluan erlijio- eta kultu-askatasunerako oinarrizko eskubidea aipatzeko gomendatzen da.

264. paragrafoan, 5. artikuluko tituluko "aldi baterako" kontzeptua ezabatzeko iradoki da.

265. paragrafoan, egungo 10. artikuluan "erlijiosoak ez diren jarduerak" adierazpenaren ordez "kultu-leku edo -zentroetako berezkoak ez diren jarduerak" jartzearen alde egin da.

266. paragrafoan, egungo 13.1. artikuluan "Kontseilu bat" ordez "Kontseilua" jartzeko gomendatu da.

267. **paragrafoan**, Kontseiluaren eginkizunak (14. artikuluan aurreikusitakoak) ezartzean alfabetikoki antolatutako letra xeheak erabiltzeko gomendatu da.

Iradokizun guztiak onartu dira, eta proposatutako aldaketak Legearen aurreproiektuaren testuan sartu dira.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 24a.

O.E.

Joana Egiluz Ibarguen
Araubide Juridikoaren Zuzendaritzako aholkulari juridikoa

Nieves Martínez de Antoñana Blanco
Araubide Juridikoaren zuzendaria
Lehendakaritza

MEMORIA FINAL DEL ANTEPROYECTO DE LEY DE LUGARES, CENTROS DE CULTO Y DE DIVERSIDAD RELIGIOSA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO CON CARÁCTER PREVIO A SU REMISIÓN A LA COMISIÓN DE GOBIERNOS LOCALES Y COMISIÓN JURÍDICA DE EUSKADI (COJUAE).

I. DESCRIPCIÓN DE LOS ANTECEDENTES Y JUSTIFICACIÓN DE LA INICIATIVA NORMATIVA

La Constitución, en su artículo 16, reconoce la libertad de religión y ha sido objeto de desarrollo mediante Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa. A nivel europeo el derecho fundamental a la libertad religiosa también ha sido objeto de protección a través del artículo 9 del Convenio Europeo de Derechos Humanos, así como en los artículos 10 y 22 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea.

La Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa, garantiza en su artículo segundo el derecho de las Iglesias, Confesiones y Comunidades religiosas a establecer lugares de culto o de reunión con fines religiosos, como una parte inherente de aquella libertad fundamental.

La Ley vasca 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, establece reglas concretas de aplicación para la ordenación y apertura de los lugares o centros de culto. Esta Ley recoge una previsión vinculante para la Administración encargada del diseño urbanístico de establecer obligatoriamente en la red de sistemas generales una reserva sobre "equipamientos colectivos privados, tales como centros de carácter comercial, religioso […]" (artículo 54.2e). Del mismo modo, la norma incluye entre los elementos necesarios de la red dotacional de los sistemas locales unos "equipamientos privados" destinados, entre otros, al "uso religioso" (artículo 57.2.e), y que tendrían acomodo también en los estándares de sistemas locales igualmente previstos en la misma (artículo 79) tanto para el suelo urbano no consolidado como para el urbanizable, en ambos casos, de carácter residencial.

Los poderes públicos vascos tienen la obligación de adoptar medidas positivas, incluyendo las de carácter normativo, como sería el caso de la regulación que nos ocupa, para asegurar el ejercicio de los derechos fundamentales en su territorio, lo que abarca desde luego la libertad religiosa. Y, precisamente, en este contexto, se justifica la necesidad de la adopción de una normativa que proteja el derecho a la libertad religiosa, expresada, principalmente, en la apertura de lugares o centros de culto que pueda responder de modo efectivo a estas obligaciones que derivan de una lectura actualizada del Estatuto de Autonomía.

La Ley proyectada tiene por objeto proteger la diversidad religiosa y el derecho a la libertad de religión, ofreciendo mecanismos de diálogo y acuerdo para una gestión

positiva a una realidad social emergente e íntimamente ligada al ejercicio de un derecho fundamental.

Así, la Ley ofrece un marco de regulación para proteger el precitado derecho a la libertad religiosa, en relación con la apertura y utilización de centros de culto.

Para ello, la ley se divide en un Capítulo de Disposiciones Generales (en el que se establece el objeto de la ley, los principios que la inspiran su ámbito de aplicación y la definición del lugar o centro de culto).

A continuación, en el Capítulo Primero de la Ley, se regula la utilización temporal o esporádica de titularidad pública para fines religiosos y la determinación de los usos religiosos por los Planes de Ordenación Urbana.

En el Capítulo Segundo se concretan los preceptos relativos a licencias urbanísticas, a la comunicación de apertura de centros de culto, otras autorizaciones de actividad, condiciones técnicas y materiales de obligado cumplimiento para los lugares y centros de culto y medidas contra el incumplimiento de las condiciones de apertura.

Por su parte, en el Capítulo Tercero, destaca la creación del Consejo Interreligioso Vasco que se proyecta como el motor dinamizador de la gestión positiva de la diversidad religiosa en Euskadi; siendo un punto de encuentro de instituciones vascas, Iglesias, confesiones y comunidades religiosas, entidades académicas y organizaciones de la sociedad civil.

II. TRAMITACIÓN DEL ANTEPROYECTO

En la elaboración del presente anteproyecto se han observado las siguientes fases y trámites:

1.- Inicio del procedimiento: Por Decreto 1/2016, del Lehendakari, de 2 de febrero.

2.- Memoria explicativa del Anteproyecto, de 3 de febrero de 2016, del Secretario General para la Paz y la Convivencia.

3.- Por Decreto 7/2016, del Lehendakari, de 24 de febrero se acordó la aprobación previa del anteproyecto de ley.

4.- Informe jurídico de la Dirección de Régimen Jurídico de Lehendakaritza de 26 de febrero de 2016.

5.- Informe justificativo de la ausencia de relevancia desde el punto de vista de género de 18 de febrero de 2016.

6.- Mediante Resolución de 1 de marzo de 2016, del Secretario General para la Paz y la Convivencia, publicada en el BOPV nº48 de 10 de marzo de 2016, se abrió un período de información pública, de 20 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el BOPV, para presentar alegaciones al citado anteproyecto de ley.

7.- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas: se solicitó el 10 de marzo de 2016 y fue evacuado el 18 de marzo, sin que se

formulase objeción alguna, si bien se realizaron algunas propuestas que más adelante se analizan.

8- Informe del entonces Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial: solicitado el 10 de marzo de 2016, siendo evacuado por dicho Departamento el 7 de abril, realizando alegaciones que se analizarán más adelante.

9.- En la fase de información pública, con fecha 5 de abril de 2016, se recibieron alegaciones de las Diócesis de Bilbao, de San Sebastián y de Vitoria y, con fecha 5 de abril de 2016, de D. Fernando Isidro Fernández Osorio, a las que más adelante se hará referencia.

10.- El 12 de mayo de 2016 se solicitó informe de control económico-normativo de la Oficina de Control Económico, siendo evacuado con fecha 18 de mayo, con las consideraciones que más adelante se expondrán y examinarán.

11.- Con fecha 26 de mayo de 2016, se solicitó informe al Departamento de Empleo y Políticas Sociales, dada las competencias del mismo –a través de la Viceconsejería de Vivienda- sin que se recibiese informe alguno.

12.- Con fecha 26 de mayo de 2016, se concedió trámite de audiencia a la Asociación de Municipios Vascos–EUDEL. El 9 de junio de 2016, se recibió solicitud de ampliación de plazo de EUDEL, que fue aceptada con fecha 20 de junio de 2016, ampliándose el plazo para formular alegaciones hasta el 29 de julio de 2016, sin que se formulasen alegaciones.

13.- El 22 de enero de 2018, se solicitó informe a la Dirección de Desarrollo Estatuario de la Viceconsejería de Régimen Jurídico del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, que fue evacuado el 6 de febrero de 2018.

14.- Con fecha 27 de julio de 2018 se solicitó nuevo informe a la Dirección de Servicios del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, el cual fue evacuado con fecha 20 de septiembre de 2018.

15.- Asimismo, con fecha 6 de noviembre de 2018 se concede trámite de audiencia a la Asociación de Municipios Vascos- EUDEL, para que presentase las alegaciones que estimase oportunas al texto del anteproyecto de Ley en tramitación.

16.- Con fecha 9 de junio de 2018 EUDEL solicita la ampliación de plazo para presentar alegaciones al anteproyecto de ley. Se amplía el plazo para presentar alegaciones hasta el 19 de diciembre de 2018.

17.- Con fecha 19 de diciembre de 2018 EUDEL remite escrito de alegaciones.

18.- Con fecha 22 de enero de 2019 se incorpora al expediente el informe de impacto en función del género de la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación.

19.- El mismo día, el 22 de enero de 2019, se solicita informe de verificación a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. Dicho informe fue evacuado el 4 de febrero de 2019.

20.- Con fecha 26 de febrero de 2019 el Secretario General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación suscribe la Memoria económica en relación al anteproyecto de ley de lugares, centros de culto y diversidad religiosa en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Una vez realizados estos trámites, y antes de remitir a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi (COJUAE), se remite el expediente a la Comisión de Gobiernos Locales de Euskadi para que emita el preceptivo informe que contenga un pronunciamiento acerca de si la norma proyectada produce o no una merma o vulneración de la autonomía local.

III.- RESUMEN DE LAS OBSERVACIONES PLANTEADAS POR LOS ÓRGANOS PERTENECIENTES A LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y LAS MODIFICACIONES INTRODUCIDAS.

Un nuevo análisis del proyecto, a resultas de las consideraciones planteadas por los órganos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco que han participado en su análisis, conlleva ajustes en el texto, en los términos que aquí se recogen.

A continuación, se detallan las observaciones recibidas y modificaciones introducidas:

1.- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística.

Señala dicho informe que no hay especial afección al uso del euskera por parte del anteproyecto.

Asimismo, y como recordatorio de lo dispuesto en la Ley básica de normalización del uso del euskera de 1982, expresa la necesidad de garantizar, tanto a las personas físicas como a los representantes de las personas jurídicas, la posibilidad de usar cualquiera de las dos lenguas oficiales de la CAPV en sus relaciones con la Administración (ex. arts. 5.2 a) y 6.1).

2.- Informe del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial.

Indica al efecto que, ya en el 2012, desde el entonces Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, se realizaron observaciones en relación con una versión previa de Anteproyecto de Ley de Centros de Culto, en la que se ponía de manifiesto la postura del Departamento sobre la incidencia del anteproyecto en materia de la regulación de actividades clasificadas, recogida en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

Señala el informe que el anteproyecto incide en la misma materia que la informada en 2012 y que no queda claro si la ley estable una nueva licencia sectorial –la que el anteproyecto, en ese momento, en ocasiones denominaba “licencia municipal de centros de culto”- o, si por el contrario, se pretende someter la apertura y funcionamiento de los centros de culto al régimen de licencia de actividad clasificada, regulado en la referida Ley 3/1998, de 27 de febrero.

Pues bien, en el texto actual se han eliminado tales referencias por lo que entendemos que tal consideración ha sido correctamente atendida.

En lo que respecta a las aportaciones efectuadas por el entonces Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial, procede señalar lo siguiente:

- El citado Departamento sugirió que el anteproyecto debía realizar, en materia de actividades clasificadas, una remisión a la regulación ambiental aplicable sin interferir en su contenido.

En atención a esa observación, el anteproyecto contempla una nueva redacción del artículo 7, a saber:

> *"Los locales de culto y demás equipamientos religiosos estarán sometidos al régimen general de las licencias urbanísticas establecido en la normativa urbanística, tanto para las obras de construcción y adecuación de los locales como para su apertura".*

Entendemos que la citada redacción resulta más acorde al objeto del propio anteproyecto de ley.

- Por otra parte, el Departamento alegó que, en relación con el entonces artículo 13 del anteproyecto, que preveía un expediente administrativo único, su redacción debería adaptarse también a lo establecido para el régimen de comunicación previa de actividad clasificada, al que se halla sometida la apertura de centros de culto.

En atención a dicha consideración se reconsideró su contenido, procediendo a su **eliminación**, dado que el expediente único no puede convivir con el régimen de comunicación previa que ahora se regula.

- Finalmente, sugirió, tal como también se hizo en 2012, que, dado que la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente, define como actividad clasificada la actividad pública o privada susceptible de originar daños al medio ambiente, producir riesgos a las personas o sus bienes, o causar molestias a las personas, se considerase la posibilidad de que el Departamento de Medio Ambiente, participase en la elaboración del Reglamento.

Tal sugerencia ha sido atendida.

3.- Informe de la Oficina de Control Económico.

A) En cuanto al procedimiento y tramitación del Anteproyecto.

Señala la Oficina de Control Económico (en adelante OCE), que no se había dado cumplimiento plenamente satisfactorio de los requisitos que para la Elaboración de Disposiciones de Carácter General exige la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, detectándose las siguientes carencias en la tramitación del anteproyecto:

- Ausencia de acreditación de haberse dado audiencia a EUDEL, ex artículo 8.3 de la citada Ley 8/2003, de 22 de diciembre, en su calidad de entidad interesada. A este respecto señalar que, efectivamente, se trata de un requerimiento del mencionado artículo de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, y exigido, también, en el punto 5 del Dispongo sexto del Decreto 1/2016, de 2 de febrero, del Lehendakari, por el que se ordena el inicio del procedimiento de elaboración de Anteproyecto de Ley de Centros de Culto.

Tal y como consta en el expediente, con fecha de 26 de mayo de 2016, se concedió trámite de audiencia a la Asociación de Municipios de Euskadi – EUDEL. Con fecha de 9 de junio de 2016, se recibió la solicitud de ampliación de plazo de EUDEL, que fue aceptada con fecha de 20 de junio de 2016, ampliándose el plazo para formular alegaciones hasta el 29 de julio de 2016, si bien no formuló alegaciones.

Asimismo, también consta en el expediente que, con fecha 6 de noviembre de 2018, se concede, nuevamente, trámite de audiencia a la Asociación de Municipios Vascos-EUDEL; y que, tras la solicitud de ampliación de plazo, el 19 de diciembre de 2018 EUDEL remitió escrito de alegaciones, las cuales serán analizadas más adelante.

Se considera, por tanto, que la carencia apuntada por la OCE ha sido resuelta.

- Ausencia de acreditación de haberse efectuado consulta al entonces Departamento de Empleo y Políticas Sociales, dadas las competencias del mismo, a través de la Viceconsejería de Vivienda en materias de ordenación urbana y suelo público.

Cuando la OCE emitió su informe no constaba en el expediente informe del área de vivienda; si bien, tal carencia puede entenderse subsanada toda vez que el ahora (en la legislatura actual) Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda se ha pronunciado respecto del anteproyecto de ley de lugares, centros de culto y diversidad religiosa (informe evacuado el 20 de septiembre de 2018).

- Ausencia del informe de Emakunde- Instituto Vasco de la Mujer exigido por el artículo 21 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Tal carencia ha sido subsanada mediante la incorporación al expediente de un nuevo informe de impacto en función del género y del informe de verificación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer (emitido el 4 de abril de 2019).

- Señala que la instancia promotora no ha incluido el informe de impacto en la empresa, tal y como exige el artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Apoyo a las Personas Emprendedoras y a la Pequeña Empresa del País Vasco, ni ha facilitado las razones para su no aportación.

A este respecto, en la memoria económica de fecha 26 de febrero de 2019 consta lo siguiente:

> *"El artículo 6 de la ley 16/2012, de 28 de junio, contempla la preceptividad del informe de evaluación del impacto en la empresa –cuya ausencia en el expediente menciona el informe de la Oficina de Control Económico obrante en el expediente y señala la ausencia de justificación para su no aportación -. A tal efecto, sírvase de la presente memoria para justificar dicho extremo, toda vez que, por el propio objeto de la normativa proyectada, íntimamente relacionado con el ejercicio de un derecho fundamental, no afecta, en modo alguno, en la constitución, puesta en marcha y funcionamiento de las empresas."*

Habida cuenta lo expuesto con anterioridad, y atendiendo a la materia que regula el presente anteproyecto de ley, no se considera necesario emitir el precitado informe, cuyo contenido sería el expuesto en el párrafo anterior, en la medida en que queda acreditado que la nueva regulación no tiene incidencia en la constitución, puesta en marcha y funcionamiento de las empresas en Euskadi.

- Por último, la OCE indica que se echa en falta una memoria justificativa de las razones que determinan la concreta regulación que de los distintos aspectos contemplados; resultando también destacable, dada la conexión existente, que no figure incorporado a la documentación integrante del expediente el informe emitido por el grupo de expertos del "Centro de Estudios Sociales y Jurídicos Sur de Europa", sobre las posibilidades competenciales de que dispone la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de legislación sobre centros de culto, al que hace referencia la memoria justificativa.

Ese informe, ya consta en el expediente.

B) En cuanto al texto y contenido del Anteproyecto.

destinado principalmente, de forma permanente, a la práctica del culto, la realización de reuniones de finalidad religiosa, y la formación o la asistencia de tal carácter, siempre y cuando haya sido reconocido expresamente como tal centro por la correspondiente iglesia, confesión o comunidad religiosa con personalidad jurídica de acuerdo con lo establecido en la ley orgánica de libertad religiosa."

Artículo 5

Según el informe jurídico anterior, el contenido de este artículo es superfluo, por obvio. Coincidimos con tal aseveración, por lo que se suprime.

En todo caso, dicha formulación ya está contenida de alguna manera en el preámbulo de la norma.

Artículo 6 y 7

Parece claro que hay un solapamiento y redundancia entre los contenidos artículos 6 y 7. Esto no repercute para nada en la claridad y calidad del texto, por lo que se propone suprimir el artículo 6, cuyo contenido está perfectamente recogido en el artículo 7.

En este sentido el informe jurídico anterior ya apuntaba "la semejanza entre el contenido del artículo 6 y el 7.1" indicando que no se precisaban de dos artículos diferenciados. Según dicho informe, y en dichas consideraciones coincidimos, el artículo sexto propugna con carácter genérico lo que, más o menos, se concreta en el artículo 7.1. Así, cuando el artículo sexto habla de *"sistemas de planificación urbana"* se trata de los *"planes de ordenación urbana"* al que hace referencia el artículo séptimo (este sí es un término jurídico concreto y específico); cuando en el sexto se dice *"facilitando los espacios"* se refiere a la *"reserva de espacios"* contemplado en el séptimo (si bien es más preciso el término "reserva de suelo"); y cuando se utiliza la dicción *"equipamientos destinados al culto"* en el sexto, y en este aspecto el artículo séptimo tampoco es afortunado, se habla en realidad de "equipamiento colectivo de uso religioso" (más técnico y jurídico).

Por ello, se suprime el artículo 6, al considerar que se halla incluido en el 7 o simplemente recoge menciones programáticas que no aportan nada al contenido de la norma.

Artículo 8

La dicción de este artículo resulta complicada y confusa. En especial su primer párrafo. Este primer párrafo evita la concisión y vuelve a situarse en el terreno de los principios, por lo que el articulado quizás no sea el lugar adecuado para plasmarlo.

Como señalaba el informe jurídico previo, se reformula la redacción con el siguiente texto:

"Para llevar a cabo actividades de carácter religioso, las administraciones públicas dispensarán un trato igualitario a todas las confesiones y comunidades religiosas respecto:

a) A la cesiones y autorizaciones de uso privativo de equipamiento y espacios públicos
b) Al uso privativo del dominio público.
c) A la ocupación temporal de la vía pública.
d) A la cesión de bienes patrimoniales".

Artículo 9

Este artículo preceptúa la obtención de una licencia municipal de apertura para la apertura del centro de culto.

En primer lugar, hay que señalar que la terminología de este artículo no se compadece bien con la establecida en la vigente Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco (LPMA). En efecto el artículo 56 de la LPMA -en su redacción dada por la Ley 7/2012, de 23 de abril de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios del mercado interior- indica en su apartado 2 que "*la licencia municipal se denominará licencia de actividad clasificada…*", y en el apartado 3, que "*la comunicación se denominará comunicación previa de actividad clasificada*".

Por todo ello, entendemos que no es correcto el término "licencia municipal de apertura y uso", utilizado en el anteproyecto, debiendo adecuarse a la nueva terminología establecida por la citada reforma.

Las licencias municipales (licencia de actividad clasificada, en la nueva terminología) tienen por objeto garantizar que los locales cuenten con condiciones técnicas adecuadas al tipo de actividad que se vayan a desarrollar en los mismos. Están reguladas en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco.

La mención contenida en el artículo 7, apartado 1, in fine, relativa al establecimiento de un periodo máximo para la concesión de la licencia y su otorgamiento por silencio positivo, puede ser redundante y asistemática, pues dicho plazo ya está regulado en el artículo 59 bis. de la LPMA. Esta referencia aislada resulta, como hemos señalado, asistemática, pues está entresacada de una regulación (LPMA) que contiene las previsiones de manera exhaustiva para la tramitación de la licencia municipal, y visto así, la referencia aislada solo aporta confusión. Por lo cual, se sugiere prescindir de dicha mención en el texto del anteproyecto.

En todo caso, si se quiere incluir la actividad de "usos religiosos" como licencia de actividad clasificada, se hace necesario modificar el Anexo II de la LPMA, incluyendo en su letra A) las actividades e instalaciones clasificadas sometidas a licencia de actividad.

Planteamos una reflexión en torno a la necesidad de sujetarse a licencia municipal (de actividad clasificada) la apertura de este tipo de centros o simplemente someterse a una comunicación previa de actividad (art. 56.3 LPMA), siendo esta segunda vía menos restrictiva en cuanto a la intervención en los derechos de las personas, y podría conseguir la misma finalidad que la obligación de obtener licencia, en orden a verificar el cumplimento de las condiciones de seguridad de los locales de esta naturaleza.

Las comunicaciones previas son figuras jurídicas de uso común que vienen a sustituir en muchos casos a las licencias municipales, en la línea con lo dispuesto en la Directiva 2006/123/CE. Asimismo, estas

comunicaciones son mecanismos que intenta impulsar la simplificación administrativa, y aligerar en lo posible la carga burocrática de la tramitación.

La Ley 7/2012, de 23 de abril de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios del mercado interior, precisamente modificó en este sentido, como se ha indicado, la LPMA, creando la comunicación previa de actividad clasificada e incluyéndola en su Anexo II, letra B)

También debemos citar el artículo 84 bis. de la Ley de Bases de Régimen Local que señala que, con carácter general, el ejercicio de actividades no se someterá a la obtención de licencia u otro medio o control preventivo.

Por otra parte, creemos que es la propia Ley de centros de culto y no su reglamento de desarrollo la que debe establecer, bien directamente en su articulado o mediante una modificación de la LPMA (quizás mejor solución en técnica jurídica) qué tipo de locales precisan de licencia y cuáles de comunicación previa.

Por ello, se ha suprimido el apartado 4 del artículo 9, al entender que materia es competencia de la Ley y no del reglamento de desarrollo, o quizás su modificación, estableciendo en este apartado 4 el aforo que determina la necesidad de obtener licencia de actividad o, simplemente, comunicación previa.

En este sentido citamos el ejemplo de la reciente Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, que mediante su Disposición Final Primera modifica la citada Ley 3/1998, de 27 de febrero (LPMA) estableciendo el criterio del aforo (mayor o menor de 300 personas) para concluir si determinados locales de pública concurrencia precisan de la obtención de licencia municipal o simplemente de comunicación previa de actividad clasificada.

Por ello, la modificación de la LPMA, para incluir los "usos religiosos" como actividad clasificada, se podría realizar mediante la inserción de disposiciones finales en la Ley de centros de culto.

Respecto a las licencias urbanísticas, poco hay que señalar puesto que la presente ley no incide directamente en ellas, sino que las cita de forma general, remitiéndose a la normativa vigente en materia de urbanismo.

No cabe duda de que en la fase de participación de otros departamentos de esta Administración en la elaboración de esta norma, especialmente los que tengan competencias en la materia de urbanismo y medio ambiente, y de las propias administraciones locales, encargadas de conceder las licencias de actividad o recepcionar las comunicaciones previas de este tipo de locales, se dará una buena oportunidad para debatir y concluir sobre la mejor solución al respecto.

Artículo 12

Este artículo contempla la adopción de medidas por parte del ayuntamiento en caso de incumplimiento de las condiciones reglamentarias de los centros de culto.

Creemos que no es aceptable ninguna exención subjetiva en esta materia. Por lo que si una conducta está tipificada como infracción, por la normativa correspondiente, es irrelevante quién sea la persona que la ha cometido, debiendo sujetarse todas las personas a las consecuencias del incumplimiento, so pena de vulneración del principio de igualdad ante la ley (art. 14 CE).

Por ello se ha eliminado del artículo 12 todas las menciones a "medidas sin carácter sancionador" en este artículo.

Artículo 13

Los actos sujetos a licencia urbanística están regulados por el artículo 207 y siguientes de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Por ello, como señalaba el informe jurídico anterior, se eliminan los apartados 2 y 3 de este artículo, toda vez que dicha materia es propia de la normativa de las licencias urbanísticas en general y exceden de la competencia del presente proyecto de ley.

Artículo 15

En el primer apartado, se ha eliminado la mención "licencia municipal de apertura y funcionamiento" y sustituirla por algo más genérico. Por ejemplo: licencia municipal o licencia de actividad de centros de culto, por ser más acorde con la actual terminología legal.

Artículo 16

De acuerdo con lo indicado en el informe jurídico anterior, el párrafo primero quedaría más concreto de la siguiente manera: "*Las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas participarán en el procedimiento de determinación y asignación de los espacios reservados a lugares de culto y equipamientos religiosos, en los supuestos y en los términos establecidos para la información pública y colaboración ciudadana previstos en la legislación urbanística*".

Disposición Transitoria Primera

Tal y como señalaba el informe jurídico anterior, existía un error en el apartado 3, pues el artículo citado debería ser el 7.

Se procede a corregir el error en la nueva versión del borrador del anteproyecto.

Disposición Transitoria Tercera

Existe un error gramatical donde dice "... centro de culto acceso público…" deberá indicar "... centro de culto **de** acceso público…"

Se procede a su corrección en la nueva versión del borrador del anteproyecto.

Disposición Transitoria Cuarta

Entendemos que el plazo de adaptación establecido en esta disposición es excesivamente largo si estamos considerando que se tratan de medidas

que afectan a la seguridad de las personas. Además esta "vacatio legis" queda a expensas de la entrada en vigor del Reglamento que desarrolle la Ley.

Por ello, se ha dado una nueva redacción por la que se rebaja el plazo de adaptación, iniciándose su cómputo a partir de la entrada en vigor del Reglamento, que es el que , con la habilitación legal, determina el número de años para adaptarse a la nueva situación.

Se propone un texto del siguiente tenor literal:

"*Los centros de culto que, a la entrada en vigor de la presente Ley, no cumplan con los requisitos materiales y técnicos mínimos mencionados en el artículo 10, dispondrán del periodo máximo que establezca el reglamento de desarrollo para adaptarse a los mismos, que no podrá exceder de 4 años*."

III.- TRAMITACIÓN

La tramitación del anteproyecto de ley debe seguir el procedimiento establecido en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, relativa al Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General.

Una vez analizado el texto remitido, este es el informe que se emite, informe éste que se somete a cualquier otro mejor fundado en derecho.

Luis Alberto Oribe Novales
Dirección de Régimen Jurídico

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Firmante: **LUIS ALBERTO ORIBE NOVALES**
Fecha de la firma: **26/02/2016 12:05:21**

KULTU ZENTROEI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN INGURUKO TXOSTEN JURIDIKOA

I.- SARRERA

Txosten hau Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluari jarraituz egin da. Lege horren arabera, "*betiere, prozeduraren instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak txosten juridiko bat egin beharko du alderdi hauek aztertzeko: egitekoa den arauaren funts objektiboa zein den, haren edukia Legearen eta Zuzenbidearen araberakoa den eta araugintza-teknikaren jarraibideak bete diren, baldin eta halakorik balego*".

Txosten hau emateko Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak duen eskumena Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuaren 7. artikuluko c) letran xedatutakoaren ondorioa da. Bertan adierazten da Zuzendaritza horri dagokiola berak izapidetu behar dituen "*xedapenen, hitzarmenen eta erabakien proiektuak egitea eta horien txostenak egitea...*".

II.- AURREKARIAK

2011n, kultu-zentroei buruzko arauzko ekimen bat izan zen. Gaur egun ekimen horri arauzko testuaren proposamen berarekin heldu zaionez, erabilgarriak dira Justizia eta Herri Administrazioaren Zerbitzuen Zuzendaritzaren 2011ko abenduaren 29ko txosten juridikoan egindako gogoetak; Zuzendaritza hori izan zen ekimena izapidetzeko arduraduna bere sasoian.

Hori dela eta, erreferentzia gisa txosten hau hartuta, testua eguneratzen da, oharrekin, eta interesgarritzat hartzen direnak aurkeztu dira.

Halaber, adierazi behar da, jarraipen egokirako, txosten honen erreferentzia guztiak -artikuluen aipamenak, aldaketak, eta abar- aurreproiektuaren aurreko zirriborroa kontuan hartuta egiten direla, hori hartuta abiapuntutzat.

Artikulu batzuk ezabatzeko proposamenaren ondorioz, ondoriozko zirriborro berriak (1. zirriborroa) beste numerazio bat aurkezten du eta ez dator aurrekoarekin bat.

III.- PROIEKTUARI BURUZKO GOGOETA JURIDIKOAK

1) Eskumen materiala, formala eta tresna juridikoa

1.1.- Eskumen materiala

Gure ustez aurreproiektua 2011n aztertu zuen txostenak egoki adierazi bezala, Espainiako Konstituzioaren (EK) 16.1 artikuluak erlijio-askatasuna oinarrizko eskubide gisa aurreikusten du, eta EKren 81. artikuluak ezartzen du funtsezko eskubideen eta askatasun publikoen garapena lege organikoaren bidez egingo dela. Garapen hori Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bidez gertatu zen.

Lege organiko horren 2.2 artikuluak zehazten du erlijio-askatasunak ulertzen duela elizek, konfesioek eta erlijio-elkarteek kulturako lekuak edo helburu erlijiosoekin biltzeko lekuak ezartzeko duten eskubidea.

Hala ere, proiektu honen helburua ez da arautzea erlijio-askatasunerako eskubidea -alderdi hori eskumen autonomikoari eragozten zaio-, baizik eta arautzeko estandar batzuk sortzea, "kultu-zentro" horiek ezartzeko bereziak direnak, irizpide egokien, homogeneoen eta berdinzaleen bidez, segurtasun juridikoak babestuta eta erlijio-konfesioen arteko edozein diskriminazio saihestuz.

Gainera, legeak araudiaren bidez lortu nahi duena da establezimendu horiek bertaratzen diren pertsonen segurtasuna bermatzen duten segurtasun-baldintza teknikoak betetzea, barruan jendea hartzen duten lokalak direnez.

Horren harira esan behar da oraintsu onetsitako 10/2015 Legeak, abenduaren 23koak, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerenak, 3.2 artikuluan (”Aplikazio-eremua”) zehazten duela erlijio-ospakizunak kanpo daudela ulertzen dela. Hala ere, testuaren arabera, erlijio-ospakizun horiek herritarren segurtasuna babesteko legerian ezarritakoa eta segurtasun- eta osasun-eskakizunak bete beharko dituzte, bai eta atsedenerako eta bizikidetza normalizaturako eskubidea bermatzeko eta hirugarrenei eragozpenak ekiditeko baldintza teknikoak ere, aplikagarri diren arau bereziak eta tokiko ordenantza egokiak gauzatzen diren establezimendu edo espazioetan beharrezkoak direnak, lege honetan eta haren garapen-araudietan ezarritakoaren arabera. Nahiz eta esanguratsua izan daitekeen lege batek bere eskumenaren barruan ez dauden lokalei eskakizun tekniko jakin batzuk eskatzea, horretatik argi ondorioztatzen da aurreproiektuan jasotako arauketaren bokazioa, helburu duena, mota horretako zentroak irekitzeko eskubidea bermatzeaz gainera, horiek erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko beharrezko baldintza tekniko eta materialak betetzea eta hirugarrenei eragozpenak saihestea.

Lege-aurreproiektuaren helburua da kultu-zentroen eta beste espazio erlijioso batzuen irekiera arautzea. Horretarako, administrazio publiko eskudunei eskatzen die beharrezkoak diren lurzoru-erreserbak ezar ditzatela, eta kulturako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko ezinbesteko baldintza tekniko eta materialak finka ditzatela. Erlijio-zentroak erlijio-erabilerarako komunitatearen ekipamendutzat hartzen dira, herritarren zerbitzura dauden eta interes publikokoak diren ekipamendutzat hartzen dira eta hirigintza-sistemen zati dira.

Beraz, arautu beharreko gaia lurraldearen, hirigintzaren eta etxebizitzaren antolamendu-eremuaren barruan sartzen da, eta hori autonomia-erkidegoaren eskumen esklusibokoa da, Autonomia Estatutuaren 10.31 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala ere, gaiaren ikuspegi globala izateko, kontuan izan behar da Tokiko Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.d) artikulua. Artikulu horrek ezartzen du udalerriak gauzatuko dituela antolamenduari, kudeaketari, gauzatzeari eta hirigintzako diziplinari buruzko eskumenak, estatu- eta autonomia-mailako legeriak ezarritako baldintzei jarraiki. Alegia,

EAEren esku dago gaiaren inguruko legeria ezartzea, baina udalerriek kudeatu behar dute erlijio-izaerako kokaleku pribatuak ezartzeko modua.

Nolanahi ere, ezin da ahaztu arautuko den gaia errespetatu beharreko eskumen-eremuen eta konstituzio-arauen menpe ere badagoela, besteak beste: berdintasunerako eskubidea, EKren 14. eta 9.1 artikuluan ezarritakoa; jabetzarako eskubidea, EKren 33. artikuluan ezarritakoa; guztiok ingurumen osasuntsuaz eta zaratarik gabeaz gozatzeko dugun eskubidea, EKren 45. artikuluan ezarritakoa; interes orokorraren araberako lurzoruaren erabilera, EKren 47. artikuluan ezarritakoa; kulturaren askatasunerako eta herritarren segurtasunerako eskubidea baliatzeko babesa, EKren 104. artikuluan ezarritakoa.

1.2.- Eskumen formala eta araudi maila.

Beharrezko tresna juridikoa dela eta, hirigintza-antolamenduak (lurzoruaren erreserba, erabilerak, lizentziak...) zuzenean du eragina EKren 33. artikuluan jasotako jabetza pribaturako eskubidean; beraz, legeak arautu beharko du hura baliatzea (EKren 53.1 art.). Era berean, lizentziak polizia-jardueraren berezko teknika dira edo, beste modu batera esanda, administrazio-mugaren teknika (banako eskubideen murriztailea), EKren 9.3 artikuluan ezarritako legezkotasun-printzipioaren menpe ere badagoena. Beraz, Legea da gaia arautzeko behar den tresna juridikoa.

Eskumen formala dela eta, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. artikuluak ezartzen du Eusko Jaurlaritzak gauzatzen duela legegintza-ekimena, Autonomia Estatutuaren eta Legearen arabera, honela: Jaurlaritzari dagokio (xedapen horren 18. artikulua) lege-proiektuak onestea, Legebiltzarrera bidaltzeko, eta proiektu horiek Jaurlaritzari proposatuko dizkio arautuko den gaian eskumena duen saileko titularrak (aipatutako Legearen 26. artikulua).

Proiektuaren helburu den gaia giza eskubideen eremuan sartzen da, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikulutik (pentsamendurako, kontzientziarako eta erlijiorako askatasuna) eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 10. eta 22. artikuluetatik ondorioztatzen den moduan.

Lehendakaritza sail eskuduna da gai horren inguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren

15eko 20/2012 Dekretuaren 4.1.k) artikuluan ezarritakoaren arabera, martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuak emandako idazketan; horrek Lehendakaritzari esleitzen dio "*giza eskubideen sustapena*" egiteko eskumena. Eta, zehatzago esateko, Lehendakaritzaren barruan, Bakearen eta Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiari dagokio espedientea hastea, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz; bertako 19 a) artikuluan ezartzen da esleituta duela "*Giza duintasunean eta giza eskubideekiko konpromisoan oinarritutako bakearen eta elkarbizitzaren kultura sustatzeko sailen arteko estrategia bat diseinatu eta zuzentzea*".

2) Lege-aurreproiektua

Aztertutako lege-proiektuak azalpen-zatia (sarrera), bost kapitulutan banatutako 16 artikulu, hiru xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor eta bi azken xedapen ditu.

2.1.- Titulua: Kultu Zentroei buruzko Legea

Tituluak zuzen erreparatzen die Gobernu Kontseiluak 1993ko martxoaren 23ko bileran lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko onetsitako jarraibideei; labur, zehatz eta osorik adierazten du araututako gaia.

2.2.- Azalpen-zatia

Aurreko txosten juridikoan aipatutakoarekin bat, adierazten zuen xedapen orokorrak egiteko jarraibideen arabera, *"lege-proiektuetan, azalpen-zatiak aurretik <Zioen azalpena> titulua izango duela"*. Beraz, "sarrera" terminoa kendu eta "Zioen azalpena" jarri behar da.

Hori guztia kontuan hartuta, "Sarrera" kendu eta "Zioen azalpena" jarriko da.

2.3.- Xedapen-zatia

1. artikulua

Aurretiko txostenean adierazi bezala, ulertzen dugu arauaren helburuaren zehaztapena eta definizioa hobetzeko idazketa hobetu beharko litzatekeela; beraz, aldatu egin da, eta honela jarri:

> *"Lege honen xedea hiri-antolamenduko planetan erlijio-erabilerako ekipamendu kolektiboetara bideratutako lurzoruak erreserbatzen direla bermatzea da, baita kulturako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko baldintza tekniko eta materialak zehaztea ere".*

Era berean, bigarren paragrafoa ezabatu da; izan ere, ez dio ezer gehitzen Legearen "helburua"-ren definizioari.

2. artikulua

Bigarren artikulua paragrafo bakarrak eratzen du. Aldi berean, paragrafo hori lau zatitan banatuta dago. Aurreko txosten juridikoak adierazi bezala, xedapen orokorrak egiteko jarraibideek ezartzen dute paragrafoek zifra arabiarren bidez zenbakituta egon beharko dutela, eta idatz-zatiak letra xehez adierazi beharko direla. Hori dela eta, idatz-zatietan zifra arabiarren ordez letrak erabili beharko dira.

Beraz, lehenengo paragrafotik kendu egingo da "*Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen barruan*" aipamena; izan ere, erreferentzia errepikakorra da, arauaren hartzaile den erkidegoaren lurralde-eremua ezin baita beste bat izan.

Paragrafo horretan bertan, gure ustez, "*ingurumenarekiko errespetua*" aipamena kendu beharko litzateke; izan ere, Erlijio Askatasunari buruzko Lege Organikoaren 3.1 artikuluko klausulari aurka egin diezaioke, Lege Organikoan ezartzen ez den muga bat ezarriz. Agindu horrek hitzez hitz adierazten du hauxe: "*Erlijio- eta kultu-askatasunaren ondoriozko eskubideak egikaritzeko muga bakarra da enparauek askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak egikaritzeko duten eskubidea babestea, bai eta gizarte demokratikoaren esparruan legeak babestutako ordena publikoaren osagai eratzaile diren segurtasun, osasun eta moralitate publikoa babestea ere*".

Hori horrela, gure ustez egokiagoa da a) letra horretan orokorrean erlijio-askatasunari buruzko lege organikoa aipatzea eta, horretarako, honako testu hau proposatzen dugu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan erlijio- eta kultu-askatasunaz banaka zein taldean baliatzeko berme eraginkorra ematea. Eskubide horietaz baliatzeko mugak Erlijio Askatasunari buruzko Lege Organikoan xedatutakoaren arabera baino ezin izango dira ezarri.

Era berean, ados gaude aurreko txosten juridikoak dioenarekin, lehen letrako bigarren esaldiak honako hau dakarrela dioenean: *"Eskubide hauen mugak...".* Ulertzen dugu hobeto egokitzen dela ordenamendura, baldin eta "*eskubidearen mugak*" jarri beharrean "*eskubide hau baliatzeko mugak*" jartzen badu, kontuan hartuta arau honek ez duela eskubidea berez arautzen, baizik eta hura baliatzeko alderdi bat.

Hori dela eta, aipatu bezala aldatu da.

4. artikulua

Kultu-zentroen definizioan, antzematen da izaera definitzen duen elementu bat falta dela, alegia adieraztea "jendea hartzeko" lokalak direla, kontuan hartuta pertsona multzo handia eta mugaezina har dezaketela.

Hori dela eta, "esklusibo" hitza kendu eta "nagusiki" jarri da; izan ere, egungo idazketaren arabera, erlijio-izaerako lokal batzuk, beharbada, esklusibotasunez erlijio-jarduera ez edukitzeagatik, arautik kanpo gera litezke. Eta ez dirudi hori denik aurreproiektuaren asmoa.

Aipatutako proposamenen bidez, honela idatzita geratzen da:

"Kultu-zentrotzat hartzen da jendearentzat zabalik dauden eta nagusiki eta modu iraunkorrean kulturako, erlijio-xedeko bileretarako eta erlijio-heziketa edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren eraikin, lokal edo areto erantsiak, edozein dutelarik titulartasuna, publiko zein pribatua, baldin eta, Erlijio Askatasunari buruzko Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, berariaz halakotzat aitortu baditu dena delako elizak, konfesioak edo erlijio-elkarteak, zeinak nortasun juridikoa eduki behar baitu".

5. artikulua

Aurreko txosten juridikoaren arabera, artikulu honen edukia ez da beharrezkoa, jakina delako. Bat gatoz baieztapen horrekin; beraz, ezabatu egin dugu.

Nolanahi ere, formulazio hori badago, dagoeneko, arauaren sarreran.

6. eta 7. artikuluak

Badirudi argi dagoela gainjarri eta errepikatu egiten direla 6. eta 7. artikuluen edukiak. Horrek ez du inolako eraginik testuaren argitasunean eta kalitatean; beraz, proposatzen da 6. artikulua ezabatzea; artikulu horren edukia behar bezala jasotzen da zazpigarrenean.

Hori horrela, aurreko txosten juridikoak aipatzen zuen "6. eta 7.1 artikuluen arteko antzekotasuna", eta adierazten zuen ez zirela bi artikulu bereizi behar. Txosten horren arabera, eta gogoeta horiekin bat gatoz, seigarren artikuluan, oro har, 7.1 artikuluan zehazten denaren alde egiten da. Horrela, seigarren artikulua "*hiri-plangintzako sistemez*" ari denean, "*hiri-antolamenduko planez*" ari da, eta horri zazpigarren artikuluak egiten dio erreferentzia (hori bada termino juridiko zehatza eta espezifikoa); seigarrenean "*espazioei bide emanez*" dionean, "*espazioen erreserbaz*" ari da, zazpigarrenean aurreikusten denaz (nahiz eta zehatzagoa den "*lurzoruaren erreserba*" terminoa); eta, "*gurtzarako ekipamenduak*" dioenean seigarrenean -alderdi horretan zazpigarren artikulua ere ez da egokia- benetan "erlijiozko erabilerako ekipamendu kolektiboaz" hitz egiten da (teknikoagoa eta juridikoagoa).

Hori dela eta, ezabatu egin da 6. artikulua; izan ere uste da zazpigarrenean jasotzen dela edo bakarrik jasotzen dituela arauaren edukiari inolako ekarpenik egiten ez dioten aipamen programatikoak.

8. artikulua

Artikulu honen idazketa konplikatua eta nahasgarria da. Batez ere, lehenengo paragrafoa. Lehenengo paragrafo horretan ez da laburpenik egiten eta berriro ere kokatzen da printzipioen eremuan; beraz, artikuluen zatia, beharbada, ez da hori jasotzeko leku egokia.

Aurretiko txosten juridikoak adierazi bezala, idazketa berritu egin da, honako testu honekin:

"Erlijio-jarduerak gauzatzeko, administrazio publikoek tratu berdina emango diete erlijio-konfesio eta -elkarte guztiei, hauei dagokienez:

a) Ekipamendu eta gune publikoen erabilera pribatiborako lagapen eta baimenak.
b) Jabetza publikoen erabilera pribatiboa.
c) Bide publikoaren aldi baterako okupazioa.
d) Ondare-ondasunen lagapena.

9. artikulua

Artikulu honek kultu-zentroa irekitzeko udal-lizentzia eskuratu behar dela agintzen du.

Lehenengo eta behin, aipatu behar da artikulu honen terminologia ez datorrela guztiz bat indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean (IBLO) ezarritakoarekin. IBLOren 56. artikuluak -barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzeko apirilaren 23ko 7/2012 Legeak emandako idazketan- 2. idatz-zatian adierazten du "*Udal-lizentziari jarduera sailkatuetarako lizentzia esango zaio...*" eta 3. idatz-zatian "*Komunikazioari jarduera sailkatuari buruzko aurrekomunikazioa esango zaio*".

Hori guztia dela eta, gure ustez ez da zuzena "irekierako eta erabilerako udal-lizentzia" terminoa, aurreproiektuan erabiltzen dena; aipatutako erreformak ezarritako terminologia berrira egokitu behar da.

Udal-lizentzien (sailkatutako jarduera-lizentzia, terminologia berrian) helburua da bermatzea lokalek horietan egingo diren jarduera motei egokituta dauden baldintza teknikoak betetzen dituztela. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Organikoan daude araututa.

7. artikuluko 1. idatz-zatian jasotzen den aipamena, lizentzia emateko gehieneko epea ezartzeari eta hura isiltasun positiboaren bidez emateari buruzkoa, erredundantea eta asistematikoa izan daiteke; izan ere, epe hori dagoeneko badago IBLOren 59 bis artikuluan araututa. Erreferentzia isolatu hau, esan dugun moduan, asistematikoa da; izan ere, udal-lizentzia izapidetzeko aurreikuspenak zehatz jasotzen dituen arauketa batetik (EIBLO) atera da eta, horrela ikusita, erreferentzia isolatuak nahasketa baino ez du eragiten. Beraz, iradokitzen da aipamen hori aurreproiektuaren testutik kentzeko.

Nolanahi ere, "erlijio-erabileren" jarduera sailkatutako jarduera-lizentzia gisa jaso nahi bada, IBLOren II. eranskina aldatu behar da, eta A) letran jarduera-lizentziarako sailkatutako jarduera eta instalazioak jaso behar dira.

Zentro mota hori irekitzeko udal-lizentzia behar izateko (jarduera sailkatukoa) edo aurretiazko jarduera-komunikazioa egin behar izateko hausnarketa planteatzen dugu (IBLOren 56.3 art.); lehenengo aukera murriztaileagoa da, pertsonen eskubideetan esku-hartzeari dagokionez, eta lizentzia eskuratzeko betebeharraren helburu bera lor dezake, izaera horretako lokalen segurtasun-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Aurretiazko komunikazioak figura juridiko komunak dira, eta, kasu askotan, udal-lizentziak ordezkatzen dituzte, 2006/123/CE Zuzentarauan xedatutakoaren ildotik. Era berean, komunikazio horiek administrazio-sinplifikazioa sustatu eta, ahal den neurrian, izapidetzearen karga burokratikoa arindu nahi duten mekanismoak dira.

Barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzeko apirilaren 23ko 7/2012 Legeak, zehazki, zentzu horretan, IBLO aldatu zuen, adierazi dugun moduan, eta

jarduera sailkatuko aurretiko komunikazioa sortu eta II. eranskineko B) letran sartu zuen.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 84 bis artikulua ere aipatu behar dugu; artikuluak adierazten du, oro har, jarduerak gauzatzeko ez dela lizentziarik edo bestelako prebentzio-neurririk edo -kontrolik behar izango.

Bestalde, gure ustez Kultu Zentroei buruzko Legeak ezarri behar du, zuzenean artikuluetan edo IBLOren aldaketa baten bidez (beharbada konponbide hobea, teknika juridikoan), eta ez haren garapen-araudiak, zer lokal motak behar duen lizentzia eta zeinek aurretiazko komunikazioa.

Hori dela eta, 9. artikuluko 4. idatz-zatia ezabatu egin da; izan ere, ulertzen da gaia legearen eskumenekoa dela eta ez garapen-araudiarena, edo, beharbada, haren aldaketarena. Hain zuzen ere, 4. idatz-zati horrek ezartzen du zenbateko edukierak ezartzen duen jarduera-lizentzia lortzeko beharra edo, besterik gabe, aurretiazko komunikazioa lortzekoa.

Hori horrela, oraintsu onetsitako Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen adibidea aipatuko dugu; azken xedapenetako lehenengoaren bidez, otsailaren 27ko 3/1998 Legea (IBLO) aldatu du, eta edukieraren irizpidea ezarri du (300 pertsonatik gorakoa edo beherakoa), zehazteko lehia publikoko lokal batzuek udal-lizentzia lortu behar duten edo, besterik gabe, sailkatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa behar duten.

Hori dela eta, IBLOren aldaketa, "erlijio-erabilerak" sailkatutako jarduera gisa jasotzeko, Kultu Zentroei buruzko Legeari azken xedapenak gehituta egin daiteke.

Hirigintza-lizentziak direla eta, askorik ez dago esateko; izan ere, lege honek ez du zuzenean horietan eragiten, baizik eta orokorrean aipatzen ditu, eta hirigintzaren arloan indarrean dagoen araudira zuzentzen da.

Zalantzarik gabe, arau hau egitean, administrazio honen beste sail batzuek –batez ere hirigintzako eta ingurumeneko arloetan eskumenak

dituztenek– eta tokiko administrazioek parte-hartzeko fasean, jarduera-lizentziak emateko edo lokal mota horren aurretiazko komunikazioak jasotzeko arduradunak izanik, aukera egokia izango da horren inguruko irtenbiderik egokienaz eztabaidatzeko eta ondorioak ateratzeko.

12. artikulua

Artikulu honek aurreikusten du udalak neurriak hartu behar dituela, baldin eta kultu-zentroen arauzko baldintzak betetzen ez badira.

Gure ustez, ezin da onartu inolako salbuespen subjektiborik gai honen inguruan. Beraz, jarrera bat arau-hauste gisa tipifikatuta badago dagokion araudiaren arabera, ez du garrantzirik jakiteak zein den arau-haustea egin duen pertsona, eta, ondorioz, pertsona guztiek jaso beharko dituzte egindako arau-haustearen ondorioak, legearen aurrean berdintasun-printzipioa hausteagatiko zigorraren mende (EKren 14. art.).

Hori dela eta, 12. artikulutik kendu egin dira "zehapen-izaerarik gabeko neurrien" aipamen guztiak.

13. artikulua

Hirigintza-lizentzia behar duten egintzak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207. artikuluak eta hurrengoek arautzen dituzte.

Hori dela eta, aurreko txosten juridikoak aipatzen zuen bezala, artikulu honen 2. eta 3. idatz-zatiak kendu dira, gaia hirigintza-lizentzien araudiaren eskumenekoa delako, oro har, eta lege-proiektu honen eskumenak gainditzen dituelako.

15. artikulua

Lehenengo idatz-zatian, "irekierako eta funtzionamenduko udal-lizentzia" aipamena kendu da eta orokorrago jarri da. Adibidea: kultu-zentroen udal-lizentzia edo jarduera-lizentzia, egungo legezko terminologiarekin hobeto egokitzen delako.

16. artikulua

Aurreko txosten juridikoan aipatutakoarekin bat etorriz, lehenengo paragrafoa zehatzago geratuko litzateke honela: *"Kultu-leku eta erlijio-ekipamenduetarako erreserbatutako guneak zehazteko eta esleitzeko prozeduretan parte hartuko dute eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarteek, hirigintzaren arloko legedian jendaurreko informaziorako eta herritarren lankidetzarako aurreikusitako kasuetan eta moduan"*.

Lehenengo xedapen iragankorra

Aurreko txosten juridikoan aipatutakoarekin bat etorriz, 3. idatz-zatian akatsa zegoen, aipatutako artikuluak zazpigarrena izan behar zuelako.

Akatsa zuzendu da aurreproiektuaren zirriborro berrian.

Hirugarren xedapen iragankorra

Akats gramatikala dago gaztelaniaz "... sarbide publiko kultu-zentro" dioen lekuan; izan ere, "...sarbide publiko**ko** kultu-zentro" esan behar du.

Akatsa zuzendu da aurreproiektuaren zirriborro berrian.

Laugarren xedapen iragankorra

Gure ustez, xedapen honetan ezarritako egokitzapen-epea luzeegia da, baldin eta kontuan hartzen badugu pertsonen segurtasunean eragina duten neurriak direla. Gainera, "vacatio legis" hau Legea garatzen duen araudia indarrean sartzearen mende geratuko da.

Hori dela eta, idazketa berria eman zaio, eta murriztu egin da egokitzapen-epea. Epe hori araudia indarrean sartzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen; izan ere, araudia da, lege-gaikuntzarekin, egoera berrira egokitzeko urte kopurua zehazten duena.

Honako testu hau proposatzen da:

"Lege hau indarrean sartzean 10. artikuluan aipatzen diren eta araudian ezarriko diren gutxieneko eskakizun material eta teknikoak betetzen ez dituzten kultu-zentroek, gehienez ere, garapen-arautegian horietara egokitzeko ezartzen den denbora izango dute horretarako. Epe hori ezin izango da 4 urte baino luzeagoa izan".

III.- IZAPIDETZEA

Lege-aurreproiektua izapidetzeko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

Emandako testua aztertu ondoren, hau da eman den txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste baten mende geratzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren (a)

Luis Alberto Oribe Novales
Araubide Juridikoaren Zuzendaritza

V

INFORME DEL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO / GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA

PROYECTO DE LEY DE LUGARES, CENTROS DE CULTO Y DIVERSIDAD RELIGIOSA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO / EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTU-LEKUEI EDO -ZENTROEI ETA ERLIJIO-ANIZTASUNARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA

INFORME JUSTIFICATIVO DE LA AUSENCIA DE RELEVANCIA DESDE EL PUNTO DE VISTA DEL GÉNERO

DESCRIPCIÓN GENERAL DEL PROYECTO DE NORMA O PROPUESTA DE ACTO ADMINISTRATIVO

1.– Indicar la denominación del proyecto de norma o propuesta de acto administrativo:

Anteproyecto de Ley de Centros de Culto.

2.– Indicar el Departamento y la Dirección que lo promueve:

Secretaría General para la Paz y la Convivencia – LEHENDAKARITZA.

3.– Señalar, en su caso, otras normas, planes, etc. relacionados con el proyecto o propuesta:

- Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

4.– Exponer los objetivos generales del proyecto de norma o propuesta de acto administrativo:

El objetivo del actual anteproyecto de Ley, consiste en garantizar que los planes de ordenación urbana contemplen reservas de suelo para equipamientos colectivos de uso religioso, así como fijar las condiciones técnicas y materiales para la apertura y utilización de espacios destinados al culto u otra finalidad religiosa.

JUSTIFICACIÓN DE LA AUSENCIA DE RELEVANCIA DESDE EL PUNTO DE VISTA DEL GÉNERO

5.– Indicar los motivos por los que se considera que el proyecto de norma carece de relevancia desde el punto de vista del género:

El anteproyecto de Ley tiene un carácter esencialmente organizativo, limitándose a establecer, de acuerdo con las previsiones contenidas en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, las medidas necesarias para que las Administraciones competentes del País Vasco establezcan en los correspondientes instrumentos de ordenación urbanística las reservas de suelo necesarias, así como, las condiciones técnicas y materiales exigibles para la apertura y utilización de espacios destinados al culto u otras finalidades de naturaleza religiosa.

En este sentido, no le es exigible la realización del Informe de Impacto en Función del Género, ya que le es de aplicación la excepción prevista en el punto a) del apartado 2 de la Primera de las *Directrices para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres*, aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 13 de febrero de 2007.

Únicamente cabe destacar, en atención a lo establecido en el artículo 23 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, que el anteproyecto de Ley no incluye en su artículo 14 una referencia expresa para la promoción de una presencia equilibrada de mujeres y hombres en la Comisión de carácter consultivo que se creará como órgano de diálogo y colaboración institucional con las diferentes confesiones y comunidades religiosas, al considerar no recomendable reiterar el enunciado de la Ley al que hace alusión (conforme a las indicaciones del Servicio Jurídico de Emakunde). Sin embargo, esta cuestión será atendida ineludiblemente con la puesta en marcha de la norma.

Por otro lado, en el anteproyecto de Ley, se ha realizado una adecuación de los términos enunciados exclusivamente en masculino para hacer un uso no sexista del lenguaje conforme al artículo 18.4 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero.

En términos generales, la norma actual garantiza el cumplimiento a lo previsto en los artículos de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres en los que tiene incidencia.

Vitoria-Gasteiz, 18 de febrero de 2016

Fdo.: Amaia Uribe Villar
Unidad Administrativa para la Igualdad
LEHENDAKARITZA

GENEROAREN IKUSPEGITIK GARRANTZIRIK EZ IZATEA JUSTIFIKATZEN DUEN TXOSTENA

ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZARAKO PROPOSAMENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1.– Adierazi arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren izena:

Kultu-aretoen Legearen aurreproiektua.

2.– Adierazi sustatzen duen sailaren eta zuzendaritzaren izena:

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia – LEHENDAKARITZA.

3.– Adierazi, hala badagokio, proiektuari edo proposamenari lotuta dauden beste arau edo plan batzuk:

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa.
- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duena.

4.– Adierazi proiektuaren edo proposamenaren helburu orokorrak:

Legearen aurreproiektu honen helburua da hirigintza-antolamenduko planek erlijio-erabilerarako talde-ekipamenduak gordetzen dituztela bermatzea, baita kultu-erabilerarako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko baldintza tekniko eta materialak ezartzea ere.

GENEROAREN IKUSPEGITIK GARRANTZIRIK EZ IZATEA JUSTIFIKATZEA

5.– Adierazi arau-proiektuak generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duela irizteko arrazoiak.

Legearen aurreproiektuak funtsean antolaketa-izaera du eta, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aurreikusitakoaren arabera, zenbait neurri hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eskudunek beharrezkoak diren lurzoru-erreserbak ezar ditzaten hirigintza-antolamenduko bitartekoetan, eta kultu-erabilerarako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko ezinbestekoak diren baldintza tekniko eta materialak ezar ditzaten.

Ildo horretan, proiektuari ez zaio egin behar Generoaren araberako Eraginaren txostena, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko otsailaren 13ko Erabakiaz onartutako jarraibideetako lehenaren 2 atalaren a) puntuan aurreikusitako salbuespena aplikatu dakiokeelako; generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ezabatu eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeko jarraibideak dira horiek.

Zerbait nabarmentzekotan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, adierazi behar da legearen aurreproiektuak ez duela berariaz aipatzen emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eta erlijio-konfesio eta -elkarteen arteko elkarrizketarako eta lankidetza instituzionalerako organo izateko sortuko den aholku-batzordean, iritzi baitzaio ez dela gomendagarria aipatzen duen legearen enuntziatua errepikatzea (Emakunderen Zerbitzu Juridikoak adierazitakoaren arabera). Dena den, araua abiarazten denean erantzungo zaio ezinbestean gai horri.

Legearen aurreproiektuan, bestalde, egokitu egin dira maskulinoan soilik ageri diren terminoak, hizkera ez sexista erabiltzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikuluaren arabera.

Oro har, oraingo arauak bermatzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen artikuluek eragiten diotenean betetzen duela.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 18a

Izpta.: Amaia Uribe Villar
Berdintasunerako Administrazio Unitatea
LEHENDAKARITZA

ANEXO I A LAS DIRECTRICES
INFORME DE IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO

DESCRIPCIÓN GENERAL DEL PROYECTO DE NORMA O PROPUESTA DE ACTO ADMINISTRATIVO

1.– Indicar la denominación del proyecto de norma o propuesta de acto administrativo:

ANTEPROYECTO DE LEY DE LUGARES, CENTROS DE CULTO Y DIVERSIDAD RELIGIOSA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

2.– Indicar el Departamento y la Dirección que lo promueve:

Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación – Lehendakaritza:

- Dirección de Víctimas y Derechos Humanos.

3.– Señalar, en su caso, otras normas, planes, etc. relacionados con el proyecto o propuesta:

- Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020.
- Ley vasca 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo.
- Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local.
- Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.
- Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa.

4.– Exponer los objetivos generales del proyecto de norma o propuesta de acto administrativo:

El objeto de la presente ley es proteger la convivencia y la diversidad religiosa de nuestra sociedad, establecer mecanismos de diálogo y acuerdo para una gestión positiva de la misma y garantizar, en relación con la apertura y utilización de centros de culto, el ejercicio del derecho fundamental a la libertad religiosa de las personas y de las diferentes iglesias, confesiones y comunidades religiosas, todo ello sin que pueda producirse ninguna discriminación entre las mismas.

5.– Exponer los objetivos para promover la igualdad de mujeres y hombres:

De forma explícita, el anteproyecto de ley no recoge ningún objetivo relacionado con este fin.

Debido a la naturaleza de la norma, sus objetivos no están dirigidos a promover la igualdad de mujeres y hombres.

EVALUACIÓN PREVIA DEL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO

6.– ¿Se prevé que la presencia de mujeres y hombres en los beneficios o resultados derivados de la futura norma o acto administrativo contribuya a la disminución de las desigualdades en el sector?

Es importante destacar que no existen antecedentes con respecto a esta norma, y por lo tanto, su

posible incidencia en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres.

Para poder realizar una valoración aproximada con el fin de conocer la presencia de mujeres y hombres en los beneficios o resultados derivados de este anteproyecto de ley, se deberían tener en cuenta varias cuestiones:

- Por un lado, personas destinatarias que tiene el proyecto, es decir todas las ciudadanas y ciudadanos como potenciales personas usuarias del espacio público a regular.
- Por otro lado, las administraciones públicas como encargadas de la determinación y asignación del suelo destinado a usos religiosos aplicando la legislación urbanística autonómica vigente.
- Finalmente, la composición del Consejo Interreligioso vasco.

7.– ¿Se prevé que la futura norma o acto administrativo produzca la eliminación o, al menos, una disminución de las desigualdades en cuanto al acceso a los recursos?

El acceso a determinados recursos condiciona notablemente la manera en que mujeres y hombres viven y disfrutan las ciudades donde habitan. La planificación urbana ha de repensarse desde una visión integradora que sea capaz de englobar a todos los colectivos que habitan en ella según sus características y necesidades para así crear espacios igualitarios de desarrollo.

A continuación se describen las principales diferencias en el acceso a los siguientes recursos, que determinan la diferente posición de hombres y mujeres en el espacio urbano:

1. **El impacto de los roles de género, del trabajo no remunerado, y de la división sexual del trabajo en el uso diferenciado de la ciudad por hombres y mujeres.**

Las personas tienen distintas necesidades y aspiraciones en relación al territorio y al espacio urbano derivadas de los roles de género que asumen en su vida cotidiana. Dos conceptos claves para ello son el de trabajo no remunerado y el de división sexual del trabajo. El trabajo no remunerado, o de cuidado, se refiere a las tareas realizadas en la esfera privada y sin compensación económica por personas adultas para el cuidado de menores y mayores dependientes y para el mantenimiento del hogar. La división sexual del trabajo se refiere a la atribución social de tareas diferentes a las personas en base a su sexo. Estadísticamente, la mayor parte del trabajo de cuidado no remunerado es asumido por mujeres.

Los datos de las encuestas de uso del tiempo muestran un uso diferenciado del tiempo entre hombres y mujeres que se deriva de los roles de género que asumen en sus vidas cotidianas. El tiempo que las mujeres dedican a algunas de las tareas domésticas sigue siendo superior al dedicado por los hombres:

Tabla 3.49. Población ocupada por horas diarias dedicadas a actividades del trabajo doméstico. CAE 2016 (horas)

	TOTAL	MUJERES	HOMBRES	Dif. H-M
Tareas del hogar	1,6	2,0	1,2	-0,8
Cuidado de hijas/os menores	4,0	4,7	3,3	-1,4
Cuidado de personas dependientes	1,9	2,7	1,1	-1,6

Fuente: Cifras 2017. Mujeres y Hombres en Euskadi. EMAKUNDE

Las mujeres se hacen cargo de la mayor parte de las llamadas tareas de cuidado, es decir, aquellas labores vinculadas al cuidado del hogar, de los hijos e hijas, de los familiares enfermos y mayores, mientras que los hombres asumen todavía poca parte de esa tarea.

Las estadísticas muestran una pequeña evolución en la atribución de roles de género diferenciados a hombres y mujeres: se aprecia un ligero incremento de la asunción de tareas vinculadas a la reproducción social por parte de los hombres, aunque este incremento es pequeño. Sin embargo, en el ámbito del empleo, se observa un incremento sostenido de la participación femenina, de tal manera que ya son minoría las mujeres que no desempeñan una actividad en el sector productivo.

Tabla 3.4. Evolución de la tasa de ocupación de la población de 16 y más años por sexo y periodo. CAE 1990-2016 (%)

9. Xedapen-zatian, 1. artikuluak arauaren xedea adierazten du: gure gizarteko elkarbizitza eta erlijio-aniztasuna babestea; elkarrizketa eta akordiorako mekanismoak ezartzea; eta kultu-zentroak ireki eta erabil daitezela bermatzea, oinarrizko eskubidea baliatzeko.

10. 2. artikuluak bi eduki ditu.

11. 1. apartatuak legea inspiratzen duten printzipioak adierazten ditu: (i) erlijio-askatasunerako eskubidea indibidualki eta era kolektiboan baliatzeko bermea eraginkorra izatea; (ii) tratu-berdintasuna bermatzea erlijio-komunitate eta -konfesioen artean, kultu-zentroak irekitzeko eta funtzionatzeko; (iii) zentro horien segurtasun- eta osasungarritasun-baldintza optimoak bermatzea; (iv) eta pertsonek eta eliza, erlijio-konfesio eta -komunitate desberdinek kultu-tokiak izateko eskubidea izatea.

12. 2. apartatuak, legearen ondoreetarako, definizio bat du, eskubidea baliatzeko zuzeneko eta zeharkako diskriminazio gisa zer ulertu behar den jakiteko.

13. Aplikazio-eremua ezartzen du 3. artikuluak. Positiboan, 1. apartatuan adierazten dira erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren aplikazio-eremuko kultu-toki eta -zentroak, eta aldi baterako erlijio-jarduera batera bideratzen diren tokiak eta ekipamenduak. 2. apartatuak, negatiboan, kanpoan uzten ditu ospitaleetan, eskoletan, hilerrietan, beilatokietan eta antzekoetan dauden kultu-tokiak eta -zentroak, baita beste jarduera nagusi batzuetarako diren tokiak ere, eta EAEko Kultura Ondarearen Inbentarioan daudenak (3. apartatua).

14. 4. artikuluak kultu-tokia eta -zentroa hiru elementuren arabera definitzen du: (i) Jendea biltzen den titulartasun publiko edo pribatuko eraikina, lokala edo areto erantsia; (ii) kultua praktikatzera, bilerak egitera, prestakuntza eskaintzera edo erlijio-asistentziara bideratuta dagoena era iraunkorrean; (iii) eta nortasun juridikoa duen elizaren, erlijio-konfesioaren edo -komunitatearen berariazko aitorpena duena.

15. Lehenengo kapituluan (kultu-askatasuna hirigintza-antolamenduaren esparruan), 5. artikuluak hizpide du erlijio-helburuetarako titulartasun publikoko ekipamendu edo tokien aldi baterako edo noizbehinkako erabilera, eta hori erlijio-konfesio eta -komunitate guztiei berdintasunezko tratua emateko printzipioaren mende jartzen du.

16. 6. artikuluan lantzen da Hiri Antolamenduko Plan Berezietan behar beste toki erreserbatzeko zehaztapena, horiek kulturako eta erlijio-asistentziarako toki gisa erabil daitezen. Erreserbatutako tokien inguruko erabakia hartu eta esleipena egingo da, eskubidea baliatzean ez zuzenean ezta zeharka ere diskriminaziorik sortzen ez duten irizpideen arabera. Udalek zehaztuko dituzte kokalekuak, interes orokorra babestuz eta

elkarbizitza eta kohesio soziala sustatuz, eskubide hori baliatzea errespetatzen duten erabakiekin. Elizek, erlijio-konfesioek eta -komunitateek kultu-tokietarako erreserbatutako tokiak zehaztu eta esleitzeko prozeduran parte hartuko dute. Prozedura horretan, indarrean dagoen hirigintza-legeria aplikatuko da.

17. Bigarren kapituluan (Kultu-aretoak irekitzeko hirigintza-lizentzia, komunikazioa eta beste baimen batzuk), 7. artikuluak kultu-tokiak eta gainerako erlijio-ekipamenduak hirigintza-lizentzien araubide orokorraren mende jartzen ditu, eraikitzeko, egokitzeko eta irekitzeko obretarako.

18. 8. artikuluak adierazten du jendea biltzen den kultu-toki edo -zentro berri bat irekitzea toki-administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunari buruzko, abenduaren 27ko 27/2013 Legearen mende dagoela, baita EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen mende ere.

19. 9. artikuluak xedatzen du, kultu-toki eta -zentroetan erlijioaz bestelako jarduerak gauzatzen badira, aplikatu beharreko baimenak izan beharko direla.

20. 10. artikuluak 1. apartatuan zehazten du kultu-toki eta -zentroek behar diren baldintza tekniko eta materialak izan behar dituztela pertsonen segurtasuna eta instalazioen higienea bermatzeko, eta hirugarrenei eragozpenik ez eragiteko. Baldintza horiek inolako kasutan ezingo dute era arbitrarioan eragotzi edo zaildu zentro horietako jarduera.

21. 2. apartatuak erregelamendura igortzen du hauen guztien baldintza tekniko eta materialak ezartzeko: segurtasuna, osasungarritasuna, irisgarritasuna, babes akustikoa, edukiera eta ebakuazioa bermatzeko eta hirugarrenei eragozpenik ez eragiteko.

22. 11. artikuluak kultu-toki eta -zentroak irekitzeko baldintzak ez betetzearen aurkako neurriak jasotzen ditu.

23. 1. apartatuak xedatzen ditu itxiera, hustea edo erlijio-eskubidea edo -jarduera baliatzen jarraitzea eragozten duen edozein neurri, baldin eta lokalek ez badute lizentzia eskatu edo ez badute aurretiazko jakinarazpena egin, hirigintza-lizentzien edukia ez badute bete edo ezarritako arau tekniko eta materialak urratzen badituzte. Prozedura jaso da: errekerimendu bat, aurretiazko entzunaldia eragiten dion erakundeari, eta akatsak zuzentzeko epe bat emateko aukera. Epe hori amaitu ondoren, itxi egingo da. 2. apartatuan xedatzen da lokalaren itxiera instalazioen zati bat zigilatzearekin ordezteko aukera, eta 3. apartatuan gogoratzen da neurriek ez dutela zehapen-izaera, alde batera utzi gabe izan daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

24. Hirugarren kapituluan (EAEko Erlijioen Arteko Kontseilua sortzea) 12. artikuluak 1. apartatuan kontseilu horren sorrera arautzen du. Kontseilu hori autonomia-erkidegoko

elkarrizketa- eta lankidetza-organo instituzional gisa eratuko da erlijio-konfesio eta -komunitate desberdinekin, eta bere helburua izango da erlijioen eta kulturen arteko elkarbizitza zaindu eta sustatzea, erlijio-pluraltasuna errespetatuta.

25. 2. apartatuak aholkatu eta txostenak egiteko duen funtzioa deskribatzen du: «Euskal Instituzioen eta EAEko Eliza, Erlijio Konfesio etaKomunitateen ekimen edo erabakietan, betiere horiek era espezifikoan eragin badiezaieke erlijio- eta kultu-askatasunari.»

26. 3. apartatuan kideak identifikatzen dira: hiru maila instituzionalak, elizak, erlijio-konfesioak eta -komunitateak, eskumen aitortua duten pertsonak eta legea aplikatzeko interes gaitua duten herritarren beste elkarte batzuk.

27. 4. apartatuak erregelamendura igortzen du Kontseiluaren eraketa, funtzioak eta funtzionamendu-arauak zehazteko, eta gogoratzen du Kontseilua eratzen denean emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekatua sustatuko dela.

28. 13. artikuluak Kontseiluaren aholkularitza-funtzioak adierazten ditu.

29. Amaierako zatian, lehenengo xedapen gehigarrian, Egoitza Santuarekiko eta beste elizekiko, erlijio-konfesioekiko eta erlijio-elkarte batzuekiko akordioak aipatzen dira.

30. Bigarren xedapen gehigarria erlijio-erakundeen estatuko erregistroan inskribatu izana egiaztatu beharrari buruzkoa da.

31. Lehenengo xedapen iragankorrak ezartzen du zer eratara egokitu behar diren udaletako hirigintza-antolamenduko planak lege berrira.

32. Bigarren xedapen iragankorra kultu-toki eta -zentroetako baldintza tekniko eta materialak egokitzeko aldiari buruzkoa da.

33. Azken xedapenetatik lehenak Eusko Jaurlaritzari baimena ematen dio erregelamendua garatzeko.

34. Azken xedapenetatiko bigarrenak arautzen du Legea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hogei egunera sartuko dela indarrean.

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

35. Irizpen hau Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1. artikulua betez ematen da, non a) apartatuan, Batzordearen aholkulari funtzioaren esparruan, «Legearen aurreproiektuak, edozein izanik ere haietako gaiak eta helburuak» jasota dauden, eta kontsulta egiten duena ez dago apartatu horretan zehaztutako salbuespenen artean.

GOGOETAK

I ERATZE-PROZESUA

36. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legea (aurrerantzean, XOEPL) da egiaztatze-parametroa, irizpenaren xede den testua egiteko prozesua aztertzeko.

37. Halere, zehaztu behar da, Batzorde honek adierazi duen bezala (guztien eredu, 76/2004 Irizpena), lege-testu horrek ezartzen duela prozedura-bide bera erregelamenduak egiteko ekimenentzat eta lege-aurreproiektuentzat. Dena den, araubideko antzekotasuna alderdi horretara soilik mugatzen da. Izan ere, lehenengoen oinarria eta muga jatorriko legeetan dago, eta bigarrenak, aitzitik, ez daude lotura zorrotz horren mende.

38. Gobernuak legegintza-ekimena eta erregelamendu-ekimena baliatzean egiten duen erabateko desberdintasuna Konstituzio Auzitegiko maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak (KAE) aztertu du. Bertan, berriz ere hau gogoratu da: «Autonomia-estatutuek legegintza-ekimena autonomia-gobernuei aitortzen diete, eta ez beren administrazioei. Erregelamendu-ahala ere Gobernuari dagokio, baina ahal horrekin gertatzen ez den bezala, eskumen hori egikaritzea Gobernuak parlamentu-ganberekin dituen harremanen eremuan txertatzen da. Lege-proiektuak egiteko eta onartzeko prozedura autonomia-gobernuari funtzio legegilean parte hartzea, eta, beraz, bere politika publikoak lege-maila duten arauen bitartez arautzea ahalbidetzen dion bidea da».

39. Desberdintasun horren arabera, ibilbidearen hasieratik (39/1999 Irizpena), Batzordeak azpimarratu ditu eite desberdinekoak direla bere esku-hartzeak, kontsulta-eginkizuna gauzatzen duen kasuan kasuko xedearen arabera (lege-mailako arau-proiektuak, erregelamendu-mailakoak, administrazio-egintzak, etab.).

40. Lege-aurreproiektuei dagokienez, beren espezifikotasuna ikus daiteke legegilea ez dela ondorengoetan jasotako xedapenen gauzatzaile huts bat, nahiz eta ordenamendu-maila gorenen mende egon, esaterako, Konstituzioaren (EK) eta Euskadiko Autonomia Estatutuaren (EAE) mende, baizik eta osaera-askatasuna izenekoa duela, eta hori baliatzen duela balorazio politikoen arabera («legegileak ez du Konstituzioa gauzatzen, baizik eta zuzenbidea sortzen du askatasunez Konstituzioak eskaintzen duen esparruaren barnean; aldiz, erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, Konstituzioaren eta Legeen (EK 97. art.) arabera jarduten da» (besteak beste, KAE 209/1987, abenduaren 22koa).

41. Lege-aurreproiektuek, beraz, «zuzenbidea sortzeko moduari» buruzko aukera handiagoa ematen dute, eta, Batzordeak esku hartze aldera, hori izango litzateke bere funtzioa dela-eta beste produktu arauemaile batzuetan egiten duen interpretazioa baino interpretazio mugatuagoa egitea, lege guztien dimentsio politikotik etortzen diren muga guztiak errespetatzeko, herriaren borondatea adierazteari dagokionez.

42. Hortaz, lege-aurreproiektuak aztertzerako orduan, Espainiako Konstituzioan, Euskadiko Autonomia Estatutuan edo lege organikoetan aparteko izapide espezifikoren bat xedatu dela salbu (KAE 35/1984, martxoaren 13koa edo KAE, 176/2011, azaroaren 8koa) hura egiteko jarraitu den bidearen balioztapena ez da erregelamenduen kasuan egin beharreko balioztapen bera. Azken horietan, adibidez: interes publikoen entzunaldirik edo parte-hartzerik ezak, nahitaezko txostenik ezak, etorkizuneko arauaren baliozkotasuna baldintza dezake. Lege-aurreproiektuen kasuan, aldiz, ez da hori gertatzen. Izan ere, aipatutako kasuetan soilik eragin diezaioke baliozkotasunari, baita txosten-gabeziak parlamentuaren borondatea mugatzen duen kasuetan ere (guztien eredu, KAE 108/1986, ekainaren 28koa).

43. Funtsezko desberdintasun hori dela eta, Batzordearen lege-aurreproiektuak egiteko prozeduren azterketak, bereziki, lagunduko du proiektatutako erregulazioa egokia den ala ez zehazten; alegia, arrazoizkoak diren ala ez. Arrazoizkoa izateak esan nahi du erabilgarria dela helburuak lortzeko, eta erregulazioaren zuzentasunari begira ere lagungarria dela.

44. Lege-aurreproiektuei dagokienez, kontsulta-funtzioaren aurreko espezifikotasunak ez du saihestu Batzordeak oharrak egitea aurreproiektua egiteko prozedurari eta bere memoriari buruz, kontsulta egin duen organoarekin batera elkarlanean jarduteko asmo soilarekin, eta aurreproiektua hobetze aldera. Baina beti ahaztu gabe, kontsulta egin duen organoaren egite-prozeduraren balorazioa ez dela sartzen testuaren balioztatze juridikoaren arloan eta ez duela uzten sortzen amaierako produktu arauemailearen konstituzionaltasunarekiko eragozpenik.

45. Hasierako ohar hau egin ondoren, irizpena egingo zaion testua lortzeko jarraitutako prozedura aztertuko dugu.

46. Prozedurari esker (bereziki, izapidean zehar egindako hainbat memoriari esker) ekimenaren arrazoi nagusiak ezagut daitezke. Horiek laburbiltzeko adieraz daiteke, helburua dela autonomia-erkidegoari lege bat eskaintzea gero eta handiagoa den erlijio-pluraltasunari erantzuteko eta EAEko erakundeek errealitate horretara egokitutako kultu-zentro eta -tokien irekiera kudeatzera bideratutako tresna juridiko bat izateko, jarduera horren erlijio-askatasunari (EK 16. artikulua) dagokion oinarrizko eskubidearekin bat. Xede zehatz hori etorkizuneko arauaren helburu zabalagoan –1. artikuluan aipatu da– kokatu behar da. Bere helburua da elkarbizitza eta erlijio-aniztasuna babestea, eta elkarrizketa eta akordiorako mekanismoak ezartzea aipatutako oinarrizko eskubidea baliatzeko (hala indibidualki nola kolektiboki).

47. Memoriek ez daukate informaziorik abiapuntu gisa kontuan hartutako eta arauak eragingo dion errealitateari buruz. Horri buruzko aipamen batzuk daude genero-inpaktua ebaluatzera bideratutako izapideetan. Horietan hau aitortzen da: «EAEko errealitate sozio-erlijiosoari buruzko ezjakintasun orokorra dago». Horrek barnean hartzen ditu

«hala erlatiboki berria den errealitate honen presentzia sozialarekin erlazionatutako gaiak nola administrazio publikoaren estamentu desberdinek egindako onarpen formaletik eratorritako bestelako alderdiak».

48. Adierazten da, era berean, Erlijio Aniztasunaren Behatokiaren arabera, EAEn 271 kultu-toki daudela, eta adierazten da, batetik, nolabaiteko ezjakintasuna dagoela erlijio-erakundeen izaera juridikoari buruz, batez ere, Erlijio Erakundeen Erregistroko inskripzioari dagokionez, eta, bestetik, «detektatzen da ez dagoela parte hartzeko tokirik, ezta erlijio-erakundeen ordezkaririk ere (beren ordezkariak edo beste erakunde sozial batzuen ordezkariak), administrazio publikoarekin elkarrizketan aritzeko, izan propioak edo orokorragoak».

49. Aipatzen da, halaber, «Atzerritarrekiko pertzepzioak eta jarrerak» atalean—Ikuspegi 2018ko Barometroa—, «elkarbizitza-ereduei eta dibertsitate-kudeaketari dagokienez, EAEko gizarteak aldekoa izaten jarraitzen duela, baina orientazio asimilazionista argiarekin. Aniztasuna onartzen da, eta aberasgarritzat jotzen da, baina egin beharreko ahaleginari dagokionez, partekatua izan behar duela uste den arren, ahalegin handiena migratzaileek egin behar dutela pentsatzen da, argi eta garbi. Baieztatzen da EAEko gizarteak ez duela uste bere bizimodua arriskuan jartzen dutenik migratzaileen erlijio-praktikek (hala uste zuen % 69,5ek 2018an; 2017an, % 53,1ek).»

50. Iturri berdinaren arabera: «2008. eta 2018. urteen arteko migratzaileen kultura-jarraibideekiko tolerantzia-mailari dagokionez, hobetu egin da agerikoenak diren kultura-jarraibideen kasuan, hau da, jatetxeak eta dendak irekitzearen kasuan. Dena den, tolerantzia-maila txikiagoa da multikulturalismoak berezkoak dituen elementuetan sakontzen denean, esate baterako, migratzaileek beren usadio-ohiturak agertzen, jaioterriko jantziak janzten, beren erlijioak praktikatzeko tenpluak eraikitzen dituztenean.».

51. Herritarrek, ekimenak gehienbat eragiten dien erakundeek eta administrazioek egite-prozesuan parte-hartzeari dagokionez, espedienteak adierazten du eragiten dien administrazioek parte-hartze handia izan dutela.

52. Ildo horretan, nabarmentzekoa da EUDELen parte-hartzea; izan ere, bere alegazioei era arrazoituan erantzun zaie, eta gehienak onartu dira. Ondorioz, aurreproiektuaren testuan aldaketak egin dira.

53. Era berean, tokiko interesak ekimenean duen presentzia handia denez, Tokiko Gobernu Batzordeak esku hartu du [Euskadiko tokiko erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) 91. artikulua]. Hala, aurreproiektua aztertu ondoren, ondorioztatu du ez dela eragiten toki-autonomian, ezta udalerrien eskumenetan ere. Hori dela eta, ez da beharrezkoa baliabideak ezartzeko eranskin espezifikorik (ETEL 18.3. artikulua).

54. Halaber, Eusko Jaurlaritzako sailen irizpidea jaso da, haien eskumenak zuzenean erlazionatuta baitaude ekimenarekin. Bereziki hartu da kontuan Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren irizpidea, aurreproiektuak eragin nabarmena duelako

hirigintzan eta ingurumenean. Prozeduraren bi unetan egindako oharrak organo sustatzaileak aztertu ditu eta testuan aldaketak eragin ditu.

55. Ekimena herritarren parte-hartzeari irekitzeari dagokionez, jendaurreko informazioaren izapidea egin dela jaso da. Izapide horretan zehar, herritar batek eta Bilboko apezpikuak iritzia eman zuten. Hala, azken honek alegazioen idazki bat aurkeztu zuen eta, bertan, EAEko hiru elizbarrutien iritzia adierazi zuen.

56. Ez da jaso jendaurreko entzunaldi-izapidea egin denik (XOEPL 8. artikulua), zeinen eremu subjektiboa, zentzua eta helburua bereizi egiten diren jendaurreko informazioarekiko (guztiak ordeztuz, 186/2018 Irizpena) eta aukera baliotsua izango zen Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten elizen, erlijio-konfesioen eta -komunitateen iritzia ezagutzeko.

57. Ekimenaren azterketa juridikoak aurreproiektuak sortzen dituen gai garrantzitsuak aztertzen ditu. Organo sustatzailearen aholkularitza juridikoak egindakoari espezifiko bat erantsi zaio, Estatutuaren Garapenerako Zuzendaritzak egindako etorkizuneko arauaren eskumenei buruzkoa.

58. Organo sustatzaileak, adierazitakoaren arabera, generoaren araberako inpaktu-txosten bat egin du emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoa betez eta generoaren araberako inpaktuaren jarraibideak, 2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluaren akordioaren bidez horretarako onartutakoak, betez.

59. Emakundek aipatutako 4/2005 Legea betetzen dela egiaztatzeko txostena igorri du, eta positiboki ondorioztatzen du, testuan hizkuntza ez-sexista erabiltzen dela eta gomendatzen du EAEko Erlijioen Arteko Kontseiluak gizonen eta emakumeen presentzia parekatua izatea. Horrez gain, uste du Kontseilu horrek izan beharreko funtzioetako bat dela erlijio-preskripzioaren edo -praktikaren aitzakian emakumeen aurkako indarkeria-ekintzak saihestea.

60. Egite-espedientean, era berean, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena dago. Txosten horretan egiaztatu du etorkizuneko arauan hizkuntza-araudia errespetatzen dela eta bere idazketan betetzen dela arau-proiektuen idazketa elebidunari buruzko 2013ko maiatzaren 14ko Gobernu Akordioa.

61. «Inpaktu ekonomikoaren» balorazioari dagokionez (XOEPL 10.3. artikulua), Batzorde honek adierazi duen bezala, proiektu bakoitzaren eduki zehatzarengatik eskatu behar da, prozedurak duen alderdi materiala ulertuta ondoriozta daitekeen bezala.

62. Kasu honetan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenak ondorioztatzen du EAEko ogasun orokorraren gaietan izan dezakeen eragina hautemanezina dela, eta proiektuak

ez diola eragingo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari finantzaketa handiagoa eskatzen duen zuzeneko betebehar ekonomikorik, eta ez duela gastuaren alderdietan zuzenean eragingo. Faltan dago, baina, ebaluazio ekonomikoa; hau da, antolamendu-alderdien eta partikularrei, ekonomia orokorrari eta beste administrazio batzuei (zehazki, udalerriei gastuak sortzea) araudia aplikatzeak izan dezakeen inpaktuaren ebaluazio ekonomikoa.

63. Alderdi horiek zuzentzeko, organo sustatzaileak memoria ekonomiko bat egin du, eta, bertan, beste administrazio batzuetan izango duen inpaktu ekonomikoari buruz hau adierazten du: «Zaila da EAEko udalerri guztietan eta bakoitzean sor daitezkeen gastuen azterketa bat egitea, aurrez ez bada egin EAEko udalerrietan hainbat eliza, erlijio-konfesio eta -komunitatek duten egoerari eta beren beharrei buruzko diagnostikorik». EAEko Erlijioen Arteko Kontseilua sortzeak izan dezakeen eragin ekonomikoari dagokionez, uste da Kontseiluaren eraketa, funtzioak eta funtzionamendu-arauak arautzen dituen erregelamendua egitean aztertuko dela.

64. Azkenik, amaierako memoria bat dago espedientean, eta bertan azaltzen da zer egite-bidea beteko den, XOEPLen 10.2., 10.3 eta 12.2. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

II KONSTITUZIOAREN ETA ESTATUTUAREN ESPARRUA

A) Planteamendua

65. Aurreproiektuaren helburua da, adierazitakoaren arabera, elkarbizitza eta erlijio-aniztasuna babestea. Helburu horrekin, araubide bat ezartzen du kultu-toki eta -zentroak irekitzeko eta erabiltzeko, erlijio-askatasunerako oinarrizko eskubidea baliatzeko berme gisa, eta EAEn jarduten duten erakundeak eta erlijio-konfesioak eta -komunitateak elkarlanean aritzeko gune iraunkor bat sortzen du.

66. Ekimenak erlijio-askatasunarekin duen lotura horrek aurreproiektuaren azterketa bereizten du. Printzipioz, oinarrizko eskubideak baliatzea arautzen duten legeen kategoriara birbidera daiteke. 2/2002, 24/2003 irizpenetan gertatu zen bezala, baldintza hori dela eta, aurreproiektuaren esparru juridikoa aztertzen hasi behar da erlijio-askatasunerako eskubidearen konstituzio-edukiarekin, zeren eduki hori –konstituzio-ordenamenduarekin bat (EK 53.1. artikulua)– gainditu ezin den muga bat baita legegile arrunt eskudunarentzat (izan estatukoa izan autonomiakoa).

67. Horregatik, lehenik, erlijio-askatasunerako eskubidearen eiteak aztertzen dira; horretarako, kontuan hartzen ditugu doktrina zientifikoaren iritziak, baina batez ere –Batzorde honen irizpenetan nahitaezkoa baita– horretarako egindako konstituzio-doktrina, zeren deskribapenaren (eta ondorengo mugaren) helburua ez baita –irizpen honen xedea gainditzeagatik– oinarrizko eskubide horri buruzko doktrina-azterketa bat

egitea, baizik eta soilik adieraztea aurreproiektua aztertzeko balioko digun ezagutza teorikoa eta Batzordeak hori aztertzean egiten dituen gogoetak funtsatzea.

68. Jarraian, zer eskumen-koordenatu dauden aztertuko ditu irizpenak , baita aurreproiektua eskumen-banaketara egokitzen den ere. Azkenik, gogoetaren bat eta lege-teknikari buruzko artikuluak aztertu dira.

B) Erlijio-askatasuna.

69. Konstituzioak 16. artikuluan erlijio-askatasuna onartzen du, baldintza hauetan:

> 1. Gizabanakoen eta gizataldeen ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna bermatzen da, eta beren agerpenetan muga bat baino ez da izango, legeak babesten duen ordena publikoa jagotea.
>
> 2. Ezin izango da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpenak egitera.
>
> 3. Erlijio batek ere ez du izango estatu-izaerarik. Botere publikoek kontuan hartuko dituzte Espainiako gizartearen erlijio-sinesmenak, eta Eliza Katolikoarekin eta beste erlijioekin lankidetza-harremanak izango dituzte.

70. Gure azterketarako, konstituzio-manutik hartzen dugu, pentsamendu-askatasuna eduki nagusi gisa kontuan hartu behar bada ere, erlijio-askatasunak (haren jatorria eta genesia) protagonismo handia duela artikuluan, eta definitzen duten hiru alderdi tradizionalak jasotzen dituela: (i) kontzientzia-askatasuna; konfesio-askatasuna; eta (iii) kultu-askatasuna, gure kasuan bereziki nabarmentzekoa da, erlijio-erituak eta -ospakizunak gune pribatu edo publikoetan egiteko askatasuna jasotzen baitu.

71. Hasierako hurbilketa honetan, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasuna Babesteko Europako Hitzarmenaren 9. artikulua (aurrerantzean, GEEH) ere transkribatu behar da; izan ere, pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea honela onartzen du:

> 1. Pertsona orok du pentsamendu-askatasuna, kontzientzia-askatasuna eta erlijio-askatasuna izateko eskubidea. Eskubide horrek norbere erlijioa edo sinesteak aldatzeko eskubidea dakar, baita bakoitzak, bakarka nahiz taldean, publikoan nahiz pribatuan, kultuaren bidez, irakaskuntzaren bidez, jarduerez eta erituak betez, bere erlijioa edo sinesteak azaltzeko ere.
>
> 2. Norberaren erlijioa edo sinesmenak adierazteko askatasunak ezin ditu legeak gizarte demokratiko batean segurtasun publikorako, ordena, osasun edo moral

publikoa babesteko, edo besteen eskubide edota askatasunak babesteko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak baino murrizketa gehiago jasan.

72. Europar Batasunaren esparruan, Oinarrizko Eskubideen Agiriak 10.1. artikuluan erlijio-askatasuna finkatzen du, zeinen irismena eta zentzua zehaztuko den kontuan izanda Giza Eskubideen Europako Epaitegiaren (GEEE) jurisprudentzia (Agiri horren 52.3. artikulua).

73. GEEEren jurisprudentzia sendotu batek (besteak beste, Eweida eta beste batzuk Erresuma Batuaren aurka auzia, 2013ko urtarrilaren 15ekoa) hau adierazten du: «Erlijio-askatasuna batez ere kontzientzia eta pentsamendu indibidualeko kontu bat da. Edozein erlijio-sinesmen izateari eta erlijioa edo sinesmena aldatzeari buruzko 9. artikuluaren lehen lerrokadan ezarritako zuzenbidearen alderdi hau absolutua eta baldintzarik gabekoa da. Halere, 9.1. artikuluan ezartzen den bezala, erlijio-askatasunak, halaber, sinesmena adieraztea ere jasotzen du, bakarrik eta pribatuan, baina baita komunitatean beste batzuekin eta jendaurrean praktikatzea ere. Erlijio-sinesmen baten adierazpenak kultuaren, irakaskuntzaren, praktikaren eta obserbantziaren forma har dezake. Hitzetan eta egitateetan gauzatutako lekukotza uste sendoak izatearekin lotuta dago».

74. Kultuaren praktikak, beraz, erlijio-askatasunaren funtsezko edukia barnean hartzen du eta, horregatik, kultu-tokiak ezartzeko eskubidea ere zuzenbidearen ahalmenen parte da.

75. Erlijio-askatasunerako eskubidea legegile organikoak garatu du erlijio-askatasunaren uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoan (aurrerantzean, EALO).

76. 1. artikuluak adierazten du Estatua akonfesionala dela eta ez dela diskriminatu behar erlijio-sinesmenengatik.

77. 2. artikuluak jasotzen ditu erlijio- eta kultu-askatasunaren eskubideak dakartzan ahalmenak –bortxa-immunitatearekin– eta horrela laburbildu behar da: (i) erlijio-sinesmenak izateko, ez izateko edo konfesioz aldatzeko askatasuna; (ii) sinesmenak era askean adierazteko edo horiei buruz deklaratzeari uko egiteko askatasuna; (iii) kulturako eta erlijio-asistentzia jasotzeko askatasuna eta horretara behartua ez izateko eskubidea; (iv) irakaskuntza-askatasunak bere barnean hartzen du sinesmenen arabera irakastea eta heztea; eta (v) erlijio-helburuekin bildu, elkartu eta adierazteko askatasuna.

78. Erlijio-askatasunak berez dituen eskubide instituzionalei dagokienez, EAELOren 2.2. artikuluak onartzen du elizek, erlijio-konfesioek eta -komunitateek eskubidea dutela erlijio-helburuekin kulturako edo biltzeko tokiak ezartzeko, beren ministroak izendatu eta prestatzeko, beren kredoa zabaltzeko eta beren elkarteekin edo beste erlijio-konfesio batzuekin harremanetan egoteko.

79. Erlijio-askatasunaren edukiari buruz, Konstituzio Auzitegiak adierazi du (besteak beste, KAE 24/1982, maiatzaren 13koa; 166/1996, urriaren 28koa; 46/2001, otsailaren 15ekoa; 154/2002, uztailaren 18koa; 177/1996, azaroaren 11koa) Konstituzioak 16. artikuluan erlijio-askatasuna onartzen duela, pertsonei eta komunitateei bermatuz «beraien agerpenetan muga bat baino ez da izango, legeak babesten duen ordena publikoa jagotea» (EKren 16.1 artikulua) eta bi dimentsio bereizi ditu.

80. Dimentsio objektiboan, erlijio-askatasunak EKren 16.3. artikuluak aipatzen duen eskakizuna bikoitza dakar berekin: batetik, botere publikoen neutraltasuna, Estatua akonfesionala baita; bestetik, botere publikoek hainbat elizekin lankidetza-harremanak izatea.

81. Konstituzio Auzitegiak otsailaren 15ean eman zuen 46/2001 epaiaren arabera: «Konstituzioaren 16.3. artikuluaren arabera, neutraltasun-deklarazio bat formulatu ondoren (KAE 340/1993, azaroaren 16koa, eta 177/1996, azaroaren 11koa) erlijio-osagaia hautemangarria da, eta agintzen die botere publikoei «Eliza Katolikoarekin eta gainerako konfesioekin lankidetza-harremanak» izatea; horrela, akonfesionaltasun edo laikotasun positiboaren ideia bat sartzen du «erlijio- eta estatu-funtzioen arteko edozein nahaste saihesten duena» (KAE 177/1996)».

82. Eskubide subjektiboan, erlijio-askatasunak, era berean, dimentsio bikoitza du, barnekoa eta kanpokoa. Lehenengoak «bermatzen du sinesmenen klaustro intimo bat izatea eta, beraz, autodeterminazio intelektualaren gune bat izatea erlijio-fenomenoaren aurrean, norberaren nortasunari eta duintasun indibidualari lotua», (KAE 177/1996, azaroaren 11koa). Bigarrenak «.. *agere licere* kanpo-dimentsio bat ere badu eta horrek herritarrei ahalmena ematen die beren uste sendoen arabera jarduteko eta horiek mantentzeko hirugarrenen aurrean (KAE 19/1985, OJ 2; 120/1990, OJ 10; eta 137/1990, OJ 8)». Askatasun-eremu eta *agere licere*-ren esfera horren onarpen horrek «Estatuak edo edozein talde sozialek hertsatzeko immunitatea du» (KAE 46/2001, OJ 4, eta, ildo berean, KAE 24/1982, maiatzaren 13koa, eta 166/1996, urriaren 28koa) eta, dimentsio negatiboan, osatzen du EKren 16.2. artikuluak: «Ezin izango da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpenak egitera» (KAE 154/2002, uztailaren 18koa).

83. Erlijio-askatasuna proiektatzen den eremuari dagokionez, zehaztu behar da kontzeptu zabal bat hartzen duela barnean, erlijio-sinesmenak eta erlijio tradizionalak babestera mugatzen ez dena. Konstituzio Auzitegiak adierazi du hala erlijio-sinesmena nola sekularra hartzen dituela barnean (KAE 141/2000, maiatzaren 29koa edo KAE 180/2001, maiatzaren 17koa).

84. Ildo horretakoa da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 18.1. artikuluak (Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea 1993ko ekainaren 20ko Iruzkin orokorra dela-eta) duen interpretazioa, hauek babesten baititu: «Sinesmen teistak eta ez-teistak eta ateoak, baita

erlijio edo sinesmenik eza profesatzea ere; sinesmen edo erlijio terminoak zentzu zabalean interpretatu behar dira».

85. Oinarrizko eskubide eta askatasun guztiek komunean dute, eskubidearen eduki definitzaileak dituzten mugak ere izatea. Erlijio-askatasunarena –oinarrizko eskubide guztiak bezala– ez da mugagabea edo absolutua, eta kontuan izan behar du konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunen beste titular batzuengan izan dezakeen eragina, baita legeak babesten duen ordena publikoa osatzen duten elementuetan izan dezakeen eragina ere, EKren 16.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, horien adierazpenak mugatzen baititu.

86. Gai honen inguruan Konstituzio Auzitegiak hau adierazi du (KAE 57/1994, ekainaren 28koa, OJ 6, horretarako aipatua 58/1998 KAEn, martxoaren 16koan): «Konstituzioak onartzen dituen oinarrizko eskubideek soilik amore eman dezakete Konstituzioak berariaz ezartzen dituen mugen aurrean, edo bertatik zuzenean edo zeharka ondorioztatzen direnen aurrean juridikoki babestutako beste eskubide batzuk edo ondasun batzuk zaintzeko beharrak justifikatzen badu (KAE 11/1981, OJ 7, eta 1/1982, OJ 5, besteak beste)», eta, «kasu guztietan, ezartzen diren mugek ezin dute oinarrizko eskubidea oztopatu arrazoizkoa den mailatik harago (KAE 53/1986, OJ 3)».

87. Honakoa dakar gogora, besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 29ko 141/2000 Epaiak: «Sinestunak sinesteko eta bere uste osoen arabera pertsonalki jarduteko duen eskubideak ez du mugarik, ez bada konstituzioak babestutako besteen oinarrizko eskubideak eta beste ondasun juridiko batzuk errespetatzea».

88. EAELOren 3. artikuluak erlijio-askatasunaren mugak aipatzen ditu eta hau adierazten du: «Muga bakarra da enparauek askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak egikaritzeko duten eskubidea babestea, bai eta gizarte demokratikoaren esparruan legeak babestutako ordena publikoaren osagai eratzaile diren segurtasun, osasun eta moralitate publikoa babestea ere».

89. Mugen zehaztapen honetan, EAELOk nazioarteko tratatuei eta akordioei dagozkien testuetatik edaten du eta horiek, EKren 10.2. artikuluaren arabera, kontuan izan behar dira konstituzioko oinarrizko eskubideen zentzua eta irismena ezartzeko garaian.

90. Horrela, ikus daiteke lehen transkribatutako GEEHren 9.2. artikuluaren edo 1966ko abenduaren 19ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren (EZPNI) 18.3. artikuluaren eragina. Azken horrek hau adierazten du: «Norberaren erlijioa edo sinesmenak agertzeko askatasunaren muga bakarrak izango dira legeak ezarritakoak, halakoak beharrezkoak direnean segurtasuna, ordena, moral edo osasun publikoak edo gainerakoen oinarrizko eskubide eta askatasunak babesteko.».

91. Aurreproiektuaren edukiarekin duen erlazio bereziarengatik, gogoratu behar da GEEEk adierazi duela kultu-zentroen irekiera eta erabilerak ez duela urratzen GEEren 9.

artikulua (horrela, GEEAE Vergos Greziaren aurka 2004ko ekainaren 24koa eta Johanisshe Kirshe eta Peters Alemaniaren aurka 2001eko uztailaren 10ekoa).

92. GEEAren doktrinak, kultu-zentroak eta hirigintza-arauak ezartzeari dagokionez, uste du hirigintza-antolamendua botere publikoek zaindu behar duten interes publikoaren mende dagoela: kultura bideratutako higiezinek hirigintza-arauak errespetatu behar dituzte, zeren erlijio-konfesioak eta pertsonak ez baitaude ahaldunduta kultu-toki bat ezartzeko, alde batera utzita lurzoruaren, eraikigarritasunaren, ezaugarrien, segurtasunaren eta antzekoen erabilerari buruzko xedapen orokorrek zehazten dutena. Erlijio-askatasunaren eskubideak, batetik, ez die uzten erlijio-konfesioei saihesten arau neutralak betetzeko betebeharra. Eta, bestetik, erlijio-askatasuna baliatzeko mugak dakartzaten hirigintza-arauek hiru azterketa gainditu behar dituzte: legeak horiek xedatzea, helburu legitimo bat edo hainbat izatea (GEEren 9.2. artikulua) eta beharrezkoak izatea gizarte demokratiko batean.

93. EAELOren 4. artikuluan adierazten da eskubidearen jurisdikzio-bermea, babes-errekurtsoa berariaz aipatuz.

94. EAELOren 5. artikuluak ezartzen du doktrinak instituzional gisa izendatzen dituen eskubideetako bat, erlijio-komunitateei esleitu dakiekeena: erakundeen erregistroan inskribatuta lortzen den nortasun juridikorako eskubidea (Erlijio Erakundeen Erregistroa gaur egun uztailaren 3ko 594/2015 Errege Dekretuan dago arautua).

95. Nortasun juridikoa lortuta etortzen da EAELOren 6. artikuluak ezartzen duen antolamendu eta funtzionamendurako erabateko autonomia.

96. Inskripzioari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak 46/2001 KAEn adierazi zuenaren arabera, Erregistroak egin dezakeen jarduera kanpo-izaerakoa da soilik, formala, egitatea egiaztatzekoa eta ez kalifikatzekoa; horrela, Administrazioak ezin du beretzat hartu erregistrorako sarbidea eskatzen duten erakundeen erlijio-osagaia epaitzeko funtzioa, eta erakundea EAELOren 3.2. artikuluan bazter utzitako baten bat ote den egiaztatzera mugatu behar du, erakundeak dituen sinesmenei buruzko kontrolik gauzatu gabe. Inskripziori behar ez bezala uko egitea oinarrizko eskubidearen lesio edo kaltetzat hartuko da.

97. Bestalde, GEEAk, halaber, aukera izan du aztertzeko erlijio-konfesioei kultu-tokiak irekitzeko nortasun juridikoa izatea eskatzen dieten arau nazionalak; arau horiek, batzuetan –EAELOk egiten duen bezala– nortasun juridiko hori erregistro batean inskribatzearen mende jartzen dute.

98. Nahiz eta bere iritzian eskakizun horiek erlijio-konfesioen lege-araubidea zehazteko egoerak bereizteko marjinaren barnean egon, kontuan hartzen du nortasun juridikoa betekizun bat dela trafiko juridikoan jardun ahal izateko; beraz, erlijio-askatasunerako

eskubidea babesteko eremua halako moldez integratuko du non inskripzio bat era justifikatu gabean ukatzen bada, erlijioa adierazteko eta praktikatzeko funtsezko elementuak diren jarduerak garatzeko eskubidea urratuko den (Moskuko Jehovaren Lekukoak eta beste batzuk Errusiaren aurkako epaia, 2010eko ekainaren 10ekoa).

99. EAELOren 7. artikuluak jasotzen ditu Estatuak Erregistroan inskribatutako elizekin, erlijio-konfesioekin eta -komunitateekin ezarri behar dituen lankidetza-akordioak edo hitzarmenak, betiere horiek Espainian errotze nabarmena lortu badute. Akordio horiek Gorte Nagusien legeak onartuko ditu.

100. Egoitza Santua estatua denez, harekin egiten diren akordioek nazioarteko tratatuen izaera dute; nolanahi ere, hori gorabehera, gaur arte EAELOren 7.1. artikuluaren babesean onartu dira Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioaren arteko Lankidetza Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 24/1992 Legea; Estatuaren eta Espainiako judu Komunitateen Federazioaren arteko Lankidetza Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 25/1992 Legea; eta Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren arteko Lankidetza Akordioa onartzen duen azaroaren 10eko 26/1992 Legea.

101. EAELOren 8. artikuluak sortzen du Erlijio Askatasunerako Aholku Batzordea, osaera paritarioa duena eta egonkorra dena; bertan ordezkaria izango dute Estatu Administrazioak, elizek, erlijio-konfesioek eta -komunitateek edo -federazioek, legea aplikatzearekin sortzen diren gaiak aztertu, horien txostena egin eta proposamenak egiteko funtzioarekin, eta nahitaez esku hartuko du «lankidetza-akordioak edo hitzarmenak prestatzen eta irizpenak egiten» (932/2013 Errege Dekretua, azaroaren 29koa, gaur egun batzorde hori arautzen duena).

102. Adierazi dugun bezala, ekimenak bat egiten du bereziki eskubidearen kanpoko dimentsioarekin, hau hartzen baitu bere barnean: «Erlijio-fenomenoaren adierazpenak diren jarduerak baliatzeko aukera, botere publikoen hertsapenarekiko immunea dena» (KAE 46/2001), horien artean daude erlijio-helburuekin kultu-ekintzak, bilerak edo adierazpen publikoko ekintzak egitea eta horrelako jarduerak komunitatean garatzeko elkartzea.

103. EAELOk ez dauka bere eduki organikoari eta lotuari buruzko azterketarik. Halere, adieraz daiteke nolabaiteko doktrina-adostasuna dagoela kontsideratzen baita funtsezko gaiak (hau da, eskubidea zuzenean garatzeak) barnean hartuko lituzkeela eskubidearen bermea –1. artikulua–, eskubidearen eremua –2. artikulua–, hori baliatzeko mugak –3. artikulua– eta babes judiziala –4. artikulua–.

104. Eduki horri, aipatutako 46/2001 KAEn (eta GEEAn) ezarritakoaren arabera, gehitu beharko litzaioke EAELOren 5. artikuluko Erakundeen Erregistrorako sarbidea, nortasun juridikoa ematen diena eta Konstituziotik eratorritako erlijio-askatasunerako eskubideak berez dituen ahalmenetako bat osatuko lukeena; horrela, eduki organikoa

osatuz (halere, adierazi behar da epai horrek boto partikular bat izan zuela, eta horri hiru magistratu gehitu zitzaizkiola. Boto hori ez zegoen ados kalifikazio horrekin, uste baitzuen erregistro-inskripzioa ez zela erlijio-askatasunerako eskubidearen funtsezko edukiaren parte (EAELOren 2. artikuluan ahalmen hori ez sartzeko babesarekin).

105. Bestalde, 207/2013 KAEn adierazten da EAELOk garatzen dituela hala KEren 81.1. ex artikulua nola EKren 53.1. ex artikulua baliatzeko oinarrizko baldintzak, eta baldintza horietan sartzen du pertsonek erlijio-jarduerak komunitatean garatzera bideratutako elkarteak sortzeko duten eskubidea (2.1.d art.) eta Estatuak duen betebeharra inskribatutako elizekin, erlijio-konfesioekin eta -komunitateekin lankidetza-akordioak edo -hitzarmenak ezartzeko.

106. Aurreproiektua aztertuz gero EKren 16. artikuluko erlijio-askatasunerako eskubidea bereizten duten ukituen arabera, ez da arazorik sortzen (alde batera utzita artikulatuaren azterketan zenbait alderdi formulatzeko egiten diren iradokizunak).

107. Konstituzioaren ikuspegian, etorkizuneko arauak hainbat neurri ezartzen ditu naturaltasunez inkardinatzen direnak botere publikoek oinarrizko eskubideak (kasu honetan erlijio-eskubidea kultu-askatasunaren alderditik begiratuta) baliatu daitezela sustatzeko har ditzaketen ekintzetan, baina eskubide hori baliatzea zaila izaten da ez badaude horretarako toki egokiak eta, aitzitik, bultzatu egiten da behar den tokian kultu-tokiak ezartzea sustatzen duten erabaki arauemaileekin.

108. Konstituzio-ikuspegitik egindako ekimenaren hasierako hurbilketa honetan, EKren 16. artikulua aipatzeaz gain, EKren 14. eta 9.2. artikuluak aipatu behar dira.

109. Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz azpimarratu du EKren 1.1. artikuluak aldarrikatzen duen berdintasuna, gure ordenamendu juridikoko goi-mailako balioetako bat bezala aldarrikatzen duena, –justizia-balioarekin batera, Estatu sozialaren formari eta zuzenbide Estatuari dagokiena–, ez dela soilik adierazten 14. artikuluko berdintasunaren izaera formalean (horrek, printzipioz, badirudi bereizketa arbitrarioak sortzeari uko egiteko betebehar bat inplikatzen duela soilik), baita EKren 9.2. artikuluan jasotakoaren funtsezko alderdian ere. Azken horrek botere publikoak behartzen ditu gizabanakoen eta taldeen askatasuna benetakoa eta eraginkorra izateko inguruabarrak sortzera (besteak beste, KAE 216/1991, azaroaren 14koa eta KAE 13/2009, urtarrilaren 19koa).

110. Aurreproiektuak nabarmendu egiten du eliza, erlijio-konfesio eta -komunitate guztiek diskriminaziorik gabeko traturako duten eskubidea eta hainbat edukik gogoratzen dute hori aplikatu behar dela eremu arautuan.

111. Horien artean nabarmentzen da aipatu egiten dela printzipio inspiratzaileen artean tratu berdinerako bermea –2.1. b) eta d) artikulua– eta 2.2. artikuluko zuzeneko eta zeharkako

diskriminazio-kontzeptuak txertatzen direla, proiektatutako araubidearekin bat sor daitezkeen kasuetara egokituta.

112. Aukera honek balorazio positibo bat merezi du EKren 14. artikuluaren espezifikotasuna dela eta; izan ere, bere berezitasunak (izaera erlazionala eta autonomoa duelako) saihestu egiten du legegintza aldetik era bateratuan, eta orokorrean, garatu ahal izatea, berdintasuna ezin delako formulatu modu abstraktuan; aitzitik beti jokatzen du eremu eta erlazio juridiko zehatzen arabera. Beraz, eremu sektorial horietan edo erlazio horietan arauak ematean, atera behar dira ondorioak–aurreproiektuak egiten duen bezala– berdintasun-eskubide/-printzipioaren jokotik.

C) Eskumenen banaketa

EKren 149.1.1 artikulua:

113. Aurreproiekturako, funtsean, bi muga daude jokoan: lehenengoa da, komuna dena legegile arrunt guztientzat –baita estatukoarentzat ere–, lege organikoarentzat gordetako erlijio-askatasunerako eskubidearen zuzeneko garapenak definitutakoa (zeinen irismena eta zentzua aztertu berri ditugun) eta, bigarrena, Estatuari dagozkion eskumen-tituluetatik eratorritakoa EKren 149.1. artikuluaren arabera eta, kasu honetan, oinarrizko eskubide batekin duen lotura dela eta, EKren 149.1.1. artikuluaren tituluan zentratzen da.

114. Eskumen-titulu hau, konstituzio-jurisprudentziaren bilakaera luze eta neketsu baten ondoren (besteak beste, EKA 61/1997; 154/1998, 173/1998, 188/2001, 184/2012, 3/2013), behin betiko bereizita gelditu da eskumen-titulu autonomo gisa, EKren 14. eta 139.1. artikuluekiko bereizita, ez baita mugitzen estatuko oinarri/autonomiako legeria logikaren barnean, eta ez da Estatuari edozein sektore edo gaitan sartzen uzten dion titulu horizontal bat. Eduki propioa du, ez da hondar-edukia, eta bere xedea da arautzea eskubidearen eduki primarioa, oinarrizko posizio juridikoak eta horiekin beharrezko eta hurbileko erlazioa duten irizpideak. Estatuko legegileak nolabaiteko bereizteko marjina du oinarrizko baldintzak ezartzean, nahiz eta eskumen-titulu honen erabileran zehazten direnak nahitaezkoak eta beharrezkoak izan behar duten berdintasuna bermatzeko eskubidea baliatzen denean. Horregatik, bateraezinak dira diseinu amaitu eta osatu batekin, izan daitezke hala xedeari edo eskubidea baliatzeko ahalmen, betebehar, gutxieneko edo ezinbesteko betebeharrak egokitzen zaizkien eremu materialari buruzkoak nola eskubidea baliatzeko aukera ematen duen antolamendu-esparruari buruzkoak.

115. Orain arte, Konstituzio Auzitegiak erlijio-eskubidearekin hiru aldiz aztertu du EKren 149.1.1. artikuluko eskumenen zerrenda.

116. Lehenengoa, EKA 207/2013, abenduaren 5ekoa, da; bertan, bere doktrinaren ildo nagusiak ezartzen ditu eta horiek errepikatzen ditu –kasuan kasuko egokitzapenekin– ondorengo KAEetan: 54/2017, maiatzaren 11koa, eta 13/2018, otsailaren 8koa.

117. Aurreproiektuarekin zuzeneko lotura duenez, gure azterketak maiatzaren 11ko KAE 54/2017n jarriko du arreta.

118. Epai horretan, besteak beste, ondorioztatzen da bat datorrela 27/2013 Legearen, abenduaren 27koaren, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoaren (aurrerantzean, TAAIL) hamazazpigarren xedapen gehigarriko eskumen-banaketaren ordenarekin. Horrek lehenengo aldiz sartzen du estatuko ordenamenduan kultu-tokiak irekitzeko arau bat.

119. Katalunian kultu-zentroen uztailaren 22ko 16/2009 Legea onartu zen. Lege hark udal-lizentzia espezifiko bat ezartzen zuen kultu-zentroak ireki eta erabiltzeko.

120. TAAILen hamazazpigarren xedapen gehigarriak hau adierazten du hitzez hitz:

> Kultu-tokiak irekitzeko, elizek, erlijio-konfesioek edo -komunitateek horien nortasun juridiko zibila egiaztatu beharko dute Erlijio toki-entitateen Erregistroak xede horrekin igorritako ziurtagiriaren bitartez; bertan, osatu nahi den gurtzarako lekuaren kokalekua agertuko da. Ziurtagiri hori lortu ostean, izapideak Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84.1.c) artikuluan xedatzen denaren arabera egokituko dira; hala ere, dagokion hirigintza-lizentzia eskuratu beharko dute.

121. Konstituzio Auzitegiak araua baliozkotu du eta uste du oinarrizko baldintza dela erlijio-askatasunaren eskubidea baliatzeko, EKren 149.1.1. artikuluaren mende eman baita.

122. Gure ondorengo azterketarako, Konstituzio Auzitegiaren arrazoiketak arretaz aztertzea interesatzen zaigu.

123. Lehenik, auzitegiak egiaztatu du arauaren, nahiz eta prozedura-arau bat ezartzen duen, xedea hau dela: «Sustatzea EKren 16. artikuluko erlijio-askatasunerako oinarrizko eskubidea balia dadila» eta helburua hau da: «Karga burokratikoa arintzea kultu-tokiak irekitzean eta, horrekin, erlijio-askatasuna balia dadila erraztea»

124. Xedapen gehigarri horrek eskubidea baliatzeko oinarrizko baldintza bat duen ala ez bereizteko, erreskatatu egiten du EAELOren 7.1. artikuluan xedatutako eta konfesio desberdinekin sinatutako akordioetan txertatutako onura fiskalen emakida aztertu zuen azaroaren 5eko KAE 207/2013ko doktrina eta ondorioztatu zuen EKren 149.1.1. ex artikuluan ezarritako berdintasunaren oinarrizko baldintza bat zela.

125. Doktrina horretatik TAAIL aztertzean, Auzitegiak gogoratzen du EK, alde batera utzi gabe Estatua akonfesionala den heinean erlijioaren aldetik neutrala dela, botere publiko guztiei zuzendutako agindu bat ezartzen diela Eliza Katolikoarekin eta gainerako konfesioekin lankidetza-harremanak izateko (KE 16.3. art.) eta horrekin batera «botere publikoei eskatzen zaie jarrera positiboa izatea erlijio-askatasuna era kolektiboan baliatzeko (EKA 46/2001, otsailaren 15ekoa eta 38/2007, otsailaren 15ekoa), oinarrizko askatasun hori benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak susta ditzaten (EK 9.2. art.), hala indibidualki nola kolektiboki».

126. Erlijio-askatasunerako eskubidearen kanpoko dimentsioaren ikuspegian, zehazki honi dagokionez: «Erlijio-fenomenoaren adierazpenak diren jarduerak baliatzeko aukera, kasu honetan subjektu kolektiboak edo komunitateek beren gain hartua» (EKA 46/2001, otsailaren 15ekoa, OJ4; eta 128/2001, ekainaren 4koa, OJ 2), Auzitegiak testuinguruan jartzen ditu hala akordioak gauzatzeko eginkizuna nola «erlijio-sinesmenen eta kultu-ekintzen praktika eraginkorra errazteko akordioak, baita herritarrek horietan parte-hartzea ere» eta hau ondorioztatzen du: «Konstituzio-garrantzia duten jarduerak egitean babestera eta sustatzera bideratutako estatuko ekintzak dira eta, beraz, interes orokorrekoak dira, Zuzenbidearen Estatu sozialari dagozkionak (EKren 1.1. art.)».

127. Doktrina hau TAAILen xedapenaren azterketara eramatean Auzitegiak hau zehazten du: «Kontuan izanda, uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren arabera, Konstituzioak bermatutako 'erlijio- eta kultu-askatasuna barnean hartzen duela' 'Elizek, Erlijio Konfesio eta Komunitateek erlijio-helburuekin kulturako edo biltzeko tokiak ezartzeko duten eskubidea (2.2. artikulua)'. Behar bezala erregistratutako erakunde hauei erantzukizunpeko adierazpenaren edo aurretiazko jakinarazpenaren bidez kultu-tokiak irekitzeko aukera emanda, 27 /2013 Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarriak ezarri du, EK 149.1.1. ex artikulua, berdintasunerako oinarrizko baldintza bat erlijio-askatasunerako eskubidea baliatzean eta horrek, jakina, ez du alde batera uzten lege-eskakizunak ex post betetzea. Gainera, manu polemikoa kultu-tokien irekiera aurretiazko jakinarazpenaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren araubidearen mende jartzera mugatzen da 'alde batera utzi gabe dagokion hirigintza-lizentzia lortu beharra', hau da, arututako jarduera pribatuaren beste dimentsio batzuei esku hartzeko dagokien modua ezarri gabe (esaterako, obren baimenak eskatzea) eta autonomia-eskumenetan eragin gabe hirigintzaren arloan».

128. Konstituzio Auzitegiak adierazitakoaren arabera, aurreproiektua behartuta dago TAAILen hamazazpigarren xedapen gehigarria errespetatzera eta, horrela egiten du, berariaz jasotzen baitu 8.1. artikuluan kultu-toki bat ireki aurretik horren jakinarazpena egiteko betebeharra.

129. EKren 149.1.1. artikuluaren estatuko tituluaren jokoak beste proiekzio batzuk ditu ekimenean.

130. Horrela, Konstituzio Auzitegiak kontuan hartu du, halaber, elizekin, erlijio-konfesioekin eta -komunitateekin sinatutako lankidetza-akordioetako eduki batzuek (esaterako, etekin fiskalek) Estatuak EKren 149.1.1. artikuluan xedatzen diren eskumen

esklusiboaren babesean hartutako oinarrizko baldintzak izan ditzaketela. Eskumen esklusiboa izatea , «... erlijio-konfesioek (dagokien erregistro publikoan inskribatu, eta lankidetza-akordioak sinatu dituztenak) duten konstituzio-garrantzian justifikatzen da, Konstituzioak aldarrikatzen dituen helburuak lortzeko eta, zehazki, erlijio- eta kultu-askatasunerako oinarrizko eskubidea bermatzeko, hala indibidualki nola kolektiboki» (KAE 207/2013).

131. Aurreproiektua akordio horiek kontuan hartuta berrikusita (aipatutako 24/1992 Legea, azaroaren 10ekoa; 25/1992 Legea, azaroaren 10ekoa eta 26/1992 Legea, azaroaren 10ekoa), ez da dago proiektatutako araubidea materialki baldintza dezakeen xedapenik.

132. Kontuan izan behar da aurreproiektuak, Kataluniako 16/2009 Legean, uztailaren 22koan, jasotako antzeko formula batekin, bere lehenengo xedapen gehigarrian adierazten duela legea horrela interpretatu behar dela: «Alde batera utzi gabe Egoitza Santuarekin sinatutako akordioak eta Estatuak Elizekin, Erlijio Konfesioekin eta Komunitateekin sinatutako lankidetza-akordioak onartzen dituzten lege-lerruneko arauak».

133. Adieraz daiteke —doktrinaren batek egiten duen bezala— 2.1. artikuluak jasotzen duen «kultu-tokiaren » nozioak –idazketa berdinarekin aipatutako hiru legeetan– oinarrizko baldintza bat duela erlijio-askatasunerako eskubidearen kanpoko dimentsio kolektiboan tratu berdina bermatzeko.

134. 2.1. artikuluak hau adierazten du hitzez hitz: «Ondorio guztietarako, Elizei dagozkien kultu-tokiak dira [inskribatutako konfesio bakoitzari] era iraunkorrean eta esklusiboan kulturako edo erlijio-praktikarako bideratuta dauden eraikin edo lokalak, dagokion Elizak horrela egiaztatzen duenean».

135. Aurreproiektuaren 4. artikuluko «kultu-toki edo -zentroaren» definizioak, batetik, oinarrizko baldintzaren hiru alderdiak biltzen ditu: (i) jendea biltzen den eraikin, lokal edo aretoetarako da; (ii) nagusiki edo era iraunkorrean kultua praktikatzeko, erlijio-helburuko bilerak egiteko eta horrelako jarduerak prestatzeko edo praktika jasotzeko dira, eta (iii) berariaz horrelakotzat, hau da, kultu-zentrotzat onartu ditu nortasun juridikoa duen (hau da, Erakundeen Erregistroan inskribatuta dago) elizak, erlijio-konfesioak edo -komunitateak.

136. Bestalde, definizioak errespetatu egiten du Konstituzio Auzitegiak autonomia-arauetan ezarri dituen estatu-arauetako edukiak errepikatzeko irizpideak.

137. Oinarrizko eskubidearen eduki gisa inskripzioaren eraketarekin koherentzian, Erlijio Erakundeen Erregistroa arautzen duen uztailaren 3ko 594/2015 Errege Dekretua, azken xedapenetatik lehenengoak deklaratzen duenaren arabera, EKren 149.1.1. artikuluko eskumena baliatzeko eman da; hala, adierazi behar da, gure azterketarako, inskribatutako erakundeek, halaber, eska dezaketela kulturako beren tokiak idaztea (17. artikulua).

Autonomia-eskumena.

138. Batzordeak ez du ikusten gai problematikorik EAEk proiektatutako edukia duen arau bat emateko eskumenari dagokionez.

139. Euskadiko Autonomia Estatutuak ez dauka eskumen-xedapen espezifikorik erlijio-askatasunerako; hala, hasierako estatutu-testuetan ohiko jarraibidea izan zena eta berritutako estatutu batzuetan partzialki aldatu dena jarraitzen da.

140. Zehazki, 2006ko Kataluniako Autonomia Estatutuak (KAE) 161. artikuluan eskumen-esleipen hau jasotzen du:

> 161. artikulua. Erlijio-erakundeekiko harremanak.
>
> 1. Generalitateak eskumen esklusiboa du Katalunian diharduten erlijio-erakundeen arloan; eskumen horrek bere barnean hartuko ditu, egoera edozein dela ere, erakunde horiek beren jardunak gauzatzeko Generalitatearen eskumenen esparruan lankidetza- eta elkarlan-mekanismoak arautzea eta ezartzea.
>
> 2. Generalitateari dagokio erlijio-askatasunaren inguruko gaietako eskumen betearazlea. Eskumen horrek barruan hartuko ditu, beti:
>
> a) Erlijio-erakundeei buruzko Estatuko erregistroa kudeatzen parte hartzea, beren jarduna Katalunian burutzen duten erlijio-elkarteak, -konfesioak eta elizak direla-eta, betiere, legeetan ezarritakoarekin bat etorrita.
>
> b) Erlijio-erakundeei buruzko Estatuko Erregistroan jasota dauden erlijio-elkarteekin, erlijio-konfesioekin eta elizekin Generalitatearen eskumenen esparruan lankidetza-akordioak eta -hitzarmenak sinatzea.
>
> c) Erlijio-erakundeei buruzko Estatuko Erregistroan jasota dauden erlijio-elkarteekin, erlijio-konfesioekin eta elizekin Estatuak sinatuta dituen lankidetza-akordioak eta -hitzarmenak sustatzea, garatzea eta betearaztea Generalitateak dituen eskumenen esparruan.
>
> 3. Erlijio-erakundeei buruzko gaietan Estatu osorako eginkizunak esleituta dituzten organoetan lankidetzan jarduten du Generalitateak.

141. Aurreikuspenaren konstituzionaltasuna ekainaren 28ko 31/2010 KAEn deklaratu zen; izan ere, 3. apartatuko aurkaratzea aztertu zuen, errekurtsogileek uste baitzuten eragozpen bat sortzen zuela estatuko eskumenak baliatzean.

142. Auzitegiak berriz adierazi zuen lankidetzak, boterea lurraldeen artean artikulatzeko gure sistemaren berezko printzipioak, aholkatzen duela elkarlanerako eta lankidetzarako teknikak edo mekanismoak martxan jartzea, bereziki zeharkako eskumenen edo eskumen konkurrenteen kasuan. Era berean, kontuan izan zuen Generalitateak eskumen esklusiboa hartu zuela bere gain erlijio-erakundeen arloan eta eskumen betearazlea erlijio-askatasunaren arloan (KAEren 161.1. eta 2. artikulua), eta berretsi zuen, batetik, Autonomia Estatutuak –autonomia-erkidegoaren oinarrizko arau instituzionala– jaso dezakeela, errekurritutako manuan gauzatzen den orokortasunarekin, formula kooperatibo bat eta, bestetik, estatuko legegileari egokituko zaiola erabateko askatasunarekin zehaztea borondatezkotasunak bereizten duen lankidetza horren artikulazioaren eraketa, irismena eta modua.

143. Antzeko edukia du Kanarietako Estatutuaren 112. artikuluak –Kanarietako Estatutua berritzeko azaroaren 5eko 1/2018 Lege Organikoa–.

144. Halere, Euskadiko Autonomia Estatutuaren isiltasuna ez da oztopo bat aurreproiektuaren bideragarritasunerako; izan ere, txertatzen dituen neurri guztiek dagokien kokapena dute EAEko eskumenetan.

145. Hain zuzen, konstituzio-doktrina sendotua denez, eskumen-azterketa ez da abstraktua, baizik eta arau-eduki zehatzei erreparatuta egin behar da.

146. Kasu honetan, aurreproiektuak, laburbilduz, hauei guztiei buruzko xedapenak ditu: (i) administrazioek kontuan izan behar dituzten arauak elizei, erlijio-konfesioei edo -komunitateei batzuetan ekipamendu eta toki publikoak edo ondareak laga behar dizkienean erlijio-izaerako aldizkako jardueretarako (5. artikulua); (ii) kultu-tokiak ezartzeko behar beste gune erreserbatzea hirigintza-antolamenduaren planetan (6. artikulua); (iii) kultu-toki edo -zentroak irekitzeko, aurretiazko jakinarazpena, hirigintza araudia eta zehazten diren segurtasun- eta osasungarritasun-baldintza material eta teknikoak bete behar dira (7tik 10era bitarterako artikuluak); (iii) udalek har ditzaketen neurriak ez-betetze kasuetan (11. artikulua); eta (iv) elkarrizketa eta lankidetzarako organo bat sortzea autonomia-erkidegoaren eta hainbat eliza, erlijio-konfesio eta -komunitateen artean (12. eta 13. artikuluak).

147. Konstituzio Auzitegiak lehen aipatutako doktrinan azaldutako arrazoibideari jarraituta, lehenik, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.2. artikulura jo behar dugu; izan ere, nahiz eta ez eduki eskumenak esleitzen dituen klausula bat, ekintza positiborako agindu bat du (EKren 9.2. artikuluko arrazoi berdinarekin) EAEko botere publikoentzat: «Hiritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilpen egokia zaindu eta bermatuko dute» —a) apartatua—; «Gizabanakoaren eta berori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezkoa eta egiazkoa izan daitezen, diratekeen oztopoak erauzteko eta aldeko kondizioei eragiteko neurriak hartuko dituzte.» —d) apartatua— eta «Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan hiritar guztien parte hartzea erraztuko dute.»—e) apartatua—.

148. Manu horrek, kasu honetan, dimentsio berezia du, zeren, azaldu dugun bezala, erlijio-askatasuna onartzean Konstituzioak botere publiko guztiei dagokien betebehar espezifiko bat ematen baitie: «Jarrera positiboa izan behar dute erlijio-askatasuna era kolektiboan baliatzeari dagokionez (KAE 46/2001, otsailaren 15ekoa eta 38/2007, otsailaren 15ekoa) askatasun hori benetakoa eta eraginkorra izateko inguruabarrak sustatze aldera (EKren 9.2. art.) hala indibidualki nola kolektiboki» (aipatutako KAE 207/2013; 54/2017 eta 13/2018).

149. Konstituzio Auzitegiak jarraitutako ildo berdinean, lehenik egiaztatu behar da, nahiz eta aurreproiektua funtsean hirigintzarekin erlazionatutako gaiei buruzkoa izan, helburuen artean duela oztopoak kentzea edo baldintzak hobetzea EAEn elizek, konfesioek edo komunitateek kultu-zentroak ireki ahal izateko eta, horrela, erlijio-askatasunerako eskubide kolektiboa eta indibiduala baliatzen dela bermatzeko.

150. Hau da kontuan hartu beharreko ikuspegi primarioa; aurreproiektuak helburu orokor bat du: «Gure gizarteko elkarbizitza eta erlijio-aniztasuna babestea» —1. artikulua—, eta hori lortzeko neurri orokorrak ezartzen ditu —Erlijioen Arteko Kontseilua sortzea—, baita zehatza ere, elizek, erlijio-konfesioek eta -komunitateek EAEn kultu-zentroak ireki ditzatela errazteko, berdintasun-baldintzetan, edozein diskriminazio baztertuz.

151. Logikoki, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.2. artikuluan ezartzen diren ekintza positiborako neurriak EAEk duen eskumenen barnean moldatu beharko dira.

152. Dagokion lehenengo eskumen-eremu gisa dago –presentzia handiarekin– «Lurraldea, itsasertza, hirigintza eta etxebizitzaren antolamenduan» eskumen esklusiboa izatea, EAEri esleitzen baitio Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.31. artikuluak.

153. Eskumen honek eskumen-babesa ematen dio proiektatutako araubide osoari (6., 7., 8., 9., 10 eta 11. artikuluak). Hirigintza arloko autonomia-eskumenari dagokionez, nahikoa da gogoratzea konstituzio-doktrina sendotu batek (guztien eredu, KAE 61/1997) bere barnean sartzen duela doktrinaren eduki natural gisa autonomia-legegileak ezarritako hirigintza-eredua, baita aukeratutako eredua aplikatzeko erabili behar diren plangintza-teknika eta tresnen diseinua ere.

154. Eskumen horretan sartzen da hirigintza-antolamenduko planen edukia autonomia-legegileak zehaztu beharra eta bertan daude erkidego-ekipamenduei buruzko zehaztapenei buruzkoak (6. artikulua).

155. Kultu-zentroak irekitzea hirigintza-lizentzien araubide orokorraren mende egoteari dagokionez (7. artikulua), hori hirigintza-arloko eskumenaren barneko sektore bat da; hori Konstituzio Auzitegiak berak onartzen du lehen aztertutako KAE 54/2017n.

156. Arlo horri gehitu behar zaio Euskadiko Autonomia Estatutuak 11 1.a) artikuluan jasotzen duen «Ingurumen eta ekologia» arloa; izan ere, jarduera sailkatuen araubideko kultu-

zentroen irekierarako eta funtzionamendurako aplikazioa xedatzen duen 8.2. artikuluaren eskumen-oinarria indartzen du —gaur egun EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrak arautzen du—.

157. 10. artikuluak, bestalde, kultu-zentroen irekiera eta erabilera pertsonen segurtasuna, instalazioen higienea eta hirugarrenen eskubidea zaintzeko ezartzen diren baldintza tekniko eta materialak betetzearen mende ezartzen du; beraz, hirigintza- eta ingurumen-eremuetan eskumen-babesa handitu egiten da osasuneko (Euskadi Autonomia Estatutuaren 18. artikulua) eta segurtasunaren (Euskadi Autonomia Estatutuaren 17. artikulua) arloko eskumenekin.

158. Azkenik, EAEko Erlijioen Arteko Kontseilua sortzeari buruzko aurreproiektuaren zatia, eskumenen mailan, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.2. artikuluak onartzen duen bere burua antolatzeko ahalaren adierazpen bat da, alde batera utzi gabe hemen berriz ere agerian jartzen dela lotura handia dagoela ekimenaren eta Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.2. artikuluaren eta EKren 16. artikuluaren artean; izan ere, azken honetan botere publikoen akonfesionaltasun edo laikotasun positiboaren ideia hori eta elizekin, erlijio-konfesioekin eta -komunitateekin lankidetza-harremanak izateko agindua elkarrekin azaltzen badira ere, balizko lankidetza-neurrien artean jasotzen da elkarrizketa eta lankidetza instituzionalerako organo bat sortzea .

159. Azaldutako guztitik ondorioztatzen da, EAEk eskumena duela proiektatutakoa bezalako arau bat emateko.

160. Autonomia-eskumena barne-ikuspegitik aztertuta, aurreproiektuak ez dio eragiten erkidego barneko banaketari (Euskadiko Autonomia Estatutuaren 37. eta 41. artikuluak eta autonomia-erkidegoaren eta bertako lurralde historikoetako foru-organoen erakunde komunen arteko erlazioei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea), ezta lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera lurralde historikoek «hirigintzaren» arloan dituzten eskumenei ere.

161. Ikusten da, ordea, ekimenak udal-mailari –egite-prozedurak erakusten duen bezala– eragiten diola.

162. Hain zuzen, lurraldeko hirigintza eta antolamendua arautzen duten arauak ezartzeko eskumena EAEri badagozkio ere, EAEko udalek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (TAOL) apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25 2 a), b), f) eta j) artikuluaren arabera, eta Euskadiko tokiko erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17 1.8) eta 9) artikuluaren arabera, dituzte eskumenak hirigintzako plangintzaren, kudeaketaren, betearazpenaren eta diziplinaren, hiri-ingurumenaren (kutsadura akustikoa babestea), herritarren osasungarritasuna babestearen arloan, araudiak sektore bakoitzean ezartzen dituen baldintzetan.

163. Aurreproiektuak, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak ondorioztatu duen bezala, errespetatu egiten ditu udal-eskumenak.

III EDUKIAREN AZTERKETA

A) Artikuluei buruzko oharrak

164. Jarraian adieraziko diren gogoetek organo sustatzaileari testuko eduki batzuei buruzko gogoetak eta iradokizunak egiten dizkiote, etorkizuneko arauak ordenamendu juridikoan txertatze osatuagoa izan dezan; horrela, segurtasun juridikoa irabaziko da, eragile juridikoek erregulazioa interpretatzea eta aplikatzea erraztuko da eta, laburbilduz, bere aginduan lortu nahi diren helburuak erdiesten lagunduko da.

5. artikulua:

165. Manuaren izenburua hau da: «Titulartasun publikoko ekipamendu edo guneak aldi batean edo noizean behin erlijio-xedeetarako erabiltzea » eta EAEko administrazio publikoen jabari publikoko edo ondare-ondasunak erabili ahal izatea jasotzen du, 1. apartatuko a) letratik d) letrara jasotzen diren kasuetan.

166. Apartatu honetan uztailaren 22ko 16/2009 Kataluniako Legearen 5. artikuluaren arrastoa ikusten da, baina kasuen zerrendak manu honetan duen adibide-tonua itxuragabetuta gelditzen da aurreproiektuan.

167. Aurrekari honetan bezala, badirudi manuaren garrantzizko mezua dela gogoratzea (eta horrela indartzea) administrazio guztiek duten betebeharra «legearen aurrean berdintasun-eskubidea» errespetatzekoa, erlijio-konfesioek eta -komunitateek (jabari publikoko edo ondareko) ondasunak noizbehinka erabiltzeari buruzko erabakiak hartzen dituztenean.

168. Erabaki bakoitza Administrazioak hartu beharko du arautzen dituen funtsezko araudiaren arabera, aplika dakiekeen araubidearen arabera, adosten den erabilera edo lagapen motaren arabera, ondasun motaren –publikoa edo pribatua– arabera.

169. Iradokitzen da, horrelako erabakiak hartu behar dituztenean administrazioek kontuan izan behar dituzten araubideak desberdinak izanda, eranstea diskriminaziorik gabeko tratuari buruzko aginduaren ondoan, kasuaren arabera aplikatu beharreko araudiarekin bat egiteari buruzko berariazko igorpen bat.

170. Bestalde, badirudi «noizbehinkako erabilera» «puntual» hitzaren sinonimo gisa jaso nahi dela; eta gomendioa da ez erabiltzea «noizbehinkako erabilera» kontzeptua; izan ere, esaterako, EAEko Administrazio Orokorraren funtsezko araudian (azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretua) gehienez hogeita hamar urtera arte luza daitekeen aldi baterako erabilera adieraz dezake (102. artikulua).

6. artikulua:

171. Manu hau, ikusi dugun bezala, hirigintza-eremukoa da, eta aurreproiektuaren alderdi nabarmenetako bat arautzen du.

172. Hirigintzaren sektorean, kontuan izatea komeniko litzatekeen terminologia teknikoa eta espezializatua erabiltzen dute arauek. Iradokizuna ez da soilik legegintza-teknikari eragiten dion hobekuntza bat, zeren termino egokiak erabiltzea oso gomendagarria da, kontua izaten bada udalen hirigintza-antolamenduaren eremuan txertatu nahi den betebeharraren araubide desegoki edo osatugabe batek aplikazio-arazoak ekar ditzakeela eta txertatu nahi den eskubidea baliatzeko bermearen eraginkortasunari eragin diezaiokeela.

173. Berriz adierazi behar da hirigintzako sektore arauemailea konplexua dela eta ez dagoela hirigintza-antolamenduko plan eta tresnak lantzeko eta onartzeko prozesutik kanpo; beraz, eremu horretan sartu nahi den edozein eduki, zehaztapen edo erregulazio berrik segurtasun juridikoa zaindu behar du, zorrotza izan behar du eta argia izan behar du: zuzenbidearen munduan ziurgabetasuna negatiboa bada beti, hirigintzaren eremuan sortzen denean aplikazio-arazoak eta auziak –esperientziak adierazten duen bezala– ia ziurtatuta daude, zeren hirigintza-antolamenduaren funtzio publikoa baliatzeak sortzen dituen interesak asko eta desberdinak izaten dira (baita kontrajarriak ere).

174. Aztertzen ari garen manuak EAEko autonomia-ordenamenduan jardungo du; horretarako, harmonikoki txertatu behar da lurzoru eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen esparruan (LHL).

175. Horrela aitortzen da inplizituki zioen azalpenean, aditzera ematen denean LHLk xedapen lotesle bat duela ekipamendu batzuk nahitaez ezartzeko hirigintza-diseinua egin behar duen Administrazioarentzat, lege horretako 54.2.e) eta 57.2.e) artikuluak berariaz aipatuta.

176. Adierazitako helburuarekin, organo sustatzaileak kontuan hartu beharko ditu gai hauek.

177. Artikuluak hainbat apartatutan aipatzen du «behar beste toki erreserbatu behar dela kultur-toki gisa eta erlijio-asistentzia emateko toki gisa erabiltzeko» –1. apartatua—, «jarduera horretarako erreserbatutako tokiak» –2. apartatua- edo «erlijio-ekipamenduen eta kultu-tokien kokaleku egokienak» –3. apartatua—.

178. Adierazpen desberdin horiek ez diote laguntzen segurtasun juridikoari, baina, printzipio hura zaintze aldera, adierazpen unibokoa aukeratzea gomendatzen duen eta interpretazioa eta aplikazioa errazteko testu juridikoan erabilera uniformea zaintzea gomendatzen duen jarraibide teknikoari erantsi behar zaio, aztertutako artikuluan,

tokiak erreserbatzeko ezarri nahi den xedapen horrek soilik LHL diseinatzen duen sisteman izango dituela bere ondoreak.

179. LHLk, zioen azalpenean berariaz nabarmentzen duen bezala, plangintza orokorrari mekanismoak ematearen alde egiten du, esaterako, egitura-ordenamendua eta xehatua desberdintzeko mekanismoa. Nahi horren arabera, 50. artikuluan eta hurrengoetan bi ordenamendu-kategoriak bereizten ditu eta irizpide horrekin jarraitzen du hirigintza-antolamenduko planak sailkatzen dituenean (59. artikulua).

180. Egitura-ordenamenduari dagokio, beste helburu batzuen artean, sistema orokorren sarea zehaztea –LHLren 53.1.f) artikulua– eta xehatuari, tokiko sistemak zehaztea –LHLren 56.1.a) artikulua–.

181. LHLren 54. artikuluan, sistema orokorren zuzkidura-sarearen gutxieneko edukien artean hauek jasotzen dira: «Titulartasun publikoko ekipamendu kolektiboak erabilera hauetara bideratuak, esaterako, hezkuntzakoak, kulturalak, sanitarioak, laguntzakoak, kiroletakoak eta administraziokoak»—b) letra — eta «Ekipamendu kolektibo pribatuak, esaterako, merkataritzakoak, erlijiozkoak, kulturalak, irakaskuntzakoak, kiroletakoak, sanitarioak, laguntzakoak, zerbitzu tekniko eta garraioetakoak, eta interes publiko edo interes sozialeko gainerako ekipamendu pribatuak. Ekipamenduok ezin dira inola ere zuzkidura publikoen ordezkotzat hartu.» –e) letra–

182. LHLren 57. artikuluan adierazten da tokiko sistemen sareak, besteak beste, elementu hauek izango dituela: «Titulartasun publikoko ekipamendu kolektiboak; adibidez, hezkuntzakoak, kulturalak, sanitarioak, laguntzakoak, kiroletakoak eta administraziokoak. Xede horrekin erreserbatu beharreko lurzoruak ez dira izango 79. artikuluan ezarritakoak baino txikiagoak.» –b) letra — eta «ekipamendu pribatuak; adibidez, merkataritzakoak, kulturalak, hezkuntzakoak, kiroletakoak, sanitarioak, laguntzakoak, erlijiozkoak eta garraiokoak. Hartarako lurzoruak ez dira izango 79. artikuluan ezarritakoak baino txikiagoak.» –e) letra —

183. LHLren 58. artikuluak preskribatzen du egitura izaerako eta xehatuen hirigintza-antolamenduaren zehaztapenen hierarkia-maila.

184. Labur esatearren, egitura-ordenamendua udalerriaren beharrei erantzuteko ekipamenduez arduratzen da eta xehatua eremu batekoei erantzuten dieten ekipamenduez.

185. Espedientetik ondorioztatu behar da ez direla aldatu nahi adierazitako manuak; hala, eduki berri bat ezartzen da sistema orokorren edo tokikoen ekipamenduetarako eta, era berean, –nahiz eta ez izan era eztabaidaezinean–, ondorioztatu behar da ezarri nahi den erreserba hori sistema orokorren sareko ekipamendu kolektibo pribatuetan proiektatuko dela soilik [LHLren 54 2.e) artikulua] edo –badirudi ohikoena izango den kasua– tokiko sistemen sarearen ekipamendu pribatuetan [LHLren 57.2.e) artikulua], titulartasun publikoko ekipamendu kolektiboak kanpoan utziz [LHLren 54.a) eta 57.b)

artikuluak] –interpretazio-ildo berdinekoa da, lehen aipatu dugun zioen azalpenak egiten duen LHLren aipamena–.

186. Hori bada helburua, komeniko litzateke EAEko udalen betebeharra ezartzea LHLk erabiltzen duen eskema, kategoria eta terminologia aipatuta. Eta, eskema horretan, adierazitakoaren arabera, aurreproiektuaren helburua da EAEko udalerrien hirigintza-antolamenduaren planak, hala egitura-ordenamenduan nola ordenamendu xehatuan, erlijio-izaerako ekipamendu kolektibo pribatuetarako erreserbak ezartzea, udalerri bakoitzean detektatutako beharren arabera.

187. Bestalde, 6. artikuluak hau aipatzen du: «Hiri-antolamendu plan berriak» —1. apartatua—, horrek bi kontu sortzen ditu.

188. Batetik, «hiri-antolamenduaren plan» kontzeptua ez dago LHLn, «hiri-antolamendu plan orokor» kontzeptua erabiltzen baitu —LHLren 59.1.a) artikulua—.

189. Plan honen funtsezko edukia da (LHLren 61. artikulua), gutxienez, udal-mugarte osoaren egitura-ordenamendua eta hiri-lurzoru finkatuaren ordenamendu xehatua eta, balizko eduki edo aukerako gisa, lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren eta hiri-lurzoru finkatuan sartu gabeko hiri-lurzoruaren ordenamendu xehatua.

190. Beraz, LHLren 59. artikuluko plan moten arabera, ohikoena aurreproiektuak itxuraz aipatzen dituen ekipamenduetarako erreserba hiri-antolamenduko plan orokorra ezartzea bada ere, litekeena da hori beste era bateko planetan jaso ahal izatea (adibidez, plan partzialak edo hiri-antolamenduko plan bereziak).

191. LHLrekin koherentzia izateko, organo sustatzaileak balioetsi behar du planaren nozio handiago batera jotzeko aukera (adibidez, hirigintza-antolamendua ezartzen duten udal-planak, aipatutako 59. artikuluak erabiltzen duen eta kasu guztiak hartzen dituen adierazpena).

192. 1. apartatuari dagokionez, aipatzekoa da bertan plan berriei egiten zaien aipamena pixka bat asistematikoa dela. Legea etorkizunean onartzen diren plan guztiei aplikatuko zaie, beren indarraldia arautzen duten arauen arabera. Bestelako kontua da –hori xedapen iragankorren gaia da– zehaztea zer neurritan aplikatuko zaien erregulazio berria izapide-egoera aurreratuan dauden (lehenengo xedapen iragankorreko 1. apartatua behin betiko onartzea) edo indarrean dauden (xedapen horren 2. eta 3. apartatuak) hirigintza-antolamenduko udal-planei.

193. 6. artikuluaren 4. apartatuan jasotzen da elizek, erlijio-konfesioek eta -komunitateek parte hartu behar dutela udalaren hirigintza-plangintzako prozesuetan. Parte-hartze hori, manuaren arabera, gauzatuko da «hirigintza-legerian aurreikusitako jendaurreko informazio eta lankidetzarako ezarritako baldintzetan.»

194. Erakunde horiek parte hartu ahal izateko, eskatzen da (i) egiaztatuta izatea beren nortasun juridikoa (hau da, Erlijio Erakundeen Erregistroan inskribatuta egon behar dute) eta (ii) «dagokien udal-mugartean errotuta egotea».

195. Lehenengo baldintza EAELOk babesten du, baina bigarrenerako justifikazioa aurkitzea zailagoa da, hirigintza-araudian ez baita jaso iradokizunak formulatzeko mugarik jendaurrean jartzeko aldian, jendaurreko informazioaren izapidean parte hartzeko edo plangintza formulatu, izapidetu eta onartzean ezar daitezkeen herritarren parte-hartzerako mekanismoetan.

196. Logikoki, udal bakoitzak kontuan izango ditu udalerrian sortzen diren erlijio-kulturako beharrei eta toki-eskaerei buruzko datuak. GEEAk, lehen aipatutako Vergos Greziaren aurka kasuko 2004ko ekainaren 24ko epaian, kontsideratu zuen udalerrian errezorako etxe bat, udal-plangintza aldatzea eskatzen zuena, irekitzeko, behar soziala zegoen edo ez zegoen egiaztatzeko irizpide kuantitatiboa arrazoi legitimoa zela (GEEren 9.2. artikuluaren babesean) aldaketa hori ukatzeko.

197. Baina erlijio-erakundeek hirigintza-araudi orokorrak –manuak ez baitu berezirik edo gehigarririk ezartzen– xedatzen dituen bideen bidez hirigintza-antolamenduko planak lantzen parte hartzeko aukeraz ari garenean, parte-hartzea ezarpen jakin baten mende jartzea problematikoa da, kontuan izaten bada ez dagoela lege-mugarik edozein pertsonak –izan fisikoak edo juridikoak– parte hartzeko.

198. Ikuspegi honetan kontuan hartzekoa da nola justifikazio objektiborik gabe erlijio-erakundeentzat bestelako tratua sartzen duen baldintza mugatzaile batek, batez ere kontuan hartzen bada zabaltasunez onartzen dela hirigintza-sektorean (bertan herri-ekintza ere onartuta dago) herritarrek parte hartu behar dutela.

199. Horrela, LHLren 8. artikuluak herritarren parte-hartzearen printzipioa termino zabaletan kontsakratzen du: «Hirigintza-antolamendua formulatu, izapidetu, onartu eta betearaziko da parte-hartzea, bere forma guztietan, sustatuta eta erraztuta, Lege honetan berariaz aurreikusitako bermearekin» –1. apartatua—, berariaz onartuko da interesdun gisa agertzea, horretarako egiaztatu beharrik gabe legitimazio berezia duela plangintza izapidetzeko, betearazteko eta hirigintza-diziplinako prozeduretan (8.2.a) artikulua).

200. Hiri-lurzoru eta -birgaitzeari buruzko Legearen testu bateginaren 5. artikuluak, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, bere e) apartatuan onartzen du, besteak beste, «herritar guztiek honetarako eskubidea dutela: .../... Lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu eta -exekuzioko eta haien ingurumen-ebaluazioko edozein tresna prestatzeko eta onesteko prozeduretan egiazki parte hartzea, alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexuak aurkeztuz, eta administraziotik erantzun arrazoitu bat jasotzea, administrazio horren eta kasuan kasuko prozeduraren araubide juridikoa arautzen duen legeriaren arabera.».

201. Elizek, erlijio-konfesioek eta -komunitateek parte hartzeari buruzko azken gogoeta gisa, balora daiteke kontsultarako izapide berezi bat txertatzea, udalak informazioa biltzeko plangintza-erabakiak hartu aurretik.

202. Hirigintza-sektorearen espezifikotasun eta konplexutasunari buruz lehen adierazitako arrazoiak direla eta, izapide horrek egite-prozeduratik kanpo egon beharko luke; beraz, LHLren 86. artikuluan aurreikusitako azterketen eremura birbideratu beharko litzateke.

7., 8. eta 9. artikuluak:

203. Manu hauetan biltzen dira kultu-zentro bat irekitzeko egin daitezkeen esku-hartzeak.

204. 7. artikuluan adierazten da hirigintza-lizentzien (obra-lizentzia eta irekiera-lizentzia) araubide orokorraren mende daudela.

205. Jarraian, 8. artikuluak –«Kultu-zentroak irekitzeko jakinarazpena» izenburua duenak– bi eduki ditu.

206. 1. apartatuan, TAAILen hamazazpigarren xedapen gehigarrian transkribatu dugun xedatutako esku-hartzea aipatzen da.

207. Oinarrizko arauak autonomia-legegileari aukera ematen dio erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aukeratzeko. Aurreproiektuak azken horren alde egin du; izan ere, intentsitate gutxienarekin esku hartzeko modua da, eta hori, ekimenak sustatu nahi duen kultu-eskubidea baliatzeko helburuaren ikuspegitik, erabaki egokia da.

208. Halere, hirigintza-lizentziekin edo jarduera eta instalazio sailkatuen (horien funtsezko araubidea eta prozedura-araubidea aurreproiektuak igorri behar duen beste arau batzuetan dago arautua) arloan esku-hartzearekin gertatzen denaren kontrara, kultu-tokiak irekitzeko aurretiazko jakinarazpenaren kasuan, TAAILen hamazazpigarren xedapenaren esparruan, izapide horren araubide juridikoak konfiguratu behar du, alde batera utzi gabe ondorengo araudi-lankidetza.

209. Ikuspegi horretan, positiboa izango litzateke 1. apartatuko mezua osatzea, gutxienez, adierazteko kultu-zentro bat ireki baino lehen aurretiazko jakinarazpen bat aurkeztu behar dela udalean eta bertan adierazi behar dela Erlijio Erakundeen Erregistroak egindako ziurtagiri bat dutela. Ziurtagiri horrek egiaztatuko du elizaren, erlijio-konfesioaren edo -komunitatearen nortasun juridikoa eta kultu-zentroaren kokapena jasoko da.

210. Iradokizun hori alde batera utzita, arreta berezia eskatzen duen alderdi bat dago.

211. 8. artikuluan bertan, 2. apartatuan, gogoratzen da kultu-zentro baten irekiera jarduera eta instalazio sailkatuei buruzko araudiaren mende egon daitekeela. Gaur egun EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean dago jasoa.

212. Egite-espedientetik ondoriozta daiteke, 2. apartatua Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako proposamenetik datorrela. Halere, proposamen horrekin batera dauden arrazoiak irakurrita (199tik 203ra bitarteko folioak) ondorioztatzen da, hasierako ideia dela proiektatutako arauan ez dagoela izapide espezifikorik erlijio-jardueragatik.

213. Alegazioetan hau adierazi da espresuki: «…Sail honek interpretatu duen bezala, aurreproiektuaren nahia ez bada kultu-lokaletarako eta erlijio-ekipamenduetarako lizentzia sektorial espezifiko berri bat sortzea, iradokitzen da artikulatuan aplikatu beharreko araudira igortzea». Premisa horrekin eduki hau sartzea proposatu zen:

> 8. artikulua.- Udalaren esku-hartzea kultu-lokalak eta gainerako erlijio-ekipamenduak irekitzeko jarduera sailkatuen arloan.
>
> Kultu-lokalen eta gainerako erlijio-ekipamenduen irekiera eta funtzionamendua EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean araututako jarduera eta instalazio sailkatuen araubidearen mende daude.

214. Halere, nahiz eta hasierako lizentzia sektoriala (arauaren lehenengo zirriborroetan agertzen zena) desagertu, kultu-zentroak irekitzeko aurretiazko jakinarazpenak iraun egiten du. Eta, nahiz eta egiazki esku hartzeko maila intentsitate gutxiagokoa izan, kultu-zentroen irekierari lotutako izapide bat da eta hori ere beste udal-prozedura batzuen xedea da.

215. Aipatutako sailak ere azaltzen duen bezala, gaur egungo jarduera sailkatuen araubidearen arabera, «kultu-lokaletan eta gainerako erlijio-ekipamenduetan egiten den jarduera, –salbuespenak izan ezik– jarduera sailkatuen aurretiazko jakinarazpenaren araubidearen mende egongo litzateke»

216. Beraz, oraingoz alde batera utzita obren hirigintza-lizentzia, kultu-zentro baten irekiera aurreproiektuaren aurretiazko jakinarazpenaren mende eta jarduera eta instalazio sailkatuen araudiaren arabera aplikatu beharreko izapideen mende egongo da (era berean, beste arau sektorial batzuek ere eragin diezaiokete, adibidez, autobabes-planei buruzko araudiak).

217. Bi izapideak, bestalde, beharrezkoak dira kultu-zentroa irekitzeko (ez da nahikoa jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena ezta kultu-zentroaren irekieraren aurretiazko jakinarazpena), gero 11. artikuluak onartzen duen bezala.

218. Horri erantsi behar zaio, aurretiazko jakinarazpenaren (APELen 69.3. artikulua) lege-konfigurazioaren arabera, hori aurkeztuz gero jarduera has daitekeela; beraz, ez dirudi aurreproiektuan saihestu daitekeenik baldintza horretatik datorren egoera jasotzen duen xedapenen bat (bestela, komuna da beste eremuetan, esaterako, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jarduerenean).

219. Balizko formula bat izango litzateke adieraztea, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenetan, 3/1998 Legearen arabera –edo ordezten duen araudiaren arabera– bildu behar diren baldintzez gain, erlijio-erakundeak jakinarazi beharko duela Erlijio Erakundeen Erregistroaren ziurtagiria duela. Kultu-zentroen kokapena jasoko da ziurtagiri horretan.

220. Kultu-zentroa irekitzeko obren lizentzia bat lortu behar bada aurrez, aurretiazko jakinarazpenarekiko koordinazioa 3/1998 Legearen 61.1. artikuluko sistemaren bidez bideratu daiteke. Horren arabera, obren lizentzia bat eskatzen zaion udalak ezin du eman lizentzia hori aurrez ez badu egiaztatzen jarduera sailkatuen araubidea betetzen dela.

221. EAEn kultu-zentro baten irekierari aplika dakiokeen araubidearen erregulazioari argitasun eta segurtasun juridiko handiagoa emateko, organo sustatzaileak kontuan hartu beharko ditu gogoeta hauek.

222. Lehenik, 8. artikulua gorde daiteke esklusiboki arautzeko bere izenburuak iragartzen duena eta TAAILerako igorpena ordeztu (edo osatu) kultu-zentroak irekitzeko aurretiazko jakinarazpenaren erregulazio batekin, adierazitako ildoan.

223. Bigarrenik, –7. artikuluko irizpide berdina jarraituta– artikulu berri bat egin daiteke jasotzeko, kultu-zentroen irekiera jarduera sailkatuei buruzko erregulazioaren mende dagoela 8. artikuluaren 2. apartatuan orain jasotzen diren baldintzetan, eta sailaren proposamen sektorialean zegoen izenburua erreskatatuta. Era berean, esku-hartze hau lotu daiteke 10. artikuluan ezarritakoaren arabera zehazten diren baldintza tekniko eta materialekin.

224. Hirugarrenik, komenigarria izan daiteke, EAEn kultu-zentro baten irekierari dagokion araubidea erabat uler dadin, balioestea erregelamendurako berariazko igorpen bat egitea (10.2. artikuluan aipatzen den berdina izan daiteke) gainerako prozeduretan ezar daitezen (hirigintzakoak edo jarduera sailkatuenak) kultu-zentroak irekitzeko aurretiazko jakinarazpena bideratzeko aukera ematen duten jarraibideak, erraztu egiten baitu oinarrizko eskubidea baliatzea, kultu-zentroak irekitzeko prozedura arin eta seguru bat ezartzeak.

225. 9. artikuluari dagokionez, antzematen da bere gogoratze-helburua, eta horrek erabateko zentzua du proiektatutako erregulazioan, kultu-zentroetan bestelako

jarduerak ere egin daitezke-eta (adibidez, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren araudian araututako batzuk), eta horiek egiteko aplikatu beharreko araudi sektorialean ezartzen dena bete beharko da.

10. artikulua:

226. Horien izaera kontuan hartuta, kultu-zentro edo tokiak ez dira «sarbide publikokoak»; beraz, gomendatzekoa izango litzateke manu honetan, aurreproiektuan zehar erabiltzen den izendapena: «jendea biltzen den kultu-zentro».

227. Kultu-zentroak jendea biltzen den tokiak dira, eta horietan kultuko, irakaskuntzako, asistentziako, prestakuntzako eta antzekoetarako jarduerak egiten dira, eta, beraz, artikulu honetan adierazten diren eta horiek ezartzeko erregelamendura igortzen duen segurtasunaren, osasungarritasunaren, irisgarritasunaren, babes akustikoaren eta antzekoen baldintzak bete beharko dituzte. Zehazten diren baldintza tekniko eta materialak betetzea izango da udalaren esku-hartzearen xedea jarduera sailkatuen araubidean.

228. 1. apartatuaren bigarren enuntziatua, egiazki, jarduera baten erregulazio osoari aplikatu beharreko printzipioak gogoratzeko adierazpen bat da (sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikulua). Hori manuan txertatzeak zentzua du, ezarriko diren baldintzek zerikusia baitute oinarrizko eskubidea baliatzearekin.

229. Halere, manuaren barne-logikan, erregelamendu-arauemaileari zuzendutako mezu bat da eta hark kultu-zentroek bete beharreko baldintzak ezartzean kontuan izan beharko du; beraz, horren kokapena hirugarren apartatu berri bat izatea balora daiteke.

11. artikulua:

230. Printzipioz, udalek izan ditzaketen ahalmenak kultu-tokiek aplika dakiekeen araudia betetzen dutela bermatzeko, ordenamendu juridikoak legezkotasuna bermatzeko esleitzen dizkien orokorrak dira.

231. 1. apartatuak honako hau dio:

> 1.- Udalak indarrean dagoen araudian xedatzen diren baldintza tekniko eta materialak betetzea exijitu ahal izango du, betetze hori ezinbestekoa denean kultu-zentroaren segurtasun eta osasungarritasun publikoak ziurtatzeko. Baldin eta eskakizun horri erantzuten ez bazaio, eragindako erlijio-erakundeari entzun ondoren, Udalak itxiera, hustea edo erlijio-eskubidea edo -jarduera baliatzen jarraitzea eragozten duen edozein neurri hartu ahal izango du, baldin eta kultu-zentroaren irekiera eta erabileraren jakinarazpena ez badute egiten edo jakinarazpena izanda edo hirigintza-lizentzia

izanda, bertako edukia betetzen ez badute, lokalaren segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko eskatzen diren arauak urratzen badituzte, edo nahitaezko hirigintza-lizentzia lortu arte edo exijitzen diren legezko eta erregelamenduzko baldintzen aurkako akats edo irregulartasunak zuzentzen dituzten arte.

Akats eta irregulartasunak zuzentzeko, legez ezarritako epea emango da, behar diren obren ezaugarri eta baldintza teknikoen arabera. Epea pasata ez badira akatsak zuzendu eta irregulartasunak konpondu, Udalak zentroa itxiko du.

232. Apartatuan hainbat kasu nahasten dira, eta horiek era egokian bereizi eta sistematizatzea komeniko litzateke.

233. Udalak eskumena du kultu-zentroei eska dakizkiekeen baldintza tekniko eta material guztiak betetzen direla egiaztatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera (ez soilik segurtasun eta osasungarritasun publikoa ziurtatzeko).

234. Kontuan hartu gabeko errekerimendu bat aipatu baino lehen, zein esparrutan gertatu den deskribatu beharko litzateke.

235. Udalak –beti arrazoietan oinarritutako ebazpenarekin, erlijio-erakundea entzun ondoren– itxi edo zigilatu ahal izango ditu dagokien hirigintza-lizentzia ez duten edo eska daitezkeen aurretiazko jakinarazpenak aurkeztu ez dituzten kultu-zentroak.

236. Era berean, neurri horiek hartu baino lehen, kultu-zentroaren erlijio-erakunde titularrari errekerimendu bat egin ahal izango dio detektatutako gabezia zuzentzeko, horretarako epe bat emanez. Emandako epean ez bada eskatutakoa egiten, Udalak errekerimenduan adierazitako neurria hartuko du.

237. Udalak –beti arrazoietan oinarritutako ebazpenarekin, erlijio-erakundea entzun ondoren– kultu-zentroak itxi edo zigilatu ahal izango ditu, baldin eta horiek nahiz eta hirigintza-lizentzia izan edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu, pertsonen eta ondasunen segurtasuna edo osasungarritasun publikoa arriskuan jartzen duten hutsuneak badituzte.

238. Hartutako neurriak mantendu egingo dira, harik eta horiek hartzeko arrazoiak desagertzen diren arte.

239. Jasotako jarduketa publikoek kultu-askatasunaren oinarrizko eskubidea baliatzearekin lotura izateak, bermatzen du mezu bat txertatzea (artikuluaren 2. apartatuan orain agertzen denaren modukoa). Mezu horrekin indartu egingo da hartzen den neurri zehatzak zaindu nahi den ondasun juridikoarekin izan behar duen proportzionaltasuna

eta beti kontuan izango da kultu-askatasunaren oinarrizko eskubidea baliatzeari egindako eragina. Printzipio hori zehazteko, kultu-zentroaren instalazioen zigilatze partziala jaso behar da.

240. 3. apartatuaren amaieran deskribatzen diren neurrien helburuari dagokionez, artikuluak ezartzen duen araubide osoa inspiratu behar duen printzipio bat da; beraz, izaera horrekin bat datorren kokapen bat iradokitzen da.

13. artikulua:

241. EAEko Erlijioen Arteko Kontseiluak txosten eta irizpenen bidez esku-hartzeari buruzko funtzio bat jasotzen da, «Kultu Zentroen irekierako espedienteetan zuzenean edo zeharka diskriminazio-salaketak egiten direnean».

242. Badirudi aurreproiektuaren aurreko bertsioetan agertzen zen eta azkenean ezabatu zen 11. artikulutik (bitartekaritza-bideak) datorrela.

243. Oraingo idazketa leunagoa bada ere, uste dugu berriz formulatu beharko litzatekeela, badirudi-eta kultu-zentro bat irekitzeko prozeduran sartzea zaila den izapide bat txertatzen duela.

244. Prozedura hori arautua da (eta bereziki izaera horrek eskubidea baliatzea babesten du); beraz, bertan diskriminazio-salaketa bat ekar dezaketen administrazio-jarduketak izatea bideratu egin behar da –erlijio-askatasunaren eskubidearen lesioa era eraginkorrean zuzentzen dela bermatzeko–, jarduketa zehatzaren eta adierazten den prozedura-unearen arabera, lesionatutako eskubidea berrezartzeko ordenamendu juridikoak eskaintzen dituen bideen bidez.

245. Azkenik, auzitegiek kontrolatuko dute Administrazioak kultu-zentro bat irekitzearekin lotuta hartutako erabakia era objektibo eta arrazoituan justifikatuta dagoen ala ez, diskriminazio-traturik gauzatu gabe; izan ere, kasu horretan, tratu-diferentziak helburu legitimo bat izango du eta hori lortzearekiko proportzionala izango da.

246. Arrazoi berdinengatik, funtzio hau: «Aholkatzea kultu-toki eta -zentroak irekitzeko prozeduran erakundeek eta erlijio-konfesioak eskatuta planteatzen diren kontsultetan» prozedura hori hasi aurreko fasera mugatu beharko litzateke.

247. Funtzio honek: «Udalaren hirigintza-plangintzaren segimendua, elizen, erlijio-konfesioen eta -komunitateen presentziaren mapak eta EAEko udalerrietan horiek dituzten beharren diagnostikoak egiteko» lotura dauka EUDELek egite-prozeduran formulatutako alegazioetako batekin; bertan, hau nabarmentzen zuen: «Mekanismoak diseinatu behar dira behar beste informazio lortzeko erlijio-konfesio desberdinei buruz eta arrazoizko jarraibideak diseinatu behar dira erlijio-errealitate horrek udal-mugartean izan dezakeen bilakaerari buruz. Hirigintza-informazio hori,

hirigintza-ratio edo estandar forma izan dezakeena, ezinbestekoa da hirigintza-arloko eskumena baliatzeko eta era egokian neurtzeko ekipamenduen interesak eta beharrak eta azkenik hirigintza-antolamenduaren planetan aukera eman behar du plangintzak bere gain hartzen dituen erabakiak egokitzeko (2/2006 Legearen 4.2. art.)».

248. EAEn jarduten duten elizei, erlijio-konfesioei eta -komunitateei buruzko informaziorik ezari, aurreproiektua landu denean onartu dena, gehitu behar zaio udalerriek ere ez dutela alderdi horri buruzko informaziorik, beren alegazioan adierazi duten bezala, eta hori oztopo bat da aurreproiektuak aipatzen dituen ekipamendu-erreserbak ezartzerako orduan.

249. Hori ikusita, positiboa izan daiteke ebaluatzea 6.4. artikuluko xedapena eta EAEko Erlijioen Arteko Kontseiluari esleitutako funtzioa behar bestekoak diren plangintza zuzena zabaltzeko eta kultu-eskubidea baliatu dadila errazteko aurrez behar den informazioa lortzeko; izan ere, aurreproiektuan baldintza oso garrantzitsutzat jo da bertako irizpenarekin lortu nahi diren helburuak erdiesteko.

Bigarren xedapen gehigarria:

250. Adierazitakoaren arabera, EAELOren 5. artikuluak jasotzen duen Erlijio Erakundeen Erregistroan inskribatzeak elizei, erlijio-konfesioei edo -komunitateei nortasun juridikoa ematen die eta legegile arruntak errespetatu behar duen oinarrizko eskubidearen funtsezko edukia osatzen du (azaldu den bezala, GEEAren doktrinaren zentzu berdinean).

251. Erregistro hori arautzen duen uztailaren 3ko 594/2015 Errege Dekretuak hau adierazten du: «Erregistro orokor eta bateratua da lurralde nazional osorako» eta, adierazi dugun bezala, emantzat deklaratzen da Estatuari EKren 1491.1. artikuluan (azken xedapenetatik lehenengoa) esleitutako konpetentzia baliatuta.

252. Ildo horretan, era berean, gogoratu behar da, Kataluniako Estatutuaren 161. artikuluak –irizpen honetako 140. lerrokadan transkribatu da– Erlijio Erakundeen Erregistroarekiko autonomia-eskumena jasotzean ezartzen dituen baldintzei dagokienez, lankidetza-hitzarmen bat formalizatu zela Estatuko Administrazio Orokorraren eta Kataluniako Generalitatearen Administrazioaren artean 2010eko irailaren 22an (BOE, 26koa, 286. zk.). Hitzarmen horren xedea zen Generalitatearen partaidetza artikulatzea Erlijio Erakundeen Erregistroaren kudeaketan eta Erlijio Askatasunerako Aholku Batzordean, partaidetza horren baldintzak legez ezarrita.

253. Gaur egun, Erlijio Erakundeen Erregistroa arautzen duen uztailaren 3ko 594/2015 Errege Dekretuak bere lehenengo xedapen gehigarrian xedatzen du autonomia-erkidegoekin lankidetza-hitzarmenak sinatzeko aukera, dagozkien autonomia-estatutuetan

ezarritakoaren esparruan, autonomia-erkidegoek parte har dezaten Erlijio Erakundeen Erregistroaren kudeaketan.

254. Jarduketa hauek berresten dute zaila dela EAE arauz sartu ahal izatea Erlijio Erakundeen Erregistroaren «antzeko erregistro-tresna» bat eratzeko eremuan.

255. Bestetik, interpretatzen bada manuaren helburua dela ezartzea autonomia-erregistro batean inskribatuta egon behar dela trafiko juridikoari dagozkion egintza jakinak egiteko (hirigintza-lizentzia bat eskatzea, aurretiazko jakinarazpen bat aurkeztea edo ondasun publikoen noizbehinkako erabilera laga edo baimendu dadila eskatzea), eskakizun bat izango litzateke EAEko elizentzat, erlijio-konfesioentzat edo -komunitateentzat (ez zaiena eskatzen beste pertsona juridiko batzuei) baina ez da daturik ematen hori justifikatzeko, eta horri buruz ere ez da erraza identifikatzea inskripzio horrek babestuko lukeen ondare juridikoa.

B) Legegintza-teknikako oharrak

256. Jarraian, teknika arauemailearen iradokizunak adierazi dira lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideetan, Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez 1993ko martxoaren 23an onartutakoetan, oinarrituta.

3.- En todo caso, los Ayuntamientos podrán ejercer sus facultades urbanísticas para determinar los emplazamientos más adecuados de los equipamientos religiosos y lugares de culto salvaguardando el interés general de la comunidad y promoviendo la

convivencia y la cohesión social, a través de decisiones y medidas respetuosas con el ejercicio de la libertad religiosa y de culto de las diferentes comunidades religiosas y con la dignidad y los derechos de todas las personas.

4.- En el procedimiento de determinación y asignación del suelo destinado a usos religiosos se aplicará la legislación urbanística estatal y autonómica vigente, así como la normativa foral respectiva y las disposiciones reglamentarias y ordenanzas municipales que las desarrollen.

Artículo 6.- Utilización temporal o esporádica de equipamientos o espacios de titularidad pública para fines religiosos

1.- Para llevar a cabo actividades de carácter religioso, las administraciones públicas dispensarán un trato igualitario a todas las confesiones y comunidades religiosas respecto:

a) A la cesiones y autorizaciones de uso privativo de equipamiento y espacios públicos
b) Al uso privativo del dominio público.
c) A la ocupación temporal de la vía pública.
d) A la cesión de bienes patrimoniales".

2.- A los efectos del uso privativo del dominio público a que se refiere el apartado anterior, los planes de ordenación urbana municipal podrán destinar lugares, locales o edificios de uso pluriconfesional para la realización esporádica de las actividades a que se refiere esta ley, siempre y cuando la ocupación del bien de dominio público tenga lugar con instalaciones desmontables o con bienes muebles.

Capítulo Segundo

Licencia municipal y urbanística de centros de culto (y otros espacios religiosos)

Artículo 7.- Licencia municipal de centros de culto (y otros espacios destinados a uso religioso)

1.- La apertura y funcionamiento de un nuevo centro de culto de concurrencia pública requerirá, con carácter previo, la concesión de una licencia municipal, denominada licencia de actividad clasificada, que tendrá en todo caso carácter reglado. Dicha licencia no podrá ser denegada por la administración competente, una vez comprobado que se cumplen por la entidad religiosa solicitante todos los requisitos urbanísticos y técnicos exigibles para la apertura de un centro religioso.

2.- Será también necesario solicitar licencia municipal de centros de culto, siempre que se proyecte acometer en ellos reformas que vengan consideradas como de obra mayor y cuya realización exija, en consecuencia, obtener la correspondiente licencia. Ambas licencias podrán solicitarse de manera simultánea.

3.- En el caso de que, de conformidad con la presente ley, los locales sometidos a licencia municipal de apertura y uso de centros de culto, requieran a su vez licencia urbanística, la persona peticionaria o promotora, en nombre de la correspondiente iglesia, confesión o comunidad religiosa, debe solicitar ambas licencias en una sola instancia. La instancia debe acompañarse de un proyecto único que acredite el cumplimiento de la normativa urbanística que resulte de aplicación.

Artículo 8.- Condiciones materiales y técnicas sobre seguridad y salubridad de obligado cumplimiento para los centros de culto

1.- Los centros de culto de acceso público deberán reunir las condiciones materiales y técnicas necesarias para garantizar la seguridad de las personas usuarias y la higiene de las instalaciones, así como para evitar molestias a terceras personas. En todo caso, estas condiciones deben ser adecuadas y proporcionadas a la finalidad para la que han sido establecidas, y en ningún caso podrán impedir ni dificultar de forma arbitraria o injustificada la actividad que se lleva a cabo en dichos centros.

2.- El Gobierno vasco establecerá por reglamento las condiciones técnicas y materiales mínimas de seguridad, salubridad, accesibilidad, protección acústica, aforo, evacuación, así como las destinadas a evitar molestias a terceros, que deben cumplir los lugares de culto de acceso público, teniendo en cuenta su tamaño y ubicación, velando los entes locales por su cumplimiento.

La inobservancia de estos criterios y condiciones por una corporación municipal, o la pasividad de ésta a la hora de dar respuesta a las peticiones de las comunidades religiosas, implicará la mediación del Gobierno Vasco, que podrá realizarse en el marco de la Comisión asesora recogida en esta misma ley.

3.- En ningún caso se impondrá a los centros regulados en la presente ley condiciones de seguridad e higiene más estrictas que las exigidas, con carácter general a los establecimientos abiertos al público.

Artículo 9.- Protección contra la contaminación acústica

Los centros de culto habrán de cumplir en todo caso con las disposiciones normativas ambientales sobre contaminación acústica contenidas en la regulación estatal y autonómica, así como en las ordenanzas municipales aprobadas con esa finalidad.

Artículo 10.- Medidas contra el incumplimiento de las condiciones reglamentarias de apertura de centros de culto

1.- El pleno de la corporación municipal del municipio correspondiente podrá exigir el cumplimiento de las condiciones técnicas y materiales previstas en la presente Ley, cuando sea imprescindible para asegurar la seguridad y la salubridad públicas del centro de culto. En caso de no ser atendido este requerimiento, previa audiencia de la entidad religiosa afectada y con consulta a la Comisión específica para asuntos religiosos, se podrá proceder por la Corporación municipal al cierre y desalojo de los locales de concurrencia pública que no dispongan de licencia municipal de apertura y uso de centros de culto, o bien de aquellos que, disponiendo de licencia, incumplan el contenido de ésta, o infrinjan las normas exigidas para garantizar la seguridad y la salubridad del local, hasta que no se obtenga la preceptiva licencia municipal o se proceda a subsanar los defectos e irregularidades contrarios a los requisitos legales o reglamentarios exigidos.

Para la subsanación de esos defectos e irregularidades se otorgará un plazo adecuado y suficiente de conformidad con las previsiones reglamentarias y con las características y condiciones técnicas de las obras necesarias, transcurrido el cual, sin que se hayan resuelto las deficiencias y salvadas las irregularidades, se podrá proceder por la Corporación municipal al cierre del centro.

2.- No obstante, y para garantizar el ejercicio de la libertad de cultos, la corporación municipal podrá acordar mediante resolución motivada, siempre y cuando quede

garantizada la seguridad de las personas, la sustitución de la medida de cierre del establecimiento a la que se refiere el apartado 1 por el precinto de parte de las instalaciones.

Capítulo Tercero

Licencias urbanísticas y otras autorizaciones

Artículo 11.- Licencias urbanísticas

Los locales de culto y demás equipamientos religiosos estarán sometidos al régimen general aplicable a las licencias urbanísticas relativas a la apertura y funcionamiento de los centros de culto.

Artículo 12.- Otras autorizaciones

Los centros de culto, en cuanto a otras actividades concretas que puedan llevarse a cabo en los mismos, deben disponer de las autorizaciones establecidas por la normativa sectorial de aplicación. En todo caso, quedarán exentas de la exigencia de autorización las conferencias y cualesquiera otras actividades culturales o recreativas.

Capítulo Cuarto

Disposiciones comunes sobre el procedimiento administrativo, de apertura y urbanístico

Artículo 13.- Expediente administrativo único

1.- La licencia urbanística que corresponda según los casos, así como la licencia municipal de centros de culto, deberán tramitarse en un expediente único, sin perjuicio de que deba presentarse la documentación técnica que resulte exigible para cada licencia.

2.- La entidad interesada solicitará las dos licencias a las que se refiere el apartado anterior en una sola instancia, a la que se acompañará la correspondiente documentación técnica, que asimismo puede ser objeto de unificación en un solo expediente.

3.- En todos los casos en los que la tramitación de la licencia exija contar con certificaciones, informes u otros documentos previos que procedan u obren en poder de la misma entidad local, la oficina que tramita el expediente principal debe solicitarlos directamente, comunicándolo a la entidad interesada.

4.- Las administraciones públicas del País Vasco, en lo que se refiere al establecimiento de centros de culto, no exigirán más licencias o autorizaciones que las establecidas taxativamente en la presente ley.

Capítulo Quinto

Participación de entidades religiosas en los procedimientos para la determinación de lugares religiosos y de culto

Artículo 14.- Participación de las confesiones y comunidades religiosas en los procedimientos administrativos relativos a la utilización de espacios públicos destinados al culto u otras actividades religiosas

1. Las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas participarán en el procedimiento de determinación y asignación de los espacios reservados a lugares de culto y equipamientos religiosos, en los supuestos y en los términos establecidos para la información pública y colaboración ciudadana previstos en la legislación urbanística.

2.- Como órgano de diálogo y colaboración institucional de la Comunidad Autónoma con las diferentes confesiones y comunidades religiosas se creará una Comisión de carácter consultivo, para el asesoramiento e informe en aquellas iniciativas y decisiones de los poderes públicos del País Vasco que puedan afectar de forma específica al ejercicio de las libertades religiosa y de culto. En esta Comisión estarán representados igualmente las Diputaciones Forales, los Ayuntamientos, personas expertas y otras asociaciones ciudadanas con interés cualificado en la aplicación de la presente ley.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Disposición adicional primera.- Acuerdos con la Santa Sede y otras iglesias, confesiones y comunidades religiosas

Lo establecido por la presente ley se entiende sin perjuicio de los acuerdos suscritos con la Santa Sede, y de las normas con rango de ley que aprueban los acuerdos de cooperación firmados por el Estado con las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas.

Disposición adicional segunda.- Acreditación para la obtención de licencias

Sin perjuicio de lo que se dispone en el artículo I.2 del Acuerdo entre el Estado español y la Santa Sede sobre asuntos jurídicos, las iglesias, las confesiones y las comunidades religiosas que desarrollen su actividad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para poder solicitar la licencia urbanística y la licencia municipal de centros de culto o la cesión o autorización para el uso esporádico a que se refiere el artículo 6, habrán de acreditar su inscripción en el registro estatal de entidades religiosas o en cualquier otro instrumento registral de naturaleza análoga que se pueda crear en la Comunidad Autónoma.

Disposición adicional tercera.- Discriminación directa e indirecta en el ejercicio de la libertad de culto

Se produce discriminación directa cuando una iglesia, confesión o comunidad religiosa recibe, en algún aspecto relacionado con la apertura y funcionamiento de lugares o espacios de culto, un trato diferente del recibido por otra iglesia, confesión o comunidad en una situación análoga, siempre que la diferencia de trato no tenga una finalidad legítima que la justifique objetiva y razonablemente y los medios utilizados para alcanzar dicha finalidad sean adecuados y necesarios.

Se produce discriminación indirecta cuando un plan de ordenamiento urbanístico municipal, una licencia o una concesión, un criterio o una práctica aparentemente neutros ocasionan una desventaja particular a una iglesia, confesión o comunidad religiosa respecto a otras en el derecho a disponer de un lugar o espacio para el culto. No existe discriminación indirecta si la actuación tiene una finalidad legítima que la justifica objetiva y razonablemente y los medios para alcanzar esta finalidad son adecuados y necesarios.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Disposición transitoria primera.- **Adaptación a la Ley de los Planes de ordenación urbanística municipal**

1.- La exigencia establecida por el artículo 5 es aplicable a los planes de ordenación urbana municipales que, estando en tramitación o en proceso de revisión en el momento de la entrada en vigor de la presente ley, no hayan sido objeto de resolución definitiva.

2.- Aquellos municipios que carezcan de un plan de ordenación urbanística municipal adaptado a las determinaciones del artículo 5, deberán adaptarlo a ellas, en la primera de las modificaciones del planeamiento urbanístico que se apruebe tras la entrada en vigor de la presente Ley.

3.- Los municipios deben adecuar, en todo caso, su planeamiento general al contenido del artículo 5 de la presente Ley en el plazo de 5 años desde la entrada en vigor. Una vez cumplido dicho plazo sin que se haya producido la reforma y adaptación del planeamiento urbanístico, las entidades religiosas, y la ciudadanía podrán exigir la adecuación en vía jurisdiccional.

Disposición transitoria segunda.- Legislación aplicable a los centros incluidos en el Inventario de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

1.- Los centros de culto incluidos en el Inventario del Patrimonio Cultural Vasco se rigen por lo establecido en la Ley 7/1990 del Patrimonio Cultural Vasco. La presente ley no es aplicable a estos centros.

2.- La Ley 7/1990, del Patrimonio Cultural Vasco será igualmente de aplicación exclusiva a aquellos centros de culto que queden incluidos en el Inventario dentro del plazo al que se refiere la disposición transitoria tercera.

Disposición transitoria tercera.- Centros no incluidos en el Inventario del Patrimonio Cultural vasco

Los centros de culto acceso público existentes en el momento de la aprobación de la presente ley, no incluidos en el inventario al que se refiere la disposición transitoria segunda, deberán cumplir los requisitos básicos de seguridad, salubridad y condiciones ambientales que se establezcan reglamentariamente en desarrollo de la presente Ley. La adaptación habrá de realizarse en el plazo de cuatro años a partir de la aprobación del reglamento. A tales efectos, quienes ostenten la titularidad de los centros vienen obligados a comunicar a los ayuntamientos el cumplimiento de los requisitos mencionados.

Disposición transitoria cuarta.- Periodo de adaptación a las condiciones técnicas y materiales de los centros de culto

Los centros de culto que, a la entrada en vigor de la presente Ley, no cumplan con los requisitos materiales y técnicos mínimos mencionados en el artículo 8, dispondrán del periodo máximo que establezca el reglamento de desarrollo para adaptarse a los mismos, que no podrá exceder de 4 años.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición final primera.- Aprobación del reglamento

El Gobierno vasco, en el plazo de seis meses a contar desde la entrada en vigor de la presente ley, debe aprobar el Reglamento de desarrollo de la misma.

Disposición final segunda.- Entrada en vigor

La presente Ley entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

7/2016 Dekretua, otsailaren 24koa, Lehendakariarena, Kultu Aretoen Legearen aurreproiektua aldez aurretik onartzeko dena.

Lehendakariaren otsailaren 2ko 1/2016 Dekretuaren bitartez, agindua eman zen Kultu Aretoen Legearen aurreproiektua lantzeko prozedura hasteko, eta Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiko Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren esku utzi zen aurreproiektu hori izapidetzea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7. artikuluarekin bat etorriz, xedapen-proiektu orokorrak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoak onartu beharko ditu proiektuok, horiei dagozkien negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideak egin aurretik.

Horregatik guztiarengatik, egindako aurreproiektuaren testua aztertuta, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Kultu Aretoen Legearen aurreproiektua; eranskinean jaso da aurreproiektu hori.

Bigarrena.- Legearen aurreproiektua egiteko prozedurarekin aurrera jarraitzeko agintzea, Lehendakariaren otsailaren 2ko 1/2016 Dekretuan eta abenduaren 22ko 8/2013 Legean zehaztutako izapideen arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluak onar dezan.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 24an

Lehendakaria,

IÑIGO URKULLU RENTERIA

ZIOEN AZALPENA

Antolamendu juridiko demokratiko guztiek, Giza Eskubideen Nazioarteko Araubideak bezalaxe, pertsona orok duen erlijio- eta kultu-askatasuna aitortzen dute, oinarrizko eskubidetzat hartuta eta berme juridiko handienarekin. Erlijio-askatasuna 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluan ere aitortzen da, eta Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bidez eta Estatuak elizekin eta erlijio-erakundeekin egindako lankidetza-hitzarmenen bidez garatu da. Europa mailan, berriz, gogoan izan behar da eskubide horri zer-nolako babesa ematen dioten Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikuluak, eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 10. eta 22. artikuluek.

Era berean, azken hamarkadetan, erlijio-fenomenoek aldaketa handiak izan dituzte gure inguruko gizarteetan. Oro har, esan daiteke erlijioaren bilakaera hori sinesmen-aniztasunari edo kidetza-sentimenduen aniztasunari zor zaiola, bai eta gure gizarteetako zati garrantzitsu bati eragiten dioten sekularizazio-prozesuei ere. Eta, euskal gizartean zehazki, erlijio-aniztasuna ez da erabateko berritasuna, baina gero eta garrantzi handiagoa du sozialki, eta, hori dela-eta, gero eta beharrezkoagoa da aniztasun horren kudeaketa publiko egokia egitea. Euskal Autonomia Erkidegoa, funtsean, nahikoa homogeneoa izan da zenbait mendez, erlijio-adierazpenei dagokienez; baina, gaur egun, paisaia dibertsifikatua eta askotarikoa dugu, bai hainbat erlijio-tradizio daudelako, bai erlijioak modu desberdinetan antolatzen direlako. Euskal gizartearen ezaugarri hori, erlijio-aniztasun gero eta handiagoa, hainbat faktore sozialen ondorio da. Azkenaldiko migrazio-mugimenduek Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erlijio-tradizioak ugaritzea edo lehendik zeudenak finkatzea ekarri dute. Horrez gain, beste prozesu sozial batzuk ere kontuan hartu behar dira; hala, esaterako, bereizitako taldeen arteko gizarte-elkarreraginerako aukera handiagoa dago, komunikazio edo elkarreragin modu berriek, teknologiaren eta komunikazioen alorreko aurrerapenek eta bizi-esperientzien gizarte-eskaintza handiagoak eraginda. Azken batean, Europako beste gizarte garatu batzuetan bezala, euskal gizartean erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta fenomeno hori, segur aski, behin betikoa eta itzulezina izango da.

Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ez die arau-tresna nahikorik ematen erakunde publikoei, askotariko errealitate berri horrek gizartearen jardunean sorrarazi dituen arazo eta eskarietako asko kudeatzeko. Arau-zehaztasunik edo kudeaketa politikoko printzipiorik ez hori, besteak beste, kultu-aretoen edo -guneen gaian islatzen da, erlijio-askatasunerako eskubideaz baliatzeko parametro beharrezkoak baitira askotan, haren alderdi ageriko edo kolektiboari dagokionez. Erlijio Askatasunari buruzko 1980ko uztailaren 5eko Lege Organikoak, bigarren artikuluan, bermatzen du elizek, konfesioek eta erlijio-elkarteek erlijio-xedez kultu- edo bilkura-lekuak ezartzeko duten eskubidea, oinarrizko askatasun hari datxekion zati gisa. Ildo horretatik, Estatuko legeriak kultu-lekutzat definitzen ditu “soil-soilik” otoitz egiteko, erlijio-heziketa emateko edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren “eraikin edo lokalak”. Kultu-aretotzat hartzeko ez da aski legez ezarritako helburuak betetzea; horrez gain, konfesio bakoitzeko erlijio-agintariek emandako berariazko “ziurtagiria” behar da.

Nolanahi ere, orain artean, Estatuko edo autonomia-erkidegoetako hirigintza-arautegietan ez da finkatu berariazko estandarrik “erlijio-ekipamendu” mota

horretarako; salbuespen da Kataluniako Autonomia Erkidegoko uztailaren 22ko 16/2009 Legea, kultu-aretoei buruzkoa. Hain zuzen ere, ez Lurzoruari buruzko Estatuko 8/2007 Legeak, ez Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko EAEko 2/2006 Legeak, ez dute kultu-lekuak antolatzeko eta irekitzeko arau zehatzik ezartzen. Azken lege horrek aurreikuspen lotesle bat baino ez du hirigintza-diseinuaren ardura duen administrazioarentzat: sistema orokorren sarean erreserba bat ezartzea ezinbestean, "ekipamendu kolektibo pribatuetarako, hala nola merkataritza-zentro, erlijio-zentro …" (54.2e art.). Halaber, tokiko sistemen zuzkidura-sarearen ezinbesteko elementuen artean sartzen ditu "erlijio-erabilerarako ekipamendu pribatuak" (57.2.e art.).

Beraz, ezinbestekoa da gure autonomia-erkidegoak kultu-gune eta -aretoei buruzko berariazko araudia izatea, gune horiek izan nahi dituzten erlijio-elkarteek erlijio-askatasunerako duten eskubidea babestu ahal izateko; halaber, ezinbestekoa da administrazio publikoei kudeaketarako irizpide egoki eta sendoak ematea, gune eta areto horiei lotutako eskaerak hirigintzako plangintza orokorraren esparruan administratzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen zabalak ditu hirigintza gaietan, bai eta erlijio-profila izan dezaketen beste hainbat gaitan ere, hala nola osasuna, gizarte-laguntza, hezkuntza, komunikabideak, ingurumena edo ondare historiko-kulturala. Hala, Autonomia Estatutuaren 9.2. artikuluak adierazten du euskal botere publikoek konpromisoa dutela herritarren oinarrizko eskubideen eta betebeharren erabilera egokia zaintzeko eta bermatzeko, eta, hortaz, pertsonen eta giza taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetakoak izateko baldintzak eragitera eta oztopoak kentzera bideratutako neurri oro hartzeko betebeharra dutela. Erlijio-esparruko berdintasun eta askatasun hori gauzatzea lortzen da Konstituzio Auzitegiak "laikotasun positiboa" izendatu duena praktikatuz eta bermatuz; maila berean dagokie hori botere publiko estatal, autonomiko, foral edo lokal guztiei. Bestalde, 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluak agintzen du, agindu edo obligazio bidez, erlijio-konfesio guztiekin lankidetzan aritu behar dutela botere publiko guztiek.

Horrek guztiak esan nahi du euskal botere publikoek neurri positiboak hartzeko betebeharra dutela –eskuartean dugun hau bezalako neurri arauemaileak barne–, beren lurraldean oinarrizko eskubideak betetzen direla bermatzeko, eta eskubide horien barruan sartzen da, noski, erlijio-askatasuna. Neurri horiek guztiz bat etorri behar dute bereizkeriarik ezaren printzipioarekin, eta antolamendu juridikoaren printzipio operatiboak errespetatu behar dituzte; horien artean, batik bat, segurtasun juridikoa. Horrek guztiak justifikatzen du kultu-aretoak edo -guneak irekitzeari buruzko berariazko araudia egiteko beharra, Autonomia Estatutuaren irakurketa eguneratuak dakartzan obligazio horiei eraginkortasunez erantzuteko bide eman dezan.

Esparru horretan, lege honek neurriak hartzen ditu administrazio eskudunek beharrezkoak diren lurzoru-erreserbak ezar ditzaten, eta kulturako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko ezinbesteko baldintza tekniko eta materialak finka ditzaten. Legearen helburua, beste ezer baino lehen, erlijio-askatasunerako eskubideaz baliatzen laguntzea da, eta, halaber, euskal administrazio publikoei, batik bat toki-administrazioei, erreferentzia-irizpideak ematea, eskubide hori ziurta dezaten eta kultu-guneen baldintza egokiak berma ditzaten, hirugarrenen eskubide oro errespetatuz. Hala, udalen hirigintza-antolamenduko planetan erlijio-erabileretarako komunitate-ekipamenduetara bideratutako lurzoruak erreserbatzeko betebeharra ezartzea da arau honen oinarrizko ekarpenetako bat. Aldi berean, lege honetan aipatzen diren lizentziek ez dakarte, inolaz ere, oinarrizko eskubide bat gauzatzearen ondorio diren erlijio-jarduerak baimentzea, baizik eta

jarduera horiek egiteko lokalei baldintza duin eta egokiak bermatzea, hirugarrenen eskubideak babestuta. Hala, kultu-lekuak irekitzeko berariazko lizentzia ezartzeak bide emango du aplikatzekoa den administrazio-prozedura zehazteko eta kontzentratzeko; horrek udalerrien erabakietan koherentzia administratiboa erraztuko du, eta, hortaz, segurtasun juridikoa emango die eragindako erlijio-elkarteei. Azken batean, legeak erantzun arauemaile koherentea, bideragarria eta gure antolamenduaren printzipioekin bete-betean bat datorrena eman nahi dio estu-estu oinarrizko eskubide bati lotuta dagoen errealitate sozial berri horri, eta, hala, Estatutuaren agindua bete: herritar guztien eta herritarrek beren eskubideak baliatuz osatzen dituzten taldeen berdintasun benetakoa eta eraginkorra bultzatzea, demokratikoa eta aldi berean plurala den gizartean.

4 XEDAPEN OROKORRAK

4.1 1. artikulua.– Xedea.

Lege honen xedea hiri-antolamenduko planetan erlijio-erabilerako ekipamendu kolektiboetara bideratutako lurzoruak erreserbatzen direla bermatzea da, baita kulturako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko baldintza tekniko eta materialak zehaztea ere.

4.2 2. artikulua.– Printzipioak eta eskubideak.

Lege honen printzipioak honako hauek dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan erlijio- eta kultu-askatasunaz banaka zein taldean baliatzeko berme eraginkorra ematea. Eskubide horietaz baliatzeko mugak Erlijio Askatasunari buruzko Lege Organikoan xedatutakoaren arabera baino ezin izango dira ezarri.

b) Euskal gizartean dauden erlijio-elkarte eta -konfesioen artean tratu-berdintasuna bermatzea, bai kultu-aretoak irekitzeari dagokionez, bai lege honen eta lege hau garatzeko araudiaren arabera ezarritako funtzionamendu-kontrolei dagokienez.

c) Segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzarik hoberenak bermatzea eta ezartzea kultuko eta beste erlijio-erabilera batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko orduan.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erlijioek, konfesioek eta erlijio-elkarteek erlijio- eta kultu-askatasunaz baliatzeko lekuak edukitzeko duten eskubidea.

4.3 3. artikulua.– Aplikazio-eremua

1.– Lege hau aplikatuko zaie Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan sartzen diren kultu-aretoei, baita aldi batez edo noizean behin erlijio-jardueraren baterako erabiltzen diren gune eta ekipamendu publikoei ere.

2.– Orobat lege hau aplikatuko zaie konfesio eta erlijio-elkarte guztien hilerriei, bai eta udal-hilerrietan horiei eslei dakizkien ehorzketa-guneen erreserbei ere; hori guztia hiletetako osasun-neurrien eta toki-araubidearen arloan indarrean dagoen legediaren arabera.

3.– Lege honen aurreikuspenak ez zaizkie aplikatuko titulartasun publikoko ospitaleetako, laguntza-zentroetako, ikastetxeetako, beilatokietako eta espetxeetako kultu-lekuei, horiek gai bakoitzari dagokion berariazko araudiaren arabera arautuko baitira.

4.4 4. artikulua.– Kultu-aretoaren definizioa.

Kultu-aretotzat hartzen da jendearentzat zabalik dauden eta nagusiki eta modu iraunkorrean kulturako, erlijio-xedeko bileretarako eta erlijio-heziketa edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren eraikin, lokal edo areto erantsiak, edozein dutelarik titulartasuna, publiko zein pribatua, baldin eta, Erlijio Askatasunari buruzko Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, berariaz halakotzat aitortu baditu dena delako elizak, konfesioak edo erlijio-elkarteak, zeinak nortasun juridikoa eduki behar baitu.

5 LEHENENGO KAPITULUA

KULTU-ASKATASUNA HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAREN ESPARRUAN

5.1 5. artikulua.– Hiri-antolamenduko planen bidez erlijio-erabilerak determinatzea.

1.– Lege honen helburuak betetzeko, EAEko udalek hiri-antolaketarako egindako plan berriek kulturako eta erlijio-laguntza emateko lekutzat erabiltzeko gune nahikoa erreserbatu beharko dute, betiere dagoen lurzorua kontuan hartuta, eta udalerri bakoitzean gai honetan dauden premien eta eskaeren arabera.

2.– Obligazio hori betetzeko, udalek ezingo dute jardun kultu-askatasunaren oinarrizko eskubidean bereizkeria zuzeneko zein zeharkakorik edo mugatze arbitrariorik eragiten duten irizpideen arabera; batik bat, jarduera horretarako gune erreserbatuak erabakitzeko edo gune horiek konfesioei eta erlijio-elkarteei esleitzeko orduan.

3.– Nolanahi ere, udalek beren hirigintza-ahalmenak baliatu ahal izango dituzte, erlijio-ekipamendu eta kultu-lekuetarako kokapenik egokienak zein diren erabakitzeko, betiere herritarren interes orokorra zainduz eta elkarbizitza sustatuz; horretarako, erlijio-elkarteen erlijio- eta kultu-askatasuna eta pertsona guztien duintasuna eta eskubideak errespetatzen dituzten erabakiak eta neurriak hartuko dituzte.

4.– Erlijio-erabileretarako lurzorua zehazteko eta esleitzeko prozeduran, indarrean dagoen hirigintza-araudi estatala eta autonomikoa aplikatuko dira, bai eta dagokion foru-araua eta garatzen diren erregelamenduzko xedapenak eta udal-ordenantzak ere.

5.2 6. artikulua.– Titulartasun publikoko ekipamendu edo guneak aldi batean edo noizean behin erlijio-xedeetarako erabiltzea.

1.– Erlijio-jarduerak gauzatzeko, administrazio publikoek tratu berdina emango diete erlijio-konfesio eta -elkarte guztiei, hauei dagokienez:

a) Ekipamendu eta gune publikoen erabilera pribatiborako lagapen eta baimenak.

b) Jabetza publikoen erabilera pribatiboa.

c) Bide publikoaren aldi baterako okupazioa.

d) Ondare-ondasunen lagapena.

2.– Aurreko zenbakian aipatzen den jabari publikoaren erabilera pribatiboari dagokionez, konfesio batek baino gehiagok erabiltzeko leku, lokal edo erakinak bideratu ahal izango dituzte udalaren hiri-antolamenduko planek, lege honetan aipatzen diren jarduerak noizean behin egiteko, baldin eta jabari publikoko ondasunaren okupazioa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin egiten bada.

6 BIGARREN KAPITULUA

KULTU-ARETOAK (ETA BESTE ERLIJIO-GUNE BATZUK) IREKITZEKO UDAL ETA HIRIGINTZA LIZENTZIA

6.1 7. artikulua.– Kultu-aretoetarako (eta erlijio-erabilerarako beste gune batzuetarako) lizentzia.

1.– Jendeari irekitako kultu-areto berri bat zabaltzeko eta funtzionamenduan jartzeko, aldez aurretik, udal-lizentzia bat eskuratu beharko da; jarduera sailkatuko lizentzia izenekoa. Lizentzia horrek, betiere, izaera arautua izango du. Administrazio eskudunak ezingo du ukatu lizentzia hori, erlijio-erakunde eskatzaileak erlijio-zentro bat irekitzeko eska daitezkeen hirigintza eta teknika arloko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

2.– Obra handiaren izaera daukaten eraberritze-lanei ekitea proiektatzen denean ere beharrezkoa izango da kultu-aretoetarako udal-lizentzia eskatzea, baldin eta lan haiek egiteak kasuan kasuko lizentzia lortzea eskatzen badu. Bi lizentziok aldi berean eskatu ahal izango dira.

3.– Baldin eta, lege honekin bat etorriz, kultu-aretoak irekitzeko eta erabiltzeko udal-lizentzia behar duten lokalek hirigintza-lizentzia ere behar badute, eskatzaileak edo sustatzaileak, kasuan kasuko elizaren, erlijio-konfesioaren edo erlijio-elkartearen izenean, bi lizentziok eskabide-orri bakar batean eskatu behar ditu. Eskabide-orriari proiektu bakar bat erantsi behar zaio, aplikatu beharreko hirigintza arloko arauak betetzen direla egiaztatzeko.

6.2 8. artikulua.– Segurtasunari eta osasungarritasunari buruzko baldintza material eta teknikoak, kultu-aretoek nahitaez bete beharrekoak.

6.3

1.– Sarrera irekiko kultu-aretoek, betiere, erabiltzaileen segurtasuna eta instalazioen higienea bermatzeko, bai eta hirugarrenentzako eragozpenak ekiditeko ere, beharrezkoak diren baldintza material eta teknikoak eduki behar dituzte. Baldintza horiek, kasu guztietan, ezarriak izan diren helburuarekiko egokiak eta heinekoak izan behar dute, eta ezingo dute inola ere eragotzi edo zaildu, era arbitrarioan edo arrazoirik gabean, areto horietan gauzatzen den jarduera.

2.– Eusko Jaurlaritzak erregelamenduz ezarriko ditu sarrera irekiko kultu-aretoek bete behar dituzten segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun, babes akustiko, edukiera eta ebakuazioko gutxieneko baldintza tekniko eta materialak, bai eta hirugarrenei eragozpenak ekiditera bideratuak ere, aretoen tamaina eta kokapena kontuan hartuta; horrez gain, toki-erakundeek baldintza horiek bete daitezen zainduko dute.

Udalbatza batek irizpide eta baldintza horiek betetzen ez baditu, edo erlijio-elkarteen eskariei erantzuteko orduan udalbatzek pasibotasuna erakusten badute, horrek Eusko Jaurlaritzaren bitartekotza ekarriko du. Bitartekotza, betiere, lege honetan bertan jasotzen den aholku-batzordearen esparruan gauzatu ahal izango da.

3.– Lege honetan araututako aretoei ez zaie inola ere ezarriko jendeari irekitako establezimenduei oro har eskatzen zaizkienak baino segurtasun- eta higiene-baldintza zorrotzagorik.

6.4 9. artikulua.– Kutsadura akustikoaren kontrako babesa.

Kultu-aretoek, betiere, bete beharko dituzte arauketa estatalean eta autonomikoan – bai eta helburu horrekin onartutako udal-ordenantzetan ere– kutsadura akustikoari buruz bildutako ingurumen arloko arau-xedapenak.

6.5 10. artikulua.– Kultu-aretoak irekitzeko arauzko baldintzak ez betetzearen kontrako neurriak.

1.– Kasuan kasuko udaleko udalbatzaren osoko bilkurak lege honetan aurreikusten diren baldintza tekniko eta materialak betetzea exijitu ahal izango du, betetze hori ezinbestekoa bada kultu-aretoaren segurtasun eta osasungarritasun publikoak ziurtatzeko. Baldin eta eskakizun horri erantzuten ez bazaio, eragindako erlijio-erakundeari entzun eta erlijio-gaietarako berariazko batzordeari iritzia eskatu ondoren, udalbatzak itxi eta hustu ahal izango ditu kultu-aretoak irekitzeko eta erabiltzeko udal-lizentziarik ez daukaten jendeari irekitako lokalak, edota, lizentzia edukirik, lizentzia horren edukia betetzen ez duten edo lokalaren segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko exijitzen diren arauak urratzen dituzten aretoak, harik eta arauzko udal-lizentzia lortzen duten arte edo exijitzen diren legezko eta erregelamenduzko baldintzen aurkako akats edo irregulartasunak zuzentzen dituzten arte.

Akats edo irregulartasun horiek zuzentzeko, epe egokia eta nahikoa emango da, erregelamenduzko aurreikuspenekin eta beharrezkoak diren obren ezaugarri eta baldintza teknikoekin bat etorrita; epe hori akatsak konpondu gabe eta irregulartasunak ebatzi gabe igarotzen bada, udalbatzak aretoa itxi ahal izango du.

2.– Hala ere, kultu-askatasunaren erabilera bermatzeko, udalbatzak, ebazpen arrazoitu baten bitartez, 1. zenbakian aipatzen den establezimendua ixteko neurria ordeztea erabaki ahal izango du, eta, neurri horren ordez, instalazioen zati bat zigilatzea erabaki, baldin eta pertsonen segurtasuna bermatuta geratzen bada.

7 HIRUGARREN KAPITULUA

HIRIGINTZA-LIZENTZIAK ETA BESTE BAIMEN BATZUK

7.1 11. artikulua.– Hirigintza-lizentziak.

Kultu-lokalak eta gainerako erlijio-ekipamenduak kultu-aretoak irekitzeari eta funtzionamenduan jartzeari buruzko hirigintza-lizentziei aplikagarri zaien araubide orokorraren mende daude.

7.2 **12. artikulua.– Beste baimen batzuk.**
7.3
Kultu-aretoek, bertan gauzatu daitezkeen beste jarduera jakin batzuei dagokienez, aplikatu beharreko sektore-arauetan ezartzen diren baimenak eduki behar dituzte. Baimena eskatzetik salbuetsita egongo dira, edozein kasutan, hitzaldiak edo beste zernahi kultura- edo jolas-jarduera.
8
9

10 LAUGARREN KAPITULUA

ADMINISTRAZIO-, IREKIERA- ETA HIRIGINTZA-PROZEDURARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

10.1 **13. artikulua.– Administrazio-espediente bakarra.**

1.– Kasuen arabera egokitzen den hirigintza-lizentzia, bai eta kultu-aretoen udal-lizentzia ere, espediente bakar batean izapidetu behar dira, lizentzia bakoitzerako eska daitekeen dokumentazio teknikoa aurkeztu beharra baztertu gabe.

2.– Erakunde interesdunak eskabide-orri bakar batean eskatuko ditu aurreko zenbakian aipatzen diren bi lizentziak. Eskabide-orri horri kasuan kasuko dokumentazio teknikoa erantsiko zaio, eta dokumentazio hori ere espediente bakar batean bil daiteke.

3.– Lizentziaren izapidetzeak toki-erakundetik bertatik datozen edo haren beraren esku dauden ziurtapen, txosten edo aldez aurreko beste dokumentu batzuk edukitzea eskatzen badu, espediente nagusia izapidetzen duen bulegoak zuzenean eskatu beharko ditu horiek guztiak, eta erakunde interesdunari jakinarazi.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek ez dute beste lizentziarik edo baimenik exijituko kultu-aretoak finkatzeari dagokionez, lege honetan zehatz-mehatz ezarritakoez gain.

11
12 BOSGARREN KAPITULUA

ERLIJIO-ERAKUNDEEN PARTE-HARTZEA ERLIJIO- ETA KULTU-LEKUAK ZEHAZTEKO PROZEDURETAN.

12.1 **14. artikulua.– Erlijio-konfesio eta -elkarteen parte-hartzea kulturako edo erlijio-izaerako beste jarduera batzuetarako gune publikoak erabiltzeari buruzko administrazio-prozeduretan.**

1.– Kultu-leku eta erlijio-ekipamenduetarako erreserbatutako guneak zehazteko eta esleitzeko prozeduretan parte hartuko dute eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarteek, hirigintza arloko legedian jendaurreko informaziorako eta herritar-lankidetzarako aurreikusitako kasuetan eta moduan.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eta erlijio-konfesio eta -elkarteen arteko elkarrizketarako eta lankidetza instituzionalerako organo izateko, aholku-izaerako batzorde bat sortuko da, aholkuak eta irizpenak emateko berariaz erlijio-askatasunaren eta kultu-askatasunaren erabilerari eragin diezaioketen Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoen ekimen eta erabakietan. Batzorde horretan, orobat, ordezkariak izango dituzte foru-aldundiek, udalek, hainbat adituk eta lege honen aplikazioan interes kualifikatua duten beste herritar-elkarte batzuek.

13 XEDAPEN GEHIGARRIAK

13.1 LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Egoitza Santuarekiko eta beste eliza, erlijio-konfesio eta erlijio-elkarte batzuekiko akordioak.

Lege honetan ezarritakoak ez ditu baztertzen Egoitza Santuarekin izenpetutako akordioak, ez eta Estatuak elizekin, erlijio-konfesioekin eta erlijio-elkarteekin sinatutako lankidetza-akordioak onartzen dituzten lege-mailako arauak ere.

13.2 BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Lizentzia lortzeko egiaztapena.

Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko Akordioaren I.2 artikuluan gai juridikoei buruz xedatzen dena alde batera utzi gabe, beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen duten eliza, erlijio-konfesio eta -elkarteek, hirigintza-lizentzia eskatzeko eta kultu-aretoen udal-lizentzia edo 6. artikuluan aipatzen den noizean behingo erabilerarako lagapena edo baimena eskatzeko, erlijio-erakundeen erregistro estatalean edo Euskal Autonomia Erkidegoan sor daitekeen antzeko izaerako beste edozein erregistrotan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute.

13.3 HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Zuzeneko eta zeharkako bereizkeria kultu-askatasunaren erabileran.

Zuzeneko bereizkeria gertatzen da eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte batek, kultu-leku edo -guneen irekierarekin eta funtzionamenduarekin lotutako alderdiren batean, tratu desberdina jasotzen duenean beste eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte batek antzeko egoera batean jaso duenaren aldean, baldin eta tratu-desberdintasunak alde hori modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat ez badu eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak beharrezkoak eta egokiak badira.

Zeharkako bereizkeria gertatzen da udalaren hirigintza-antolamenduko plan batek, lizentzia edo emakida batek edota itxuraz neutroa den irizpide edo praktika batek desabantaila berezi bat eragiten dionean eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte bati beste batzuen aldean, kulturako leku edo gune bat edukitzeko eskubidean. Ez dago zeharkako bereizkeriarik jarduketak hura modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat badu eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak beharrezkoak eta egokiak badira.

14 XEDAPEN IRAGANKORRAK

14.1 LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.- Udalaren hirigintza-antolamenduko planak lege honetara egokitzea.

1.– 5. artikuluan ezartzen den eskakizuna aplikagarri zaie lege hau indarrean sartzen den unean izapidetze-egoeran edo berrikuste-prozesuan dauden eta behin betiko ebazpena jaso ez duten hiri-antolamenduko planei ere.

2.– Udal mailako hirigintza-antolamenduko plana 5. artikuluko zehaztapenetara egokituta ez daukaten udalerriek plana zehaztapen haietara egokitu beharko dute, lege hau indarrean sartu ondoren onartzen den hirigintza-plangintzaren lehenengo aldaketan.

3.– Udalerriek, edozein kasutan, lege honen 5. artikulura egokitu behar dute beren plangintza orokorra, indarrean sartzen denetik 5 urteko epean. Epe hori hirigintza-plangintzaren eraberritzea eta egokitzapena gauzatu gabe bete ondoren, erlijio-elkarte eta herritarrek jurisdikzio-bidean exijitu ahal izango dute egokitzapen hori.

14.2 **BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko Inbentarioan sartutako kultu-aretoetarako legedi aplikagarria.**

1.– Euskal Kultur Ondarearen Inbentarioan sartutako kultu-aretoak Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren bidez arautzen dira. Beraz, lege hau ez da aplikagarria areto horientzat.

2.– Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legea orobat hirugarren xedapen iragankorrean aipatzen den epearen barruan Inbentarioan sartuta dauden kultu-aretoei eta haiei bakarrik aplikatzekoa izango da.

14.3 **HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Euskal Kultur Ondarearen Inbentarioan sartuta ez dauden kultu-aretoak.**

Lege hau onartzen den unean dauden sarrera irekiko kultu-aretoek, baldin eta bigarren xedapenean aipatzen den inbentarioan sartuta ez badaude, lege honen garapenean erregelamendu bidez ezartzen diren oinarrizko segurtasun-, osasungarritasun- eta ingurumen-baldintzak bete beharko dituzte. Egokitzapena lau urteko epean egin beharko da, erregelamendua onartzen denetik aurrera. Ondorio horietarako, kultu-aretoen titulartasuna dutenak behartuta daude udalei jakinaraztera aipatutako eskakizunak betetzen dituztela.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Kultu-aretoen baldintza tekniko eta materialak egokitzeko aldia.

Lege hau indarrean sartzean 8. artikuluan aipatzen diren eta erregelamenduan ezarriko diren gutxieneko eskakizun material eta teknikoak betetzen ez dituzten kultu-aretoek, gehienez ere, garapen-arautegian horietara egokitzeko ezartzen den denbora izango dute horretarako. Epe hori ezin izango da 4 urte baino luzeagoa izan.

AZKEN XEDAPENAK

14.4 **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Erregelamendua onartzea.**

Eusko Jaurlaritzak, lege hau indarrean sartzen denetik sei hilabeteko epean, lege honen garapeneko erregelamendua onartu behar du.

14.5 **AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Indarrean jartzea.**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogei egunera jarriko da indarrean.